[illegible]

A.T.V.
2834
INSTITUCION SANCHO EL SABIO
OBRA SOCIAL
Caja de Ahorros de Vitoria

M - 10052
R - 4433

# CRISTINAUBEN

# DOTRINIA

## D. BARTOLOME OLAECHEA

BILBOCO OSPITALE SANTUCO ERRETORIAC, LAUCARISCO CURA ZANIAN, JAI DOMEQUETAN ESPLIQUETAN EVAN LEGUEZ.

Libruchu oni ipincenjaco curutce santubaen estaciñoia baño leenago meza ondo enzuteco moduba.

ORAIN BEDERATCIGARRENEZ.
*reimprimidu da*
*BIAR DAN LEGUEZ.*

BILBON: ADOLFO DEPONT-EN IMPRENTAN.

Saldutenda bere librerijan San Juango Elexien aurrian,—1848 garren urtian.

# AVISUA.

Lotsaz isten bada,
esan baga pecatuba,
eztago arentzat Ceruric,
ezpada infernuba.

Eriotzaco orduban
gach da confesetia
lenago acorda zaitez
pecatari tristia.

Pecaturic urteteco
orañ negar eguizu;
bada gueroco damubac
balijoco ezteutsu.

Liburuchu onec daucazan Capitulubetatic bat,-nai bat iracurri edo enzuten dan bacochian, irabasten dira eun, eta oguei eguneco Indulgencijac.

# EGUNIANGO
# CRISTINAUBAEN
## EXERCICIOA.

*Iratzartu, eta bertati Cristinaubac cer eguin biar dau?*

Crutciaen ceñalia, eta esan: Jesus Marija Josepe: neure Jangoicua, nic emoten deutsut neure bijotza.

*Jagui, eta janci ezquero, cer eguin biar dau?*

Ur bedeñcatuba artu eta belaunico esan:

Crutce † Santiaen seňalia gaiti gueure † arerijuetaric libradu gaguizuz gueure Jaun, † eta Jangoicua.

Aitiaen, † eta Semiaen, eta Espiritu Santubaen icenian Amen.

Erdu Espiritu Santu Jauna, ceure fielen bijotcetara, eta eresegui eguizu gugan ceure amoreco suba.

Neure Jangoico laztana, sinistutendot

firmemente ceuc esan dozun gustia; adoretan zaitut, eta esperetandot ceugan: amétan zaitudaz neure biijotz guztiric, damudot, Jauna, izanic Ceu aiñ ona ofendidu zaitudazalaco.

Gracijac emoten deutsudaz, neure Jaun andija, criadu nozulaco, cristinau eguin, eta Jesucristoen Odol preciosuagaz erredimidu nozulaco, orañ artian gorde nozulaco, eta orañ guiño ceure escu santubetarie artu dodazan, mesede, eta ondasun guztiac gaiti.

Ofrecietandeutsudaz, Jauna gaurco neure pensamentu, berba, neque, eta cereguin guztiac, ceure Seme Jesucristo gueure Jaunaren Pasiñoeco merecimentubacaz batera.

Proponietandot, leenago galdutia neure biciteia, ceu ofendidu baño. Gorde naguizu gach guztietaric, eta emon eguidazu ceure gracija, ceure gustora eguiteco egun onetaco, gauza, eta cereguin guztiac, au erregututen deutsut, Jesucristo gueure Jauna gaiti, Ama Virgina Santisimia gaiti, eta Ceruco Santu, eta Santa guztiac gaiti. Alan izan della arren bai.

## AITA GURIA.

Aita guria Cerubetan zagozana : santificadu bedi zure icena, betor zure erreñuba gugana : eguin bedi zure borondatia celan Ceruban alan lurrian, emon eguiguzu gaur gueure egunian eguniango oguija, eta parcatu eguiguzuz gueure zorrac, gueuc gueure zordunai parcatuten deutceguzan leguez : eta ichi eceiguzu jausten tentaciñoian ; baicic libradu gaguizuz gachetic. Amen.

## AVE MARIJA.

Ave Marija, gracijaz betia, Jauna da zugaz, bedeincatuba zara zu andra guztien artian, eta bedeincatuba dá zure cabeleco frutuba Jesus. Santa Marija Jangoicuaen Ama erregutu eguizu gu becatarijoc gaiti oraiñ, eta gure erijotzaco orduban Amen.

## CREDUA.

Sinisetandot Aita Jangoico guztiz poderoso, Cerubaen, eta lurraen Criadoriagan: eta bere Seme bacar Jesucristo gure Jaunagan, ceñ sortu zan Espiritu Santubaen obraz, eta gracijaz : Jajo zan Marija Virgi-

nia ganic : padecidu evan Poncio Pilatosen poderiaen beian, izan zan Crucificaduba, ill, eta enterraduba; jatsi zan infernubetara; eta irugarren egunian biztu zan illen arteric : igo evan Cerubetara, eta dago jarriric Aita Jangoico guztiz poderosuen ezcumatati-; aric etorrico dá, bicijac eta illac juzguetan. Sinisetandot Espiritu Santubagan : Elexa Santa Catoliquia, Santuben Comuniñoia, pecatuben parcaciñoia, araguijaen erresurreciñoia, bicitza beticua Amen.

## SALVIA.

Salve Erreguiña misericordijaen Ama, bicitcia, eta dulzuria, Salve esperanza guria. Ceuri deiez gagoz cizpuruz, sentimentuz, eta negarrez negarrezco erri onetan : ea bada Andria Bitarteco gueuria, biurtu eguizuz gugana ceure begui misericordijazco orrec eta desterru au igaro eta, era. cutsi eguiguzu Jesus ceure sabeleco frutu bedeiñcatuba, O Clementisima! O Piadosa! O Marija Virgina gozua! Erregutu eguizu gugaiti, Jangoicuaen Ama Santia, digno izan gaitezan Cristoen promesen. Amen.

# JANGOICUAEN LEGUECO

## MANDAMENTUBAC DIRA AMAR.

*Lenengo irurac jagocaz, edo pertenecietan jacaz Jangoicuaen onriari, eta beste zazpirac progimuaen probechubari.*

Lenengua, Jangoicua ametia gauza guztien ganian.

Bigarrena, bere izen santubagaz juramentu banuan edo alperric ez eguitia.

Irugarrena, Jai eguna santifiquetia.

Laugarrena, Aita, eta Ama onretia.

Bostgarrena, ez iñor illtia.

Seigarrena, araguizco pecaturic ez eguitia.

Zazpigarrena, ez ostutia.

Zortcigarrena, testimonio falsoric ez ezartia, eta guzurric ez esatia.

Bederatcigarrena, progimuen emazteric ez desietia.

Amargarrena, besteen ondasun bide bagacoric ez gura izatia.

Amar Mandamentu onec sartuten dira bitan.

Jaugoicua servidu, eta amadu gauza guztien ganeti: Eta gueure progimua gueure burubac leguez. Amen.

## ELEXA SANTACO MANDAMENTUBAC

DIRA BOST.

Lenengua, Domeca, eta Jai egunetan meza oso bat enzutia.

Bigarrena, urtian beiñ edolabere confesetia, edo leenago erijotzaco peligruric bada, edo comulgauco bada.

Irugarrena, Pazco erresurreciñocuetan comulguetia.

Laugarrena, Elexa Ama Santíac aguinduten dabenian barau eguitia.

Bostgarrena, Amarrenac, eta Primicijac paguetia.

## FEDECO ARTICULUAC

*dira amalau, lenengo zazpirac jagocaz Jangoicotasunari: beste zazpirac Jesucristo gueure Jangoico, eta Guizon eguijazcuaen Umanidade santubari.*

*Jangoicotasunarí jagocazanac dira onec.*

Lenengua sinistu Jangoico guztiz Poderoso bacar bategan.

Bigarrena, sinistu, dala Aita.

Irugarrena, sinistu, dala Semia.

Laugarrena, sinistu dala Espiritu Santuba.

Bostgarrena, sinistu dala Criadoria.

Seigarrena, sinistu dala Salvadoria.

Zazpigarrena, sinistu dala Glorificadoria.

*Umanidadiari, edo guizatasunari jagocazanac dira onec.*

Lenengua, sinistu Jesucristo gueure Jauna Guizona dan partez, sortu zala Espiritu Santubaen obraz, ta gracijaz.

Bigarrena, sinistu jaijo zala Santa Marija Virginia ganic, zala Virgina, Semia jaijo artian, jaijotcian, eta jaijo ezquero.

Irugarrena, sinistu artu ebala erijotcia, eta pasiñoia, gu becatarijoc salbetiarren.

Laugarrena, sinistu jatci zala infernubetara, eta bere etorrera santubaen beguira egozan Guraso Santuben arimac atera cituzala.

Bostgarrena, sinistu irugarren egunian illen arteric biztu zala.

Seigarrena, sinistu igo ebala Cerubetara, eta daguala jarriric Aita Jangoico guztiz poderosuaen ezcumatati.

Zazpigarrena, sinistu etorrico dala bicijac, eta illac juzguetan. Esan gura dau, ce emongo deutcéla onai glorija, bere Mandamentubac gorde citubelaco, eta deungai betico penia, gorde ez citubelaco. Amen.

## CONFESIÑOA.

Ni becatarijau confesetan najaco Jangoico guztiz Poderosuari, Santa Marija beti Virginiari, San Migel Arcangelubari, San Juan Bautistiari, San Pedro, eta San Pablo Apostolubai, Santu guztiai, eta ceuri Aita espiritual orri, eguin dodalaco pecatu pensamentubagaz, berbiagaz, eta obriagaz: neure erruz, neure erruz, neure erru andijagaz, orregaiti erregututen deutsat Santa Marija beti Virginiari, San Miguel Arcangelubari San Juan Bautistiari, San Pedro, eta San Pablo Apostolubai, Santu guztiai, eta ceuri Aita Espiritual orri, erregutu deijozula ni gaiti guere Jaun eta Jangoicuari. Amen.

## ACTO CONTRICIÑOCUA.

Neure Jesu-Cristo Jauna, Jangoico, eta

Guizon eguijazcua, neure Criadoria, eta Erredentoria : Zu zariana zarialaco, eta amétan zaitudazalaco beste gauza guztiac baño gueijago : damu dot, Jauna, neure bijotz guztiric, ceu ofendiduba : proponietan dot ez gueijago pecaturic eguiteco, eta ceure ofensaco ocasiñoe guztietaric apartétaco, eta confesetaco, eta emoten deusten penitencija cumplietaco, ofrecietan deutsudaz, Jauna, neure bicitcia, obrac, eta trabajubac neure pecatuben satisfaciñoraco, eta daucat confiancia ceure ontasun, eta misericordija chito andijan, parcatuco deustazuzala, ceure odol precioso, Pasiñoe, eta erijotcia gaiti, eta emongo deustazula gracija, neure bicitcia obatuteco, ta irauteco neure erijotzaco ordu artian. Amen.

*Goxian, eguberdijan, eta arratcian esateco oraciñoia.*

Anguerubac barri onac Ama Virginiari emon, eta Espiritu Santubaen gracijaz Semia bere sabelian sortu zan. *Ave Marija.*

Ara Jaunaen Esclabia, ceure berbiagaz batera nigan eguin bedi. *Ave Marija.*

Jangoicuaen Semia Guizon eguin zan,

eta gure artian vici izan zan. *Ave Marija.*

℣. *Jangoicuaen Ama Santia gugaiti erregutu eguizu.*

℟. *Cristoen promesen digno eguin gaitezan.*

## ORACIÑOA.

Emon eguiguzu, arren, Jauna gueure arimetan ceure gracija; Anguerubac barri onac ecarri, ta Cristo ceure Semiaen Encarnaciñoia ezautu dogunoc, bere Pasiñoe, ta Crutciagaiti Erresurreciñoeco glorijara eruanac izan gaitezan. Amen.

## MEZAN, EDO ASTIJA DAUCANIAN

*adorauco ditu Jesucristoen bost llaga preciosuac modu onetan.*

## ESCUMACO ESCUCO LLAGUIARI.

¡O neure Jesusaen llaga preciosua! Bijotz guztiagaz adoreetan zaitudaz ta orregaiti escatuten deutsut Jauna, neure memorijagaz entendimentubagaz eta borondateagaz eguin deutsudazan ofensa guztien parcaciñoia. *Aita gurea, Ave Marija eta Glorija.*

## EZQUERRECO ESCUCO LLAGUIARI.

¡O neure Jesusaen llaga preciosua! Bijotz guztiagaz adoreetan zaitudaz eta orregaiti esquetan deutsut Jauna neure beguijacaz eta beste sentidu guztiagaz eguin deutsudazan ofensa guztien parcaciñoia. *Aita gurea &c.*

## ESCUMACO OÑECO LLAGUIARI.

¡O neure Jesusaen llaga preciosua! Bijotz guztiagaz adoreetan zaitudaz eta orregaiti escatuten deutsut Jauna neure berba eta obra guztiacaz eguin deutsudazan ofensa guztien parcaciñoia. *Aita gurea &c.*

## EZQUERRECO OÑECO LLAGUIARI.

¡O neure Jesusaen llaga preciosua! Bijotz guztiagaz adoreetan zaitudaz eta orregaiti escatuten deutsut Jauna neure pausu, eta ibillera gueztuacaz eguin deutsudazan ofensa guztien parcaciñoia. *Aita gurea &c.*

## BIJOTZ SAGRADUCO LLAGUIARI.

¡O neure Jesusaen llaga preciosua! Bijotz guztijagaz adoreetan zaitudaz eta orregaiti escatuten deutsut Jauna, celan ceure bijotza lanza gogorragaz josija izanzan, eta ceure Ama Santisimiaena ezpata zorrotzagaz; alan neure Arimia ceure amodijuagaz betico josi daizula; bada gurago dot'ill, ceu ofendidu baño *Aita gurea* &c.

*Erlojubac joten davenian cer esan biar da?*

Guraneuquez, Jauna, falta dodazan orduboc ceu servietan igaro, alan pecatuban jausten ez eguidazu echi. *ave Marija.*

*Biarren bat asten danian, cer esango da?*

Neure Jaun, eta Jangoicua, nic ofrecietan deutsut oraiñ eguiten noian biar au, ezarri eguizu ceure bendeciñoe Santuba. Guraneuque leenago neure bicitcia galdu, ceu ofendidu baño. *Paternosterra eta ave Marija.*

*Ondo da, aldaijanac, egunian beñ me-*

*za enzutia?*

Da debociñoe guztietaric andijena, eta oneena.

*Játen asi baño leenago, cer esan biar da?*

Neure Jaun, eta Jangoicua, erdu, eta bedeñcatu eguizu nic orañ artuten nojan jateco au, eta izambedi ceu servietaco, eta alabetaco. Amen.

Benedicite

*Dominns nos, & ea quæ sumus sumptari benedicat destera Cristi, in nomine Patris, & Felii, & Spiritus Santi. Amen.*

Aita gurea eta Ave Marija.

*Cer esan biar da jan ezquero?*

Neure Jaun, eta Jangoicua, esquer andijac emoten nagotzu, emon deustazun Jatecuä gaiti, eta ceu servietaco izan bedi. Amen.

℣. *Tu autem Domine miserere nobis,*

℟. *Deo gratias.*

℣ *Agimus tibi, gratias, Omnipotens Deus, pro unibersis beneficiis tuis qui vivis & regnas in sæcula saculorum.*

℟. *Amen.*

℣ *Fidelium Animæ per misericordiam Dei requiescant in pace Amen. Aita gurea eta Ave Marija.*

* Cer eguin biar dá arratsian?

Afaldu baño leenago ecelambere albadedi errosarijua Ama Virgina Santisimiari sosiguz errezau,

* Eta oian sartu baño leenago, cer eguin biar dá?

Ur bedeñcatuba artu, eta belaunico esan, Crutce santiaen, &c. goxian leguez an dagozan oraciñoiacaz, eta onec bere.

O Jangoicuaen Ama Santisimea Señora gracijaz betia, eta pecatari guztien ampáruba, ceu gana artu naguizu, asistidu eguidazu; arren neure eriotzaco orduban ez naguizu desamparau.

*Guero eguingo dá examina concienciacua, ecarten dituzala memoriara, edo gogora egun atan eguin dituzan falta guztiac, pensamentuz berbaz, obraz omisiñoez eta iñori exemplu deunguia emonagaz, eta acabau acto Contricionoeco bategaz.*

Neure Angueru guardacua, lagundu eguidazu, eta gau onetan gorde naguizu, Jesus, Marija Josepe socorridu naguizu,

Jangoicuac emon deigula bere gracija, eta guero betico glorija Amen.

*Oera sartu orduban cer eguin biar dá?*

Ur bedeñcatuba artu ta eguin Crutcia becoquijan, eta oiaen ganian esanagaz.

Neure Jangoicua, emon eguidazu gracija gau au, ceu ofendidu baga iragoteco, eta gorde naguizu gauza deunga guztietaric Amen Jesus, Maria, Josepe.

# CRISTINAUBAC

## JAQUIN BIAR DITUZAN FEDECO

### GAUZARIC PRINCIPALENAC.

---

Noc eguin cenduzan?

Jangoicuac.

* Cetaco?

Bera ezaututeco, amétaco, servietaco, eta guero betico gocétaco.

* Jangoicúa cer dá?

Da gauza bat esan, ta ez pensau allitequian andi, eta miragarrijena : Jaun bat chito ona, Poderosua, Jaquituna, zucena,

Justuba, gauza guztien asieria eta acabuba.

* Jangoicua nun dago?

Ceruban, Altaraco Santisimo Sacramentuban, eta lecu guztian.

* Cembat Jangoico dira?

Bat Jauna.

* Cembat Persona daucaz Jangoicuac?

Iru, Aitia, Semia, eta Espiritu Santuba.

* Trinidade Santisimia cer da?

Da Jangaicua bera, Aitia eta Semia, eta Espiritu Santuba, iru persona distinto, eta Jangoico eguiazco bat.

* Lenengo persona ceñ da?

Aitia Jauna.

* Ceñ dá bigarrena?

Semia.

* Ceñ dá irugarrena?

Espiritu Santuba.

* Cegaiti dericho Aitia lenengo Personiari?

Bere izatia eztacarrelaco iño ganic.

* Eta cegaiti Espiritu Santuba, irugarren Personiari?

Dacarrelaco bere izatia Aitia-ganic eta Semia-ganic.

* Aitia Jangoicua dá?
Bai Jauna.
* Semia Jangoicua dá?
Bai Jauna.
* Espiritu Santuba Jangoicua dá?
Bai Jauna.
* Iru Jangoico dirá?
Es Jauna: Jangoico bacar bat.
* Aitia Semia dá?
Ez Jauna.
* Espiritu Santuba Aitia, edo Semia dá?
Ez Jauna.
* Cegaiti?
Cegati dirian personac distintuac, eta eztaguan Jangoico eguiazco bat baño.
* Iru personac diriala distintuac, cer esan gura dau?
Esan gura dau, ce bata bestia eztiriala: bana diriala.
* Iruretaric ceñ dà andijena, jaquitunena, edo zarrena?
Irurac dira igualac gauza guztietan.
* Iru personetaric ceñ eguin zan Guizon?
Trinidadeco bigarren Personia, ceñ dan Semia.
* Cer esan gura dau, Semia eguin zala guizon?

Gorputza, eta arimia artu cituzala geuc leguez.

* Gorputz, ta Arima au nun artu-cituzan?

Ama Virgina Santisimiaen Sabel Virginalian, Espiritu Santubaen obraz.

* Ama Virgina Marija Santisimia nor dá?

Jesu Cristo gueure Jaunaen Ama.

* Nor da Jesu-Cristo?

Jangoicuaen Semia Guizon eguinic.

* Cetaco Jangoicuaen Semia Guizon eguin zán?

Gu erredimietarren, salbetarren, eta infernutic libretarren.

* Jesu-Cristo nos concebidu, edo sortu zán?

Martijaen ogueta bost garrenian, ceñi esaten deutsagun Andra Marija Martico edo Ama Virginiaen Anunciaciñocco eguna.

* Nos jaijo zán?

Gavon gavian Belenen.

* Ce egunetan circuncidau zán, eta iminicutsen Jesusaen icena?

Urtiaen lenengo egunian, edo Urte barriz.

* Ce egunetan iru Erreguiac adorau e-

ven?

Urtar illain seigarrenian, edo Aparicioz.

* Nos ill zan?

Baricu Santu egunian.

* Nun eta celan ill zán?

Jerusalenen Crutce baten josiric.

* Nogaiti ill zan Jesu-Cristo?

Munduco guizon guztiac gaíti.

* Nos biztu, edo erresucitau zan?

Pazco goxian.

* Nos igo evan cerubetara?

Ascensiñoe egunian.

* Ce egunetan bialdu eutsen Espiritu Santuba bere Apostolubai?

Mayaz Pazco egunian.

* Nos etorrico dá, bicijac, eta illac juzguetan?

Mundubaen acabuban

* Ce Juicio eguingo dau Jangoicuac orduban?

Onai emongo deutsé betico glorija, eta deungai beteco penia.

* Sacramentu Elexacuac ceñ bat dira?

Zazpi.

Lenengua, Bautismua.

Bigarrena, Confirmaciñoa.

Irugarrena, Penitencija.
Laugarrena, Comuniñoa.
Bostgarrena, Estremaunciñoa.
Seigarrena, Ordea.
Zazpigarrena, Matrimonioa, edo Esconcia.

* Sacramentubac noc eguin cituzan?

Jesu-Cristo gueure Jaunac, gueure arimen oneraco.

* Sacramentu Santubac dauquézan efectoric principalenac ceñzuc dira?

Bautismuac eguiten gaituz Cristiñau.

Confirmaciñoac, confirman, sendotu edo fuertetuten gaituz Fedian.

Penitencijac, parcatuten deuscuz pecatubac.

Comuniñoac, mantenietan dituz gueure arimac.

Oleaciñoiac, lagunduten deuscu, ondo illten.

Ordiac emoten dau poderia, funciño, eta gauza sagradubetan.

Matrimoniñuac emoten dau gracija, seme alabac Ceruraco aziteco.

* Ceñzuc dira Guizonaen acabuco gauzac?

Eriotcia, Juicioa, Infernuba, eta Glo-

rija,

* Ill zaitezanian, zure arimiagaz cér izango dá?

Aguertuco da Jesu-Cristoen aurrera, mundubau eguin dituzan obra guztien contu, eta errazua emoten

* Juicio au eguin ezquero, zure arimia nora joango dá?

Eztadu gracijazcuan illten bada, joango da Cerura; baia illten bada pecatu mortolian, joango da infernura.

* Cer izango dá zure gorputzagaz ill ezquero?

Auts biortuco da.

* Zure gorputza betico guelditaco dá lurrian.

Ez Jauna, Juicijoco egunian biztuco dá, eta aguertuco dá Josefataco Vallian, bere bicitzaco gauza guztien contu emoten.

* Acabuco Juicijo aû eguin, ta cer izango dá zure gorputz, eta arimiagaz ?

Juicijo onetan ondo urteten badabe juango dira Cerura; baia deungaro urteten badabe; juango dira bijac Infernura, nun egongo dirian eternamente.

## FEDIA.

* Cristiñaubaen virtuteric principalenac ceñzuc dirá?

Iru: Fedia, Esperancia, eta Caridadia.

* Fedia cer dá?

Icusi eztoguna sinistutia, Jangoicuac esan davelaco.

* Jangoicuac esan daben guztia sinistu biar dá?

Bai Jauna, cegaiti ce Articuluben baten sinistu ez, edo dudetan davenac, galdu dau Fedia.

* Fedia bagá salba gueñtequez?

Ez Jauna; bada Fedia da gueure Erligiñoaen, eta salbaciñoaen fundamentu, ta cimentu principala.

* Fediac iracasten deutsuzán eguijac cegaiti sinisetan dozuz?

Jangoicuac (ceñ iñoc ecin engañau leijan, ta ez berac bere iñor engañau) iracatsi, eta errebelau dituzalaco.

* Ce misterijo dirá, particularrian jaquin, eta sinistu biar doguzanac?

Onec: Lenengo, dala Jangoico bat, eta ru persona istinta.

Bigarrena, Trinidadeco bigarren Perso-

nia Guizon eguin zala, eta ill zala crutcian, gu becatarijoc salbetiarren.

Irugarrena, daguala Ceruba onenzat, eta Infernuba deunguenzat.

* Eguizu ia orañ Fedeco Acto bat?

† Neure Jaun, eta Jangoicua, sinistutendot zariala Jangoico eguijazco bat, eta iru persona distinta : eta orrez ganeti Elexa Santiari iracatsi, eta errebelau deutsazun guztia, Ceuc alan esan dozulaco, eta eguija bera zarialaco.

* Ce frutu atera biar dogu leciñoe onetaric?

* Lenengo, escatu humildade andjiagaz Jangoicuari conserbau, ta aumentau deigula berac emon euscun Fede Santuba.

Bigarrena, Fedeco actuac eguiten icasi, eta eguin sarri, especialmente trabaju, edo obra onen bat asten dogunian, eta tentaciñoen bat jatorcunian.

## ESPERANCIA.

* Jangoicuagan sinistutia beste baga, asco dá salbetaco?

Ez Jauna, euqui biar dá Esperancia bere.

* Esperancia cer dá?

Esperetia Ceruco glorijac, Jangoicuaen gracijagaz, eta gueure obra onen mendijoz.

* Eguizu Esperanzaco Acto bat?

† Neure Jaun, eta Jangoico ona, esperetan, eta ichadoten dot ceure misericordija andijan, juango nasala Cerura, ceu betico gocétan; gordetan badodaz ceure Mandamentu santubac.

## CARIDADIA.

* Asco dá euquitia Fedia, ta Esperancia salbetaco?

Ez Jauna, biar da Caridadia bere, eta au baga ecin salba liteque; bada Caridadia bagaco obrac ecer balijo estave.

* Caridadia cér da?

Jangoicua beste gauza guztien ganeti, ametia, eta gueure progimua gueure burubac leguez.

* Gueure Progimoac norzuc dirá?

Guizon guztiac ; Infiel, eta gueure arerijo guiñocuac.

* Caridadeco Acto bat eguizu?

† Neure Jaun, eta Jangoico laztana, nic

ametan zaitudaz beste gauza guztiac baño gueijago, neure bicitcia baño bere guejago, eta neure progimua neure buruba leguez, ceu gaiti.

* Cetará obliguetan gaituz progimuen amoriac?

Gueure burubenzat gura doguna aenzat bere gura izatera.

* Cetan ezautuco dá progimuari gura deutsaguna?

Obra Misericordijazcuac diñuena eguitian.

* Obra Misericordijazcuac cembat dirá?

Amalau, zazpi espiritualac, eta zazpi corporalac edo gorputcecuac.

*Ezpiritualac dira onec.*

Lenengua, eztaquijenari iracastia.

Bigarrena, biar dabenari conseju ona emotia,

Irugarrena, uts eguin edo erratuten davena, arteztu edo zucendutia.

Laugarrena, injurijac parquetia.

Bostgarrena, tristia consoletia.

Seigarrena, gueure progimuen miserijac, edo argaltasunac pacienciatan igarotia.

Zazpigarrena, illac gaiti, ta gueu perseguietan gaitubezanac-gaiti Jangoicuari er-

regututia.

*Zazpi corporalac dira onec.*

Lenengua, guexuac, eta presuac, bisitetia.

Bigarrena, gose danari jaten emotia.

Irugarrena, egarri danari edaten emotia.

Laugarrena, cautibuac errescatetia.

Bostgarrena, billosic daguana jancitia.

Seigarrena, peregrinuari ostatu emotia.

Zazpigarrena, illac enterretia.

*Cé frutu atera biardogu lecinoc onetaric?*

† Lenengo gurago izan bicitcia, eta gauza guztiac galdu, pecatu mortalagaz Caridadia baño.

Bigarrena, icasi amorezco Actuac eguiten, eta sarritan eguin.

Irugarrena, eguin gueure biar, obra, lan, eta eguiteco guztiac Jangoicuaen amoria gaiti.

Laugarrena, gueure Progimua servidu eguiten dogula beregaz, obra misericordijazcuac diñuena.

## GRACIJA.

* Gueu gueurez, beste baga salva gueñtequez?

Ezta pozible, Gracija baga.

* Gracija cér da?

Jangoicuaen doe, edo izate Jangoicozco bat, eguiten davena guizona Jangoicuaen seme, eta Ceruco erederu.

* Cegaz alcanzauco dogú Gracija?

Oraciñoiaz, obra onacaz, contriciñoiagaz, eta Sacramentubacaz.

* Gracija emoten deuscunian, ce Virtute Jangoicuac emoten deuscu?

Iru virtute Teologalac: Fedia, Esperancia, eta Caridadia. Bai, lau Cardinalac bere: Prudencija, Justicija, Fortalecia, eta Templancia. Bai eta Humildadia, eta Castidadia bere.

*Bienaventuranzac ceimbat dirá?*

Zorci. Lenengua, zorijonecuac espirituz pobre dirianac, cegaiti aena dan Ceruco erreñuba.

Bigarrena, zorijonecuac mansuac, cegaiti izango dirian lurraen javeac.

Irugarrena, zorijonecuac negar eguiten davenac, cegaiti eurac izango dirian poz-

tubac.

Laugarrena, zorijonecuac gose, eta egarri-dirianac, cegaiti izango dirian asiac.

Bostgarrena, zorijonecuac erruquiorrac cegaiti aurquituco daven misericordija.

Seigarrena, zorijonecuac bijotz garbicuac cegaiti onec Jangoicua icusico daven.

Zazpigarrena, zorijonecuac baquetsubac, cegaití onec Jangoicuaen Seme icentauco dirian.

Zorcigarrena, zorijonecuac Justicija gaiti persecuciñoia daruanac, cegaiti curena izangodan Ceruco erreiñuba.

* Cé frutu atera biar dogu leciñoe onetaric?

Lenengo, emon esquer andijac Jangoicuari bere escu santubetaric artu doguzan mesede, eta gracija guztia gaiti.

Bigarrena parcaciñoaen escatu izan ezgarialaco orañ guiño beraganaco fielac.

Irugarrena, propositu firme bat artu aurrerancian bere inspiraciñoe, eta abisu santubai, obeto beguiratu, eta jaramoteco.

## PECATUBA.

* Gach guztietaric andijena ceñ dá?

Pecatuba; bada mundu onetan, eta bestian igaroten dirian pena, eta trabaju guztien causia bera da.

* Çelan apartau biar gachacaz pecatubari?

Pestiari, lupubari, erijotciari, infernubari, eta demoniño guztiai baño bere obetuago, eta lasterrago.

* Ceimbat pecatu genero dagoz?

Bi, Originala, eta Actuala.

* Pecatu Originala cer da?

Pecatua ceñegaz jaijoten garian guztioc, eta jatorcun gueure lenengo gurasuetaric.

* Pecatu originalac dacazan gachac ceñzuc dira?

Jangoicuaen arerijo, eta demoniñuaen esclavo izatia.

Inclinaubac gachera, eta gauza deungara.

Eta sugeto munduco miserija, eta erijotzara.

* Pecatu Actuala cer dá?

Errazoia ezaututera eldu ezquero, gueure guraz eguiten doguna.

* Ceimbat modutacua dá pecatu Actuala?

Modu bitacua, mortala eta veniala.

* Pecatu mortala cer dá?

Esatia, eguitia pensatia, edo deseetia, cerbait Jangoicuaen legue Santubaen contra gauza grabian.

* Pecatu mortalac ariman cér eguiten dau?

Quenduten dau Gracija, eta irabaci eraguiten dau Infernuba.

* Pecatu veniala cer dá?

Da pecatu mortalen disposiciñoe, edo presteta bat.

* Pecátuba, mortala, ala veniala dan, cetan ezautuco dá?

Vorondate osuagaz, eta gauza grabian, edo andijan danian, izango dá mortala. Izango dá, barriz veniala, vorondate osuagaz, edo gauza chicarrian danian.

* Cegaiti dericho veniala?

Erraz eguin, eta erraz parcatuten dalaco.

* Ceimbat gauza gaiti Parcatuten dá?

Bederatci gaití.

Lenengua, Meza enzuna gaiti.

Bigarrena, Comulguetia gaiti.

Irugarrena, Confesiñoe Generala gaiti.

Laugarrena, Obispoen bedeñcaciñoia gaiti.

Bostgarrena, Ur bedeñcatuba gaiti.

Seigarrena, Ogui bedeñcatuba gaiti.
Zazpigarrena, Paternosterra esana gaiti.
Zortzigarrena, Sermoia enzutia gaiti.
Bederatcigarrena, bularra jua gaiti:
Jaungoicuari parcaciñoia escatuten jacola.
* Pecatu Capitalac ceimbat dirá?
Zazpi.
Lenengua, Soberbija.
Bigarrena, Abaricija.
Irugarrena, Lujurija.
Laugarrena, Ira.
Bostgarrena, Gula.
Seigarrena, Embidija.
Zazpigarrena. Naguitasuna.

*Zazpi vicijo onen contra dagoz beste zazpi virtute, eta dira.*

Lenengua, Umildadia.
Bigarrena, Liberaltasuna.
Irugarrena, Castidadia.
Laugarrena, Paciencija.
Bostgarrena, Templancia.
Seigarrena, Caridadia.
Zazpigarrena, Diligencija, edo Jangoicua serbietaco ferboria.

*Ce frutu atera biar dogu leciñoc onetaric?

† Lenengo, Jangoicua ofendietaco vide, ta ocasiñoc guztietaric igues eguin.

Bigarrena, Confesau pecatu guztiac eta aen penitencija eguijazcua eguin.

## EXPLIQUETAN DIRA EMEN

### CREDOCO ARTICULUBAC.

Cristinaubac jaquin biar dogun guztia nun arquituco dogu?

Credoco articulubetan.

*Credua noc esaevan?

Amabi Apostolubac.

*Nor izan zan lenengo Credua asievana?

### SAN PEDRO APOSTOLUBA

*Guztien buruba leguez lenengo asi zan, eta esan evan.*

Sinisetandot Aita Jangoico guztiz Poderoso Cerubaen, eta Lurraen Criadoria gan.

* Cer esan gura dau Sinisetandot Jangoicua gan?

Esan guradau, ce daucacala ciertutzat eta guztiz segurutzat, daguala Jangoico eguijazco bacar bat.

* Jangoicuac bauco gorputzaen figuraric guc leguez?

Jangoico dan partez ez, bada da espiritu puruba, baña bai Guizona dan partez.

* Nos acabauco dá Jangoicua?

Inos bere ez : Jangoicua ez asieraric, ez acaburic dauco.

* Cer esan gura dau : Sinisetandot Aitiagan?

Sinistuten dodala, Trinidadeco lenengo Personia dala Aitia.

* Semia eta Espiritu Santuba bere eztira guztiz Poderosuac Aitia leguez?

Bai Jauna.

* Cegaiti esaten dá bada, Aitia dala guztiz Poderosua. eta ez Semia, ez Espiritu Santuba?

Poderia jagolaco Aitiari; Jaquiturija Semiari, eta Amoria Espiritu Santubari leguez.

* Jangoicua eelan da guztiz Poderosua?

Bere gura izanagaz beste baga, eguiten davelaco gura daven guztia.

* Cer esan gura dau Cerubaen, eta Lurraen Criadoriagan?

Cerubac, Lurra, eta gauza guztiac eguin zituzala ecer bere eeeric.

* Cerubac, Lurra eta beste gauza guztiac gaiti cer aditutea dozu?

Ainguerubac, Guizonac, eta Munduban dagozan gauza guztiac ecerbere ecerie eguin cituzala.

* Cer dira Ainguerubac?

Ceruban Jangoicua gocetan dagozan Espiritu bienaventuradu batzuc.

* Cetaco Jangoicuac eguin cituzan?

Bera betia labetaco, bere ministruac leguez Elexia gobernetaco, eta guizonac gordetaco.

* Celan criadu evan Jangoicuac Guizona?

Eguin eban gorputza lurragaz, eta criadu evan arimia ecer bere ezeric.

* Arimia cer dá?

Jangoicuac bere anceraeguinico espiritu inos bere ill, ez acabauco eztan bat.

* Ce estadutan Jangoicuac criau evan lenengo Guizona?

Inocencijaeo estaduban.

* Celan bada galdu evan estadu au?

Bere desobedencija gaiti, Jangoicuac era-

gotcita euçan frutia jana gaiti.

* Eta Jangoicuac cer eguin evan, pecatu au erremedietaco?

Bialdu evan Ceruticlurrera bere Semia, ilhteco afrenta andijagaz Crutcian.

* Ce frutu atera biar dogu leciñoe onetaric?

† Lenengo, admirau, eta adorau Jangoicuaen grandezac.

Bigarrena, esquer andijac emon eguin guenduzalaco bere imagina, eta antzera.

Irugarrena, ezautu gueure ecer bere eza eta jaijuac gariana pecatuban.

## *BIGARREN ARTICULUBA.*

### SAN ANDRESEC ESAN EVAN.

Eta bere Seme bacar Jesu Cristo gure Jauna gan.

* Jesusaen icenac, cer esan gura dau?

Salbadoria, edo libradoria.

Bere erijotciagaz librau, eta salbau guenduzalaco infernutic.

* Cristoen icenac cér esan gura dau?

Unguiduba, edo consagrauba : bere Aita Eternuac unguidu ebalaco Erregue, eta Sacerdote.

* Cér entendictán dozu Semia gaiti?

Trinidadeco bigarren Personia, dala Semia.

* Cristinaubac Jangoicuaen semiac dirá?

Bai Jauna, adopciñoz, eta gracijaz baña ez naturalezaz.

* Cetaco esateñ deutsazu Cristori, gueure Jauna?

Bere Erijotciagaz erredimidu, eta erosi guenduzalaco.

* Cer frutu atera biar dogú leciñoe onetaric?

1 Lenengo, Jesusaen icen santubari errespeto, eta debociñoe andi bat euqui.

Bigarrena, Jangoicuari esquer andijac emon, bere Seme maitia biraldu eusculaco.

Irugarrena, amadu, eta serbidu bijotceti Jesu Cristo gueure Jauna; bada dá gueure Maisu, eta Javia.

## *IRUGARREN ARTICULUBA.*

### SANTIAGO NAGUSIAC ESAN EVAN.

Ceñ sortu zan Espiritu Santubaen obraz, ta gracijaz : Jajo zán Marija Virginiaganic.

* Jesu Cristo concebidu, eta sortu zala Espiritu Santubaen Obraz, cer esan gura dau?

Trinidadeco bigarren Personia Guizon eguin zalá Marija Santisimiaen sabel Virginaliau, guizonaen obra baga, Espiritu Santubaen Obraz, zala Señora au Doncella Semia jajo baño lcenago, jajotzan, eta jajo ezquero.

* Esan eguizu clarubago : Ceimbat gauza Obrau cituzán Espiritu Santubac Encarnaciñoeco Misterijo Santuban?

Lau Jauna : Lencugo Marija Santisimia enentrañetaco Odol garbijagaz formau, edo eguin evan Jesu Cristoen Gorputza.

Bigarrena, criadu evan Arimia.

Irugarrena, unidu evan Gorputza Arimiagaz.

Laugarrena, Trinidadeco bigarren Personia juntadu, edo batuzan Gorputz eta Arima onegaz, eta au izan zan, Jangoicua Guizon eguitia.

* Ez even eguin obra mirarizco andi au Aitiac, eta Semiac bere?

Bai Jauna.

* Cegaiti esaten dá bada, izanzala Espiritu Santubaen obraz, ta grucijaz?

Zalaco amorezco obria, eta Amoria jagoco Espiritu Santubari, Aitiari Poderia, eta Semiari Jaquiturija leguez.

* Aitia, eta Espiritu Santuba Guizon eguin cirian?

Ez Jauna, Semia bacarric eguin zan.

* Ceimbat natūraleza edo izate daucaz Cristoc?

Bi. bata Jangoicuaena, eta bestia Guizonaena.

* Cer esan gura dau, Cristoc Jangoicuaen eta Guizonaen izatia daucala?

Esan gura dau, cé dala Jangoicua, eta bai Guizona bere.

* Nosic ona dá *Guizon*?

Marija Santisimiaen sabel virginalian sortu zanic ona.

* Ceimbat entendimentu daucaz Cristoc?

Bi, bata Jangoicua dan partez, eta bestia guizona dan partez.

* Ceimbat Vorondate?

Bi, bata Jangoico dan partez, eta bestia Guizona dan partez.

* Ceimbat persona daucáz Cristoc?

Persona bat, eta bera Jangoico dan partez.

* Ceimbat Memorija?

Bat, eta bera Guizona dán partez, bada

Jangoicuac gauza guztiac daucaz presente, eta memorijaric biar eztau.

* Jesucristo nun dago?

Jaugoico dan partez lecu, guztian, eta Guizona dan partez Ceruban, eta Santisimo Sacramentu Altaracuan.

* Cristoc Aitaric, edo Amaric bauco?

Jangoicodan partez bauco Aita cein dan Aita Eternua, eta eztauco Amaric: Guizona dan partez eztauco Aitaric, ezpada Ama, eta da Marija Santisimia, ceñec erabili evan bere sabel virginalian bederatci illabetian, eta eguin, evan Gavon gabian Belenen.

* Ce fruta atera biar dogu leciñoe onetaric?

† Lenengo, Jesusaen jajatciagaz debociñoe andi bat euqui.

Bigarrena, esquer andijac emon, gueuri deuscun amore parebacua gaiti.

Irugarrena, desiau bere pobreza santuba, eta amau bere umildade, eta inocencija, procuretan dogula bere virtute santubac imitetia.

## *LAUGARREN ARTICULUBA.*

### SAN JUANEC ESAN EVAN.

Padecidu evan Poncio Pilatosen poderen beian, izan zan crucificaduba, ill, eta enterraduba.

* Jesu Cristo gueure Jaunac bere Pasiñoe Santuban cér igaro evan?

Tristeza, eta larritasun mortala bere Ariman, dolore icaragarrijac bere Gorputcian, eta erijotza afrentosua Crutcian.

* Jesu Cristo Jangoico zán partez, ala Guizon zán partez ill zan?

Guizona zan partez.

* Cristo Crutzian añ afrenta andijagaz illteco, cér zan causia?

Gure pecatubac.

* Cer esan gura daú, Cristo ill zala.

Apartau jacola bere Arimia Gorputza gauic.

* Jangoicotasuna, edo Divinidadia apartau zanGorputz, eta Arimia ganic?

Ez Jauna.

* Crutceric eretsi ta Jesu Cristoen Gorputza, nun imini even?

Sepultura barri baten.

* Ce frutu atera biar dogu leciñoe onetaric?

† Lenengo, gomutatu, acordau, eta considerau sarri Jesu Cristoen Pasiñoe Santuba.

Bigarrena, meza enzuten gagozanian, e-carri gogora bere Vicitza; eta Erijotzan gu gaiti igaro cituzan neque pena, eta tormentubac.

Irugarrena, ez ichi barijacuric, Pasiñoe Santu onen, gomutan penitencija, edo obra on bat eguin baga.

Laugarrena, Jangoicuaen Magestadiac bialduten deuscuzan crutciac paciencijagaz igaro.

## *BOSTGARREN ARTICULUBA.*

### SAN TOMASEC ESAN EVAN

Jatsi zan infernubetara, eta irugarren egunian biztu zán illen arteric.

* Cer esan gura dau : Jatsi zala Infernubetara?

Esan gura dau, ce Jesucristoen Arimia, bere gorputza ganic apartau ezquero, jatsi zala Limbora, bere etorrera Santubaen be-

guira egozan Guraso Santuben Arimac a-
teraten.

* Cer esañ gura dau : Irugarren egu-
nian biztu zala illen arteric?

Esan gura dau, ce Pazco egunian bere
Arima gloriosua, ta Gorputza alcarregana
batu ciriala, ez güeijago ilteco,

* Cer eguin evàn Cristoc bistu edo Erre-
sucitau ezquero?

Berroguei egunian ibilizan munduban
bere dotrina, eta Erresurreciñoia confir-
metarren.

* Ce frutu atera biar dogu leciñoe one-
taric?

† Lenengo Jesucristogaz biztutia espiritu-
almente, biurtuten gariala beragana osoric

Bigarrena, Esperantza oso bat euqui
Jangoicuagan biztuco diriala gueure gor-
putzac glorioso Juicijoco egunian orañ
Cristinau onac leguez bicibagara.

## *SEIGARREN ARTICULUBA.*

### SANTIAGOC ESAN EVAN

Igo evan Cerubetara eta dago jarriric
Aita Jangoico guztiz Poderosuaen ezcu-
matati.

Nos igo evan Cristoc Cerubetara?

Ascensiñoe egunian, biztu zanic berroguei garren egunian.

* Celan igo evan?

Bere virtutez; beréz.

* Cer eguiten igo evan Cerura?

Guri ango atiac zabalduten : an gure Abogadu, eta bitarteco bere aita Eternuagaz izaten: eta aric Espíritu Santuba bialduten.

* Cetacó esaten dozu daguala jarriric?

Guri adi erazoteco, bere glorijan daucan atseguina, eta descansuba.

* Eta cer esan gura dau, daguala Aita Jangoico guztiz Poderosuaen escumatati?

Jangoico dan partez daucala beragaz glorija bardina, eta Guizona dan partez beste guztiec baño bere gueijago.

* Ce frutu atera biar dogu leciñoe onetaric?

† Lenengo, gueure bijotzac quendu mundu onetaco ondasun falsuetaric, eta emenco alegrija, eta jolas falsuari ez jaramon.

Bigarrena, Ceruban Santubac dauquen atseguinagaz acordau, eta sarritan pensau.

Irugarrena, Ceruco glorijac, eta Santuben compañia gueure erruz galdu eztaigun, bici emen contuz.

ZAZPIGARREN ARTICULUBA.

SAN FELIPEC ESAN EVAN.

Aric etorrico da, bicjiac, eta illac juzguetan.

* Nos etorrico da, Jesucristo bicijac, eta illac juzguetan?

Mundubaen acabuban.

* Celan etorrico da?

Poderijo eta Glorija andijagaz.

* Cer eguingo dau Jesucristoc Juicijoco egun andi, icaragarri atan?

Munduban eguin dirian gauza on, ta deunga guztiac aguertuco dituz, guztien aurrian.

* Ta cetaco?

Onai emoteco glorija, eta onria ceruco, eta munduco guztien aurrian; eta deungai, lotsariz, eta confusiñoz bete, eta infernuco penia.

* Jangoicuac onai cer esango deutsee?

Erdu neure Aitaen bedeñcatuboc, ordu, mundubaen asieraric zubenzat daguan Ceruco Erreñuba artuten.

* Eta cer esango deutsee deungai?

Quen madaricatuboc nire beguijen aur.

reric, zuaz ceculaco Infernuco Demoniñoenzat prestaurie daua u sutara.

* Cer izango dá Guizonacaz, Juicijo au eguin ezquero?

Onac juaugo dira Cerura, ta deungac ondatuco dira infernuban betico.

* Ce frutu atera biar dogu leciñoe onetaric?

† Lenengo, acordau sarri oraiñ emen eguiten doguzan gauza ixillac, eta ezcutubenac diriala uste izanarrenbere guztiac aguertucodiriala Juicijoco egun ioaragarri atan.

Bigarrena, éz pecaturic ichi confesiñoian esan baga, lotsarizcuac, eta andijac izan arren bere, bada dirianac aguertuco dira an, Munduco, Ceruco, eta Infernuco guztien aurrian.

## *ZORTCIGARREN ARTICULUBA.*

### SAN BARTOLOMEC ESAN EVAN.

Sinisetandot Espiritu Santubagan.

* Articulu onec cer esan gura dau?

Espiritu Santuba dala Trinidadeco irugarren Personia, ceñegan sinistuten dodan.

* Espiritu Santuba nun dago?

Lecu guztian; Baita particularian dago Arima justubetan.

* Arima Justubetan. cer eguiten dau?

Bere gracijaz santifiquetan dituz eta lagunduten deutsé euren necesidade, eta biar ordubetan.

* Erregutu biar deutsagu Espiritu Santubari?

Bai Jauna, bada berac lagundu baga, ecin alcanzau guiñai gueure Salvaciñoia.

* Espiritu Santubaen Doyac ceimbat dira? Zazpi.

† Lenengua, Jaquiturijaco Doia.
Bigarrena, Entendimentuco Doia.
Irugarrena, Consejuco Doia.
Laugarrena, Fortalezaco Doia.
Bostgarrena, Ciencijaco Doia.
Seigarrena, Piedadeco Doia.
Zazpigarrena, Jangoicuaen bildurtasuneco Doia.

* Ce frutu atera biardogú leciñoe onetaric?

† Lenengo, escatu biardeutsagu umildadiagaz etorrì della gueure arimac consoletan, Apostolubai etorrijaquena leguez.

Bigarrena, lenaz prestau, ta disponidu

gueure arimac, Espiritu Santuba ondo errecibietaco.

Irugarrena, ez jausi pecatu mortalian juan esteñ gueure arimetaric.

## BEDERATCIGARREN ARTICULUBA.

### SAN MATEOC ESAN EVAN.

Elexa Santa Catoliquia, Santubaen Comuniñoia.

* Elexia cer dá?

* Cristinau fiel guztien congregaciñoia, edo batzarra ceñen buruba dan Aita Santuba.

* Aita Santuba nor dá?

Sumo Pontifice Erromacua Cristoen Vicarijo, edo ordeco lurrian, ceñi gagozan guztioc obligeuta obeidutera.

* Elexa Santiaen Señaliac ceñzuc dira?

Izatia, Bat, Santia, Catoliquia Apostoliquia.

* Celan da Bat?

Elexa au conponietan davenac eztauquelaco Fede bat, eta Erreligiñoe bat baño.

* Celan dá Santia?

Iracatsi eta aguinduten daven guztia dalaco Santuba, eta gueure Salbaciñoeraco serbietan dabena.

* Cer dá Catoliquia?

Dala Unibersala, eta daguala zabalduta mundu guztian.

* Cetaco esaten dozu dala Apostoliquia?

Apostolubac izan cirialaco, Cristo aurrerengo zala, Elexa onen lenengo fundamentubac.

* Elexa onec iracasten deuscun guztia, dá ciertuba, eta faltau ecin leijana?

Bai Jauna, Espiritu Santubac gobernetan davelaco.

* Cer esan gura dau Santuben Comuniñoia?

Cristinau fielac dauquela partia besteen ondasun espiritualetan, gorputz baten zati, eta mienbruac leguez.

* Ondasun espiritualac ceñ zuc dira?

Sacramentubac, Indulgencijac, Oraciñoia, eta Obra onac.

* Elexa onetan eztaguala, norbait salba liteque?

Ez Jauna bada Elexa onez campoti eztago Federic; eta gueure salbaciñoen fundamentu principala Fedia dá.

* Norzuc dira Elexa onen Ondasun espiritualetan parteric eztauquenac?

Infielac, Eregiac, eta descomulgadubac.

* Ce frutu atera biar dogu leciñoe onetaric?

† Lenengo emon esquer andijac Jangoicuaen Magestadiari, Elexa Santa onen miembro, eta seme eguin gaituzalaco.

Bigarrena, gura dogula bici, eta ill Elexa Santa onen Fedian.

Irugarrena, Elexa Santa onez campoti dagozanac gaiti erregutu Jangoicuari.

Laugarrena, ereguin conversaciñoeric igues eguin.

## *AMARGARREN ARTICULUBA.*

### SAN SIMONEC ESAN EVAN.

Pecatuben parcaciñoia.

* Jesucristoc emon evan poderia, pecatubac parcatuteco?

Bai Jauna, Lenengo emon eutsen bere Apostolubai, eta guero Obispo, eta Sacerdotiai.

* Pecatuba parcatutia gauza andija dá?

Potestade gucijago, eta andijaguada Milagruac eguitia baño.

* Certati parcatuten dirá pecatubac?

Bautismoco, eta Penitencijaco Sacramentuetati.

* Ce pecatu parcatuten daũ Bautismuac?

Pecatu Originala, eta bai beste edoceñ, badauco bere batiatuten danac.

* Ce pecatu parcatuten daú Penitencijc?

Batiatu ezquero eguinico guztiac.

* Ce frutu atera biar dogu leciñoe onetaric?

1 Lenengo Jangoicuari esquerrac emoñ, bere Elexa Santiari ichi eutsalaco poderia, pecatubac parcatuteco.

Bigarrena, sarri confesau, prestetan, eta leenaz disponietan gariala, Sacramentu Santu Penitencijacua ondo errecibietaco.

## *AMAICAGARREN ARTICULUBA*

SAN TADEOC ESAN EVAN.

Araguijaen erresurreciñoia.

*Cer esan gura dau Araguijaen erresurresiñoiac?

Biztuco gariala guztioc orañ daucaguzan gorputz, eta arimacaz.

*Ce diferencija egongo dá onen, eta deunguen artian?

Onen gorputzac egongo dirá guztiz ederrac, eta glorijaz betiac. Deunguenac barriz chito czañac, eta icaragarrijac.

* Nos bicituco dira?

Mundubaen acabuban.

* Ce frutu atera biar dogu leciñoe onetaric?

† Lenengo; gueure gorputzoc ez amau aimbeste, eta cz beste edertasunic bere; gura badoguz icusi eder, ta glorijoso erre: surresiñoeco egunian.

Bigarrena, gueure pena, eta trabajubetan consolau : bada uztia daucagu, biztuco gariala glorijoso.

Irugarrena, ez aimbeste atsacaba artu gueure adisquide onen erijotzan; bada daquigu, icusico doguzala orandiño.

## AMABIGARREN ARTICULUBA.

### SAN MATIASEC ESAN EVAN.

Vicitza beticua.

* Cer dá vicitza beticua?

Ceruco Bienabenturaduben etsia, eta descansuco lecuba ceñi derichon Paradisuba.

* Descansu, atseguin, eta gloria au cetan dago?

Jangoicua arpeguiz arpegui icustian, eta bera beti ametian.

* Ceruban Bienabenturadubac gocetan ditubezan glorijac andijac dira?

Munduco Erregueric andijenac euqui ditubezan onra, aberatstasun, descansu, eta atseguin guztiac baño bere andijaguac.

* Jangoicuac, bera ametan davenenzat gordeta daucazan ondasunac, celanguac dira?

Añ dira andijac, ce munduban daguanac ecin esan lei, celanguac dirian; bada beguijac eztavéinos gauza añ ederric icusi, ez belarrijac enzun añ dulce, eta miragarriric; eta guizonaen entendimentubac ecin secula alcanzau lei, ango glorija, eta atseguinac celanguac dirian.

* Glorija oneec nos artian iraungo dave?

Beti, Eternamente: Jangoicua Jangoico dan artiant'

* Nortzuc juango dira Cerura?

Mandamentu Santubac gorde, eta Jangoicuaen gracijan illten dirianac.

* Ce frutu atera biardogu leciñoe onetaric?

1 Lenengo Paradesuco zorijonecuen etse zabalau, beti goguan erabilli eta araco sarri cizpuru eguin.

Bigarrena, mundu onetaco pena, nequeeta ez euquijac, paciencijatan igaro.

Irugarrena, obra onac, eguin ara joateco.

## GUIZONAEN ACABUCO GAUZAC.

### ERIJOTCIA.

* Iltia cer dá?

Arimia gorputza·ganic apartetia.

* Nos illgo gara?

Eztaquigu, ez nos, ez nun, ez celan.

* Ce estadutan illgo gara?

Ori bere eztaquigu; baña gueijenjan jazo doiana dá, ondo bicidana ondo illtia: orregaiti esan dua: *Celango bicitcia alango erijotcia.*

* Ondo dáprest egotia, Erijotcia datorreneco?

Bai; bada gueure erijotzan dago, edo gueure betico dicha, edo zoriguestua.

* Prest, egoteco cer eguin biar dogu?

Lenengua, Estadu grácijazcuan egon.

Bigarréna, Erijotcia eldu baño leenago

penitencija eguijazcua eguin.

Irugarrena, iñoen gauzatan cargu bagara, artian bacochari beria emon.

* Ce frutu atera biar dogu leciñoe onetaric?

† Lenengo Erijotziagaz sarri acordau.

Bigarrena, Guero auts eguin, eta ustelduco dirian gorputz onec ez aimbeste amadu.

Irugarrena, Erijotzaco orduban guraco gueuqueana, orañ bertati eguin.

## JUICIJO PARTICULARRÁ EDO BACOCHENA.

* Ill, eta bertati izango gará juzgadubac? Bai Jauna.

* Cetan?

Gueure bicitzaco pensamentu, verba, eta obra guztietan.

* Juicijo au cegangua izango dá?

Guztiz gogorra, eta icaragarrija; bada Jueza izango da entero arteza; eta Juicijo onetan dago gueure dicha, edo zoriguesto beticua.

* Norzuc izango dirá acusadoriac?

Infernuco demoniñuac, eta norberen concиencija.

* Juicijo onetan ondo urteteco, cér eguin biar dogu?

Lenengo, pecatuba ganic igues eguin.

Bigarrena, obra misericordijazcuac diñuena eguin.

Irugarrena, ez progimo edo lagunen gauzaric juzgadu, gueuriac baño,

## PURGATORIJUA.

* Zure arimia Juzgadu ezquero nora juango dá?

Eztadu gracijazcuan egon bada, eta bere pecatubac gaiti zor izan daben penia pagauta, juango dá Cerura; baña egon bada pecatu mortalian juangoda Infernura.

* Eta Purgatorijora nos juango dá?

Estadu gracijazcuan ill arren, bere pecatuben zorra, obra onacaz pagau ezpadau, juango da purgatorijosa.

* Purgatorijua cer da?

Jangoicuac, pecatubac gaiti arimac zor daven peńia paguetaco, iminita daucan suuz, eta penaz beterico carcela icaragarri bat.

* Purgatorijora duazan Arimac an egongo dira beti?

Ez Jauna, pagau daijenian euren zorra, juango dira Cerura.

* Andijac dira Purgatorijoco penac?

Aiñ dira andijac, ce emeco pena, eta neque guztiac aen aldian ecer eztira.

* Celan socorridu leiz Purgatorijoco Arimac?

Altarac bisitaubagaz, especialmente arimia ateratendan egunian Oraciñoiagaz, baraubacaz, limosniagaz illen buldiá artubagaz, eta arabere gueijago Mezaco Sacrificijo Santubagaz.

* Ce frutu atera biar dogu leciñoe onetaric?

1 Lenengo eguitia penitencija mundu onetan, besteraco ichi baga.

Bigarrena, indulgencijac irabaztia procurau.

Irugarrena, ez jausi faltatan chicarrac diriala ustearren bere.

Laugarrena, socorridu, eta alibijau Arima Santac.

# JUICIJO UNIVERSALA.

*ESAN DA CER DAN CREDOCO ZAZPI GARREN ARTICULUBAN.*

# GLORIJA.

ESAN DA CER DAN CREDOCO AMABIGARREN ARTICULUBAN.

# INFERNUBA.

* Infernuba cer da?

Carcela, eta lece ilun, icaragarribat lurraen erdijan, edo barruban Jangoicuaen justicijac iminija, suuz, penaz, eta tormentuz beteric, pecatu mortalian illten dirianenzat.

* Infernuco pena, eta tormentubac andijac dira?

Añ dira andijac, ce munduco gach, pena, neque, eta tormentu guztiac bat eguinda bere, ango chicarrena gazco eztira.

* Ceimbat pena modu dagoz, edo iragoten dira Infernuban?

Bi ; bata da pena Dañucua, eta bestia Sentiducua.

* Pena Dañucua cer dá?

Ez icustia, eta ez esperanzaric euquitia, secula Jangoicua ícusteco, euren erruz.

* Cer dá pena Sentiducua?

Subagaz, eta beste tormentu generuacaz, condenadubac Infernuban igaroten daven penia.

* Nos acabau, amaitu, edo guichituco dira infernuco penac?

Inos bere ez, inos bere ez, inos bere ez, beti, secula, fin bága, iraungo dave, eta Condenadubac chacur amurratubac leguez, alcar zatituten, inos istante bateco atseguin, ez sosiguric eztauquela, egongo dira Infernuban errétan Jangoicu Jangoico dan artian.

* Ceimbat pecatu mortal gaiti, juaten da infernura?

Pensamentuzco bat da asco, ara juateco, penitencija eguin baga illten bada.

* Ce frutu atera biardogu leciñoe onetaric?

Lenengo, tentaciñoe deungaric jator-

cunian, acordau tormentu icaragarri onecaz.

Bigarrena, mundu onetaco pena, eta trabaju laburrac paciencija gaz igaro bestian beticuac ez padecietarren.

Irugarrena, gurágo izan bicitcia galdu, Jangoicua ofendidu baño.

## ESPLIQUETAN DIRA EMEN

*Paternosterra, eta Ave Marija.*

## PATERNOSTERRA.

Oraciñoe guztietaric oneena cein dá?

Paternosterra.

* Cegaiti?

Apostolubac escatu, eta Jesucristoc berac esan evaloco.

* Cetaco esaten deutsazu Jangoicuari Aita guria?

Bérac eguin, eta gordetan gaituzalaco, eta bere semetzat Bautismuan artu guenduzalaco.

* Paternosterraen lenengo peticiñoe, edo èscarija ceñ da?

Santificadu bedi zure icena.

Emen escatuten doguna da, Jangoicuaen icena, izan della ezagutuba, amaduba, onraduba eta serviduba mundu guztian.

* Bigarrena ceñ da?

Betor zure erreñuba gu gana.

Emen Jangoicuari escatuten deutsagu, egon della, eta erreñau daijala emen gueure arimetan gracijaz, eta guero emon deigula bere Glorija.

* Ceñ da irugarrena?

Eguin bedi zure borondatia, celan Ceruban alan lurrian.

Emen escatuten dogu, Jangoicuac emon deigula gracija, bere borondate Santuba emen eguiteco, Ceruban Santubac, eta Anguerubac eguiten davena leguez.

* Laugarrena, ceñ da?

Emon eguiguzu gaur gueure egunian eguniango oguija.

Emen escatuten deutsagu, emon deigula gorputzaenzat mantenimentuba eta arimaraco Gracija.

* Ceñ da bostgarrena?

Parcatu eguiguzuz gueure zorrac, gueuc gueure zordunai parquetan deutseguzan leguez.

Emen escatuten doguna da, parcatu dei-

guzala Jangoicuac gueure falta, eta pecatubac, gueuc parcatuten deutseguna leguez, gueuri deungaro, eta gach eguin deuscubenai.

* Seigarrena ceñ da?

Ichi ez eguiguzu jausten tentaciñoian.

Emen escatuten deutsagu Jangoico gueure Jaunari, Demoniñoen tentaciñoetaric apartau gaizala; eta ezpabere emou deigula bere gracija, aetan ez jausteco.

* Ceñ da Zazpigarrena?

Baña libradu gaizuz gacheric.

Emen escatuten doguna da, Jangoicuac libradu gaizala, arimaco, eta gorputceco gach, eta peligru guztietaric.

* Acabuban esaten dozun verba AMEN cer esan gura dau?

Alan izan della.

* Alcanzauco dogu Jangoicua ganic Paternosterrian escatuten doguna?

Bai Jauna, escatuten badogu biardan leguez, convenietan jacuna; eta au umildadiagaz, confianciagaz, bijotz garbijagaz, eta perseberaneijagaz.

* Ce frutu atera biar dogu leciñoe onetaric?

† Lenengo, Peternosterraen peticiñoc ba-

cocheco esplicaciñoia icasi ondo.

Bigarrena, errezau debociñoiagaz goxian, eta arratsian guichienaz.

Irugarrena, erregutu, eta escatu Jangoicuari biardoguna, umildadiagaz eta confianza osuagaz.

## AVE MARIJA.

* Cetaco esaten dozu Paternosterraen urrengo Ave Marija?

Ama Virgina Santisimia bitarteco dala, errazago alcanzau daigun Jangoicuaganic, Paternosterrian escatu deutsaguna,

* Noc esan evan Ave Marija?

Ainguerú San Gabrielec; Santa isabelec, eta Elexa Santiac: eta alan-guc bere Ainguerubagaz barri onac emoten deutsaguz: Santa Isabelegaz alabetandogu : eta Elexa Santiagaz erregutu, eta escatuten deutsagu.

* Cegaz obligauco dogu Señora au, gu gaiti Jangoicuari erregutu deijon.

Bere devoto izanagaz : bere pureza, Umildade, Modestija, eta beste birtutiac imitaubagaz

* Cé frutu atera biardogu Icciñoe onetaric?

† Lenengo, errezau debociñoe andijaz iru Ave Marija, goxian, eguberdijan, eta arratsian bere Conceciñoe garbijaen erreberencijan.

Bigarrena, bere Errosarijo Santuba errezau baga, ez egunic ichi.

Irugarrena, confijanza andi bat beragan euqui; dalaco pecatarijen Ama misericordijaz betia.

Laugarrena, bere Fiesta, eta egun principaletan confesau, eta comulgau.

# MANDAMENTU SANTUBEN

## EXPLICACIÑOIA.

### MANDAMENTU SANTU JANGOICUAEN LEGUECUAC DIRA AMAR.

---

* Mandamentu guztiac gorde biar dira?

Bai Jauna; bada bat bacarric austen bada bere, gauza gravian, eta consentimentu osuagaz eguingo da pecatu mortala.

* Lenengo Mandamentuba ceñ dá?

Jangoicua ametia gauza guztien ganian.

Mandamentu onec obliguetan gaituz Jangoicua bera bacarric, gorputz, eta arimaco erreberencija, eta aleguin guztijagaz adoretara, beragan sinistu eta esperetan dogula Fede bicijagaz.

* Celan Jangaicua adorauco dá?

Guztizco errespeto, umildade, debociñoe, eta modestija andijagaz.

* Adoraciñoeco acto bat eguizu?

† Neure Jaun, eta Jangoicua, adoretan zaitudaz neure Criadore; eta Salbadore ona leguez : arren nigaz misericordija.

* Jangoicua ametia gauza guztien ganeti, cer da?

Gurago izan bicitcia, eta gauza guztiac galdu, bera ofendidu baño.

* Mandamentu onec cer eragozten dau?

Sorguinquerija, supersticiñoia, sacrilegijua, infidelidadia Jangoico falsuac adoretia, eregija, desesperaciñoia, eta Jangoicuaen gorrotua.

* Ce frutu atera biar dogu leciñoe onetaric?

† Lenengo, goxian, arratsian, eta Meza enzuten dogunian adorau Jangoicua, errespeto, eta umildade andijagaz.

Bigarrena, gueure eguiteco guztiac Jangoicuaen amoriagaiti eguin

Irugarrena, Mandamentu Santu oneec aguinduten davena contuz eguin.

## CEÑ DA BIGARRENA.

Bere icen Santubagaz juramentu banuan, edo alperric ez eguitia.

Mandamentu onec eragotciten dituz Jangoicuaen contraco juramentu, eta blasfemijac; eta obliguetan gaituz voto, edo promesac cumplietara.

* Juramentu alperric eguitia cer da?

Eguija baga, justicija baga, eta necesidade baga, edo biar eztala juramentu eguitia.

* Cer adituten dozu Jangoicuaen Icen Santubagaz.

Jangoicuaen icena, Jesucristo eta Ama Virgina Santisimiaena, Ceruco Santubena, eta bai criatura especialecuena bere,

* Blasfemija cer dá?

Jangoicuaen, edo beste Santuben contraco verba injurijoso bat.

* Votoa cer dá?

Jangoicuari eguiten jacon Promes bat, berari agradetan jacon gauzaen baten ganian.

* Cumplidu biardoguz Voto, edo Promesac?

Bai Jauna, bada Jangoicuari burla eguitia dä, ofrecidu. edo opa gauzaen bat, eta guero ez cumplietia.

* Ce frutu atera biar dogu leciñoe onetaric?

† Lenengo, Juramenturic ez eguiteco, artu usuba, esateco bai, edo ez Cristoc iracasten deuscun leguez.

Bigarrena, Jangoicuaen icen santubari errespeto, eta erreberencija andija euqui; eta inoc Juramentu, edo birao eguiten davenian JESUS esan.

Irugarrena, Jangoicuari eta Santubai eguinico voto, edo promesac biardan leguez, eta aimbat lasterren cumplidu, eta aurrerantcian ez conseju baga eguin.

## IRUGARRENA CEÑ DA?

Jaijegunac santifiquetia:

Mandamentu onec aguinduten deuscu, ez biarric eguiteco, eta Jangoicua serbietan, eguna igaroteco.

* Eguin biar eztiran biarrac ceintzuc dira?

Gorputza necatuta eguiten dirianac: crijadubac, eta oficijoco gentiac, euren biciteia igaroteco eguin darueza nac.

* Nos baita biarra eguin lei Domeca, eta Jai egun biarric ez eguiteco esan eta dagozanetan?

Necesidadia badago bai; baña orretaraco licencija escatu biarda, ecelambere albadedi eta biarra eguin arren bere Meza entzun biar da.

* Domeca eta Jaijac ondo gorde, eta santifiquetaco, cer eguin biar da?

Mezara, errosarijora, oficijo santubetara, eta dotrinara debociñoe andijagaz asistidu.

* Ce pecatu eguiten davé guraso, eta ugazabac, euren ume, eta oguitucuai meza enzuten galarazo, edo pecatu mortalen beco Jaijetan premiña baga biarra eraguiten badeutse?

Pecatu mortala; eta bildur izateco da, Jangoituac maldicinoia ezarri eztaijan euren familijen gauera.

* Ce frutu atera biar dogu leciñoc onetaric?

† Lenengo, Jai domequetan premiña baga ez biarric eguitia.

Bigarrena, Jangoicua servietan, piedadeco obra onacaz, eguna igaro.

Irugarrena, Taberna, joco, tambolin. jolas, danza, eta beste onango Jangoicua ofendietaco ocasinoetaric, igues eguin.

## LAUGARRENA CEÑ DA?

Aita, eta Ama onretia.

Mandamentu onec obliguetan gaituz, Gurasuac ametara, onretara, obedecietara, eta euren biar ordubetan asistidu, eta socorrietara. Bici gaitezan luzaro.

* Nor besteric entendietan dozu gurasotzat.

Nagusijago dirianac edadian, dignidadian, eta gobernuban. Onec dira Elexetaco Pastore, eta Sacerdotiac, Justicijetaco burubac, Maisubac, Ugazabac, eta beste onelanguac.

* Gurasuac ametia cer dá?

DesEetia, eta gura izatia on guztia, alan arimacua, celan gorputcecua.

* Cer da gurasuac onretia?

Errespetuagaz verba eguitia ametia, sufrietia, eta euren faltac ixilic euquitia.

* Obedecitia cer dá?

Aguinduten daven gaucia, justuba eta biardana bada, ariñ, eta gustoz eguitia.

* Socorrietíac cer esan gura dau?

Euren zarzan, biar ordubetan, eta gueisuetan lagundutia : eta ill ditezanian euren gaiti Jangoicuari erregututia.

* Gurasuac errespeto baga, eta deungaro darabillezan Umiac celan Jangoicuac castiguetan dituz?

Ezarten deutse bere maldiciñoia, condenetan dituz erijotzara, eta ondatuten dituz Infernura.

* Ce obligaciñoe dauque gurasuac euren umiac ganaco?

Emon biar deuse mantenimentuba, asi Jangoicuaen bildurtasunian, eta Dotrina onian, correciñoiagaz; amoriagaz eta exemplu onagaz.

* Ce frutu atera biar dogu leciñoe onetaric?

† Lenengo, obedecidu gueure gurasuai aguinduten deuscuben guztian ez bildurra gaiti, ezpada amoria, eta onerestija gaiti.

Bigarrena, ez iños atsacabaric emon.

Irugarrena, Erijotza on bat eguin daijen, ardura artu.

Ez iñor iiltia.

Mandamentu onec aguindutep dau gueure progimuari, ez gachic eguitia, ez escuric egoztia, ez verba deungaric esatia, ez gorrotoric, ez benguetaco gogoric euquitia, ez verbia, ez agurra ucatutia, eta ez escandaluric emotia.

* Escandaluba cer da?

Verba, edo aciñoe deunga bat, ceñegaz emoten jacon ocasiño, eta motibua gueure progimuari, pecatuban jausteco.

* Cetara obliguetan gaituz Mandamentu onec?

Gueure Progimua, edo laguna servidu, eta ametara gueure burubac leguez.

* Ce frutu atera biar dogu leciñoe oneiaric?

† Lenengo gueure Progimuac amau ta tratau dulzurijagaz eta aurrera onagaz.

Bigarrena, apartau auci, eta querelletaric, eta deunguen combersaciñoe, eta compañiaric.

Irugarrena, coleria datorrenian ixilic egon, eta progimuen falta eta injurijac paciencijagaz igaro.

Laugarrena, deungaro eguina, ez deungaro agaz pagau.

## CEÑ DA SEIGARRENA.

Araguizco pecaturic ez eguitia.

Mandamentu onec eragotciten dituz pensamentuz, verbaz, eta obrazco pecatu loi guztiac : eta bai pureciaen, eta castidadiaen contraco bicijo, eta indecencijac bere.

* Ceñzuc dira orrec?

Jan, edo edan larregui eguitia; edo ase betiac, comedijac, operac, pintura, eta soñeco indicentiac.

* Persona casto, edo garbi bat cer da?

Aiugueru bat lurrian, eta Jesusaen esposua.

* Casto, eta garbi izateco cer eguin biar dogu?

† Lenengo, beguijetan, soñian, eta ucututian modestija eta contu andibat euqui.

Bigarrena, castidadiaen contraco tentaciñoiac aimbac lasterren bota.

Irugarrena, erregutu Jangoicuari garbi, eta casto izataco.

Laugarrena, Ama Virgina Santisimiaen

Conceciñoe garbijagaz, eta Aita San Josepe gaz deboceiñoe andibat euqui.

* Ce frutu atera biar dogu leciñoe onetaric?

† Lenengo, ez pensau, ez esan, ez enzun, eta ez ícusi castidadiaen contrato gauzaric?

Bigarrena, compañia, eta lagun deungac ganic igues eguin.

Irugarrena, confesau, eta comulgau sarri : eta bere pecatu, tentaciñoe, eta usadijo deungac confesoriari iragarri.

## CEÑ DA ZAZPIGARRENA.

Ez Ostutia.

Mandamentu onec aguinduten dau, ez quenduteco, ez euquiteco, eta ez desietaco iñoen gauzaric, javiaen borondatiaen contra.

* Norzuc dagoz obligauta, bacochari beria biurtuten?

Iñoen gaucia dauquenac, eta bai lapurrerijan, eta progimuaen contraco dañuben baten parte izan dirianac bere.

* Ascoda esatia Confesoriari, ostu davela, edo cerbaît daucala javian borondatiaen contra?

Ezta asco esatia, biurtuten ezpadeutso aimbat lasterren.

* Mandamentu au ondo gordetaco, ascoda, iñori ez ecer ostutia, eta iñoen gauzaric ez euquitia?

Ez: Noberac daucaneric bere emon biardau, necesidadian dagozan pobriac socorrietaco.

* Ce frutu atera biar dogu leciñoe onetaric?

† Lenengo, artu gorroto mortal bat cudicijari, eta Jangoicuac emoten davenagaz contentu izan.

Bigarrena, iñoen gauzagaz. ez carguric euqui.

Irugarrena, bacochari beria bertati, edo aimbat lasterren emon.

## ZORZIGARRENA CEÑ DA.

Testimonio falsoric, ez ezartia, eta guzurric ez esatia.

Mandamentu oneç aguindutendau, ez iñori falso testimonioric ereguiteco, ez guzurric esateco, ez murmuretaco, ez erraz progimuen contra juzguetaco.

* Guzurra cer dá?

Goguaz bestera gancia esatia,

* Inos guzurric esan biar da?

Ez Jauna; bada guzurra Jangoicuaen contracua da, eta castigau darua aen Magestadiac mundu onetan bere gach, eta trabaju icaragarrijacaz.

* Murmuraciñoia cer da?

Esatia deungaro Progimua gaiti, bera aurrian ez taguala.

* Progimuari famia biortuteco obligacinoric bago?

Bai Jauna, eta aimbaga ecin salba liteque.

* Inor murmuretan daguanian cer eguin biar da?

Eragotci albadagui, ezpabere beste combersaciñoe bat atera, edo juan aric.

* Ce diferencija dago murmuretan davena ganic, guztoz enzuten davena gana?

Batac dauco Demoniñua miñian, eta bestiac belarrijan.

* Juicijo temerarijua: edo erraz Progimuen contra juzguetia cer da?

Errazua baga progimuen contra eguitén dan juicijo deunguia.

* Ce frutu atera biar dogu leciñoe onetaric?

† Lenengo, ez secula inori guzurric, ez iño gaiti deungaroric esan.

Bigarrena, verba eguin, progimua gaiti, gueuc gura gueunquejan leguez, berac gu gaitic eguin leijan.

## BEDERATCIGARRENA CEÑ DA.

Progimuen emasteric ez desietia,

Mandamentu onec eragoziten dituz pureciaen, eta castidadiaen contraco pensamentu, eta gurari loijac.

## AMARGARRENA CEÑ DA.

Besteen ondasunic ez gura izatia.

Mandamentu onec eragotcitendau iñoen bidebagaco acienden gurarija eta bai ondasun larregui nai izatia bere.

## ELEXA AMA SANTACO MANDA-

mentubac dira Bost.

Lenengua, Domeca eta Jaijegunetan Meza oso bat enzutia.

Mandamentu onec aguinduten deuscu,

Meza enzutera debociñoe, eta atenciñoe andijagaz Domeca guztietan eta bai aste barruco Jaijetan bere.

* Jangoicuari ofrecidu al leijon gauzaric andijena ceñ da?

Mezaco Sacrificijo Santuba, ceñetan ofrecietan jacon Aita Eternuari Jesucristo Jangoico, eta Guizon eguijazcua, oguijaen, eta ardauen irudi. edo acidenten azpijan.

* Cetaco ofrecietan jaeo Sacrificijo Santu au?

1 Lenengo Jangoicuari gueure Jaun eta jave bacarrari, leguez, zor jacon ouria emotarren.

Bigarrena, gueure pecatuben parcaciñoia, eta osterantcian biardogun guztia alcancetarren.

Irugarrena. esquerrac emotarren eguin deuscuzan mesediac gaiti.

* Noc ofrecietan dau Sacrificijo au?

Jesucristo gueure Frredentoriac, Sacerdotiagaz batera, eta Mezara asistietan daven fielac.

* Celan Mesa enzun biar da?

Atenciñoe, errespeto, eta debociñoe andijagaz.

* Ce esan lei, Meza esaten dan artian,

eta Elexan errespeto baga dagozanac gaiti?

Onelango fede bagaco Cristinaubac, eztabela Jangoicuaen escu Santubetaric gauza onic izango; eta bildur izateco da, bere maldiciñoia etorri ezteñ euren ganera; añ jaramon guichi eguiten davelaco Jesucristo gueure erredentoriaen bieitza, erijotza, eta pasiñoe santuco misterijo andijacaz zoriguestuco onec dagoz Jangoicuaen escuric ichita leguez, eta Jentilac baño bere itsubago; bada onec icusico balebe Cristinau ascoc Elexan egoteco dauqueen moduba espantau, eta arrituco litzatequz.

* Biardan leguez Meza enzuten davenac, ce gauza on alcancetan dave?

Lenengo Jesucristo gueure Jaunac errepartietan deutsez bere Pasiñoe Santuco merecimentubac.

Bigarrena, emoten deutse gracija, Aita Eternua ganic escatuten davena alcancetaco.

Irugarrena, egun ataco peligru, eta gach taric gordetan dituz.

* Ce frutu atera biar dogu leciñoe onetaric?

† Lenengo, aimbat sarrijen Meza enzun, Jangoicuac bere bendiciñoe Santuba ezarri deigun.

Bigarrena, egon Elexan errespeto, eta modu andijagaz; emon deigun Jangoicuac, escatuten deutsaguna.

## CEÑ DA BIGARRENA.

Urtian beñ edola bere confesetia edo leenago erijotzaco peligruric bada, edo comulgauco bada.

Cer dan Confesiñoia, eta celan prestau biardan lenaz; ondo confesetaco Penitencijaco Sacramentuban dago, au icusi bedi.

## CEÑ DA IRUGARRENA.

Pazco Erresurreciñocuetan Comulguetia.

*Sacramentu comuniñocua icusi bedi.*

## LAUGARRENA CEÑ DA

Elexa Ama Santíac aguinduten davenian barau eguitia.

Mandamentu onec diño, Cuarta demporetan, vigilijetan, eta garizuman barau eguiteco, eta premiña, edo necesidade ba-

ga, ez araguija jateco, eta garizumaco egunetan, bulda baga, arrautzaric, ez esne gauzaric jateco.

*barau Nortzuc eguin biar daben, eta nortzuc ez, ori Cura Jaunac esango dave, eta bai nortzuc araguija jango daven bere.*

## CEÑ DA BOSTGARRENA.

Amarrenac, eta primicijac ondo paguetia.

* Celan emon biar da Amarrena?

Artcen dan leguez, oneric ona, adiñoneric adiñona, eta charreric charra; mandamentu onec esaten davena ondo eguingo bada.

* Ce frutu atera biarda leciñoe onetaric?

† Lenengo, euqui errespeto andija Elexa Santiac aguinduten dituzan gauza guztijaeaz.

Bigarrena, Mandamentu santu onec aguinduten davena eguin amoriagaz, eta obedentcija itsubagaz.

# EXPLIQUETAN DIRA EMEN

## SACRAMENTU SANTUBAC.

* Sacramentubac cer dirá?

Jesucristo gueure Jaunac, bere Gracija, eta Virtutiac guri emoteco, eguin cituzan señale aguiri batzuc.

## BAUTISMUA.

* Bautismua cer dá?

Jesucristoc eguinico Sacramentu bat, quenduteco pecatu originala, eta besteric badago bere. Eta eguiten gaituzana Cristiñau, eta Jangoicuaen Seme.

* Cristiñauba cer dâ?

Batiaturic daguana : Jesucristoen Fede Santuban sinistuten davena, eta berbia emonic daucana, bici izatera bere egemplu, eta Dotrina Santubagaz batera, edo conforme.

* Cristiñaubaen señalia ceñ dá?

Crutce Santia.

* Cegaiti?

Dalaco Cristo crucificadubaen figuriá, ceñetan erredimidu guenduzan.

* Señale au nos eguin biar dogu?

Biarren bat asten dogun guztian, tentaciñoe, edo peligruben baten icusten garianian, oeti jaguiten garianian, etseric urteten dogunian, Elexan sarteen garianian, jatera guazanian, eta oera etzuten garianian.

* Crutciaen señaliac cer errepresentetan dau?

Trinidade Santisimoeço, eta gueure Erredencinoeco misterijuac.

* Trinidadeco misterijua celan?

Crutcia eguitorduban, iru Personac icentaubagaz.

* Celan erredencinoeco misterijua?

Crutcia eguinagaz, bada an erredimidu guenduzan: Jesucristoe illten zala gu gaiti.

* Batiatuten danari cetaco sacerdotiac eguiten deutso Crutcia becoquijan, eta bularrian?

Becoquijan lotsatu ezteñ Cristiñau izatiagaz: bularrian barriz, Crutcia amau daijan.

* Bautismua baga salvaliteque?

Ez Jauna, eta batiatu baga illten dirian sçñac, duaz Limbora, eta eztavé iños

Jangoicuaen arpeguija icusico.

* Beraz pecatu andija dá señari bautismua galarazotia?

Bai chito andija, nor beren erruz bada.

* Celan euqui lei erruba?

Lenengua, norberen guraz eguiten danian cerbait, sortuta daguan seña galduteco.

Bigarrena, ataraco conseju deunguia emoten danian.

Irugarrena, eta bai jarten danian bat sabelian daucan seiña galduteco peligruban.

O! ce pecatu icaragarrija, eta celan arima guexo asco esaten deutsan limboti Jangoicuari: Vengau eguizu Jauna guri galarazo deuscuben Glorija beticua.

* Batiatuteco cer eguin biar dá?

Artu ura, eta ezarri batiatuten dan personiaen parte principalen batera esaten dala ura botaten jacanian NIC batiatuten zaitudaz Aitiaen, eta Semiaen, eta Espiritu Santubaen icenian Amen.

* Edoceñec batiatu lei?

Bai Jauna necesidadia badago.

* Eta seina jaijoten bada illaen echuriagaz, edo eceri bere eraguiten ez teut-

sala batiatu biar da?

Bai Jauna, ustelduta urten ezpadau; bada mobimenturic ez eguitia ezta illda daguanen señale ciertuba.

* Cer eguingo dá galdu, edo botaten dán seina bada dempora bacua, eta chito chicarra?

Batiatu ardura baga, ura botaten danian berba onec esanaz: VICITCIA badaucazu: *Nic batiatuten zaitudaz Aitiaen, eta Semiaen, eta Espiritu Santubaen icenian Amen.*

* Cegaiti alan?

Cegaiti ondo oraindiño inoc eztaqui nos sartuten dán arimia gorputcian eta noc jaquinlei gorputz ataric arimiac urten daven, edo ez; Orregaiti bada batiatu biarda galarazo ez taquijon señchuari betico Glorija.

* Cetara obliguetan gaitûz Bautismuac?

Satanasen pompa, eta obracaz errenuncietara.

* Satanasen pompa, eta obrac ceintzuc dirá?

Mundueo banidade, eta pecatubac.

* Ce frutu atera biar dogu leciñoe onetaric?

† Lenengo, Jangoicuari esquer andijac emon, bere bautismo Santuba dala medijo, eguin gaituzalaco Cristiñau.

Bigarrena, batiatu guiñianian eguin guenduzan promesac barriastu.

Irugarrena, emon berbia aurrerancian bici izateco bera servietan, munduco pompa, eta banidadiac ichiric.

## CONFIRMACIÑOIA.

* Cetaco da Sacramentu Santu Confirmaciñoecua?

Bautismuan artu guenduban Fedian, firme iminteco.

* Confirmau baga salva liteque?

Bai Jauna.

* Confirmaciñoeco sacramentuba artu ley sarri?

Ez beñ baño; bada beñ ariman iminten daben señalia ezta iños galduten,

* Confirmauta daguanac, ce obligaciñoe dauco?

† Lenengo, biardituz igaro, paciencija, eta bijotz onagaz Jangoicuaen bide santuban, aurquitu, eta topetan diran embarazu, eta dificultadiac.

Bigarrena, eguin biardituz lotsa, ca bildur baga, Cristiñau eguijazco batec eguin daruazan gauzac.

* Ce frutu atera biardogu leeiñoe onetaric?

† Lenengo, icasi ondo Sacramentu santu onen obligaciñoiac.

Bigarrena, errecibidu eztabenac prestau leenaz, biardan leguez errecibietaco.

## PENITENCIJA.

* Sacramentu Santu Penitencijacua cetaco dá?

Batiatu ezquero eguinico pecatubac parcatuteco.

* Guztiz da biarra confesetia salbetaco?

Salbauco bada biardituz confesau bere pecatubac, edo euqui gogua confesetaco aldaguijanian.

* Ceimbat gauza biardira confesiñoe ona eguiteco?

Bost. Lenengua, Examinia.

Bigarrena, Doloria.

Irugarrena, Propostituba.

Laugarrena, Confesetia,

Bostgarrena, Satisfaciñoia.

## EXAMINA CONCIENCIACUA.

* Examinia cer dá?

Pecatubac burura ecartia.

* Celan eguingo dá Examinia?

Lenengo, Jangoicuaen Magestadiari escatu umildadiagaz, emon deijola gracija, eta arguija, bere pecatubac idoro, eta ezaututeco, eta aen damu eguijazcua.

Bigarrena, atera contuba Jangoicuaen legueco Mandamentubetati, eta Elexacuetati, cé mandamentuben contra eguin daven pecatu, eta ceimbat bidar, pensamentuz, berbaz eta obraz, norberen, eta bestén estadu, eta obligacinoiacaz conforme: Eta errazago eguiteco, gogoratu nundi ibilli, eta nun egondan, nogaz tratadu daven, eta ce inclinacinoe oi daven. Onetaraco iminten davela negocijo andi baten imini oi dan contuba, eta arduria.

*Confesiñoe generala, nai particularra eguiteco modu erraza, eta bai norzuc dagozan obligauta generalmente euren pecatubac confesetara, tiburuchu onen acabuban dago, an icusi bedi.*

## DOLORIA.

* Cer dá Doloria?

Euquitia damuba Jungoicua ofendidu davelaco.

* Ceimbat modutacua dá doloria?

Modu bitacua, Contriciñoia, eta Atriciñoia.

* Contriciñoia cer dá?

Euquitia damuba Jangoicua ofendidu davelaco, izanic Nor dán.

* Atriciñoia cer dá?

Euquitia damuba Jangoicua ofendidu davelaco, pecatubaen ezañtasunagaiti, edo pecatuba dala medijo galdu dituzalaco Ceruco glorijac, eta irabaci infernuco penac.

* Damu, edo dolore onetaric onena ceñ dá?

Contriciñoia dá ascoz obia Atriciñoia baño; cegaitic acto contriciñoeco egujazcua eguiten davena, bertati gueldituten dá Jangoicuaen gracijan; baña ez Atriciñoia eguiten davena, confesetan eztala. Eta orregaiti, pecatu mortalian dagozan bi, bata Contriciñoiagaz, eta bestia Atriciñoiagaz illgo balira confesau baga, Con;

triciñoia daucana salba litzateque, eta Atrisiñoia daucana condenau.

* Asco dá Acto Contriciñocua auagaz esatia?

Ez Jauna, barrucua, eta bijotceco dolore, eta damu bicija, eta benetacua euqui biarda, izango-bada, eguijazcua.

* Pecatuben damuba artuteco, cer ecarri biar dogu gogora?

Lenengo, Jangoico guztiz andi, eta miserecordiosuen amore, eta ontasun parebacua, ceñen contra pecatu eguin dogun.

Bigarrena, aén Magestadíac eguin deuscuzan mesede, eta beneficijo andijac.

Irugarrena, Jesucristo gueure Jaunaen Pasiñoeco pena, eta trabajubac.

Laugarrena, infernuco pena beticuen consideraciñoia.

Bostgarrena, pecatuben ezañtasuna.

* Propposituba cer dá?

Dá bijotceco gogo, edo determinaciñoe firme benetaco bat, ez gueijago pecaturic eguiteco, eta pecatuben ocasinoeric apartetaco.

* Pecatu eguiteco bide, edo ocasinoetic quentcen eztanac, aldaijala, biardan proposito eguijazcua bauco?

Ez Jauna; uste izarrembere baucala, eztaueco.

## CONFESIÑOIA.

* Cer da Confesiñoia?

Esatia Sacerdotiari bere pecatu guztiac bat bere ichi baga, umildadiagaz, doloriagaz, eta garbiro, euren circunstancija guztijacaz.

* Confesiñoian iñor izentau biar da?

Ez Jauna; bada ezta ori norbera acusetia ezpada besten pecatubac aguertutia.

* Pecatu Venialac confesau biar dira?

Ondo da confesetia, baña eztago obligaciñoeric.

* Pecatu mortal bat, edo gueijago confesetia aztuten baijaco, orregaiti confesiñoia ona izango da?

Bai Jauna, bere erruz ezpada; baña euquico dau obligaciñoia, esateco urrengo confesetara doianian.

Pecatu mortalen bat lotsaz confesau baga ichiten davena salba liteque beste penitencijembat, edo obra onen bat eguinagaz?

Ecin salba liteque Santu guztijac baño penitencija gueijago eguinta bere.

* Lotsa andico, eta icaragarriseo pecatuz beteric cristiñau bat balego, euquico leuque erremedijua Erromara juan baga?

Bai Jauna, bere errijan edocein Confesorec emongo deutso guztijen parcaeiñoia.

* Beraz eztago achaquijaric, pecatubac Confesau baga isteco?

Ez Jauna, eta ondo confesetan eztana bere erruz, condenauco dá erremedijo baga.

* Confesetara orduban, cer eguin biar da?

Belaunico Sacerdotiaen oñetan umildade, eta modu andijagaz, ceñatu, eta esan confesiñoia. *Ni becatariau &c. eta* confesau bere pecatu gustijac bat bere ichi baga.

* Pecatubac confesau ezquero, cer eguin biar da?

Enzun, eta aditu ateneiñoiagaz Confesoriac emoten dituzan consejubac, eta eguin Acto contriciñoecua.

* Confesoriaen oñetaric jagui ezquero cer eguin biar da?

Lenengo juan leeu on batera; Jangoicuari gracijac emonten, bere pecatubac parcatu deutsazalaco.

Bigarrena, barriaztu, confesiñoian, eta lenago eguin dituzan propositubac,

Irugarrena, confesoriac emon deutsazan

consejubac gogoratu : Etá penitencija e-eguijazcua eguin.

* Ce frutu atera biar dogu leciñoe onetaric?

† Lenengo, Examinau conciencija, eta beguiratu ondo, ta leenagoco confesiñoiac onac izan ete dirian.

Bigarrena, onac izan ezpadira barriaztu, edo Confesiñoe Géneral bat eguin.

Irugarrena, esan Confesoriari bere pecatu gustijac, ciertubat ciertubac leguez, eta dudacuac dudacuac leguez, umildadiagaz, osoric, laster, eta erretorica baga.

## SATISFACIÑOIA.

* Satisfaciñoia cer dá?

Paguetia penitencijagaz pecatubac gaiti zor dan penia.

* Cetan dago satisfaciñoe au?

Confesoriac emonico penitencija artu, eta ondo cumplietian.

* Penitencija artuten davenac cumplictaco goguagaz, Confesiñoe ona eguitendan guéro cumplictan ezpadau bere?

Bai Jauna, baia cumplidu baga ichi evan penitencija, andija, edo garbia ba-

zan, eguingo dau pecatu mortala, eta biarco dau confesau urrengo confesiñoian.

* Ce frutu atera biar dogu leciñoe onetaric?

1 Lenengo, Confesiñoian ezarririco penitencija aimbat lasterren cumplidu.

Bigarrena, azaz ganeti bere, artu nor berac beste penitencijaen bat, Jangoicuaen aserria, bigunduteco, eta pecatubac gaiti zor dan penía obeto paguetaco,

## COMUNIÑOIA.

* Altaraco Sacramentu Santuban cer dago?

Jesucristo Jangoico, eta Guizon eguijazcua, Ceruban daguan leguez.

* Cer dago Ostijan consagradu baño leenago?

Ogui pusca bat.

* Eta cer dago consagradu ezquero?

Dago Jesucristoen gorputza biciric, eta baturic, edo uniduric Jangoicuen Semiaen personiagaz, dago odola bere Arimia, Jangoicotasuna, eta Trinidadeco iru Personac.

* Cer dago Calizan consagradu baño leenago?

Ardaua ur puscachu bategaz.

* Eta consagradu ezquero cer dago?

Jesucristoen Odola, eta daguan leguez baturic gorputzagaz, dago gorputza bere, Arimia, Jangoicotasuna, eta iru Porsonac.

* Nos iminten da Jesucristo Ostijan eta Calizan?

Sacerdotiac Mezatan berba consagraciñoecuac ezaten dituzanian.

* Eta berba mirarizco onec esan ezquero, bago Ostijan ogpiric, edo Calizan ardaoric?

Ez Janna: bada leen oguija zaña, eguiten da Cristoen gorputz: eta leen ardua zana Cristoen Odol; eta eztago Oztijan oguiric, ez Calizan ardaoric, oguijaen, eta arduaen irudija baño.

* Sacerdotiac Ostija erdibi eguiten davenian, erdiratuten da Cristo?

Ez Jauna, bada añ osoric dago alde batian, ceñ bestian, eta bardin Ostija chicarrian, nai Ostijaen parteric chicarrenian, ceñ andijan.

* Pecatu mortalian comulguetan danac artuten dau Cristo?

Bai Jauna, baña deungaro.

* Alan comulguetan danac ce pecatu eguiten dau?

Judasen pecatuba: Sacrilegijo icaragarri bat; bada jaten, eta irusten dau Jangoicuaen Juicijua.

* Nos eguin evan Jesucristoc Sacramentu Santu au?

Eguben santu gavian, bere Apostoluben aurrian.

* Cetaco?

Izateco gueure arimen janari, eta adorau guenguijan Sacramentu Santu onetan.

† Cer dan Mecia Elexaco lenengo mandamentuban esan da.

* Ondo comulguetaco cer eguin biar da?

Lenengo, cer errecibietan dan jaquitia.

Bigarrena, barau naturalian egotia.

Irugarrena, Jangoicuaen gracijan egotia.

* Cer da barau naturala?

Gaverdico amabijetaric, eta comulgau artera, samati estamangura ecerbere ez igarotia.

* Celan juan biarda comulguetara?

Umildade, confianza, eta debociñoc andijagáz.

* Celan eguingo dogu fedeco, eta Umildadeco, acto bat comulguetara guazanian?

† Neure Jesus ona, sinistutendot firmemente, zagozala Sacramentu Santu adora garri onetan, adoretan zaitudaz neure bijotceco erreberencia, eta umildade guztiagaz.

* Umildadeco, eta confijanzaco acto bat eguizu?

† Neure Jesus maitia, ceure oñetan echunic confesetandot, eznasala dignoceure magestadia artuteco; baia alambere daucat confijanza andi bat, emongo deustazula ceure gracija.

* Comulgau orduban cer esan biar da?

† Jauna, ez nas ni digno, Zu nire etsian sartceco, baia asco da Ceure berba bat neure Arimia osetaco: *Au irubider, umildade, eta devociñoe andijagaz.*

* Cer eguin biar da comulgau ezquero?

Leneugo gueure bularrian daguan Jaun andi au adorau.

Bigarrena, eguin deuscuzan mesediac gaiti, esquer andijac emon.

Irugarrena, mesediac escatu.

Laugarrena, gueu garian leguez, sentidu, eta potencija guztijacaz bere escubetan ichi.

* Comulgau ezquero eguizuz lau acto onac?

† Neure Jàun Andija! nic adoretan zaitudaz Angueru, eta Santu guztijacaz; nic ezaututen zaitudaz neure Jangoico, eta Salbadorezat, eta eztot gura bici aurrerancian Ceu bagaric.

† Neure Jangoico Maitia! cer emon al neizu nic Zuri, eguin deustazun mesede andi onegaiti! bicico nas onic aurrera, ezauturic ceure mesede eta beneficijo andijac.

† Neure Jesus misericordiosua, parcatu eguidazuz neure pecatubac eta ichi ez eguidazu, ceu gauic alde, eguiten: bete eguizu neure arimia ceure gracijaz eta gorde naguizu gach guztietaric.

† Neure Jesus ona! ofrecietan deutsudaz neure pensamentu, berba, eta gauza guztiac, neure bijotza, arimia eta gorputza: ara emen neu guztiau; ceuria, artu naguizu, salva naguizu; bada eztot besteric gura ezpada ceuria izatia, ceu ametia, eta ceu serbietia secula beti. Amen.

* Jangoicuari gracijac emon ezquero, cer eguin biar da?

† Bijotceco gogo guztiz andi Iat artu, bere falta, eta utseguite nagusienac quenduteco: bere bicijo aguintarijari guerra

eguiteco : bicitza barri bat asteco, eta bicitza barri atan beti irauteco.

## OLEACIÑOIA.

* Cetaco da Sacramentu Santu Oleaciñoecua?

Iru gauzataco.

Lenengo, bicitza guesto igaroaen errastu, ondar, eta sustraijac quenduteco.

Bigarrena, arimiari indarra emoteco Demoniñuen tentaciñoen contra.

Irugarrena, gorputzari osasuna emoteco combenietan bada.

* Oleaciñoia artu baga salba liteque?

Bai Jauna; baija gueiso peligruzcua daucala, ichi balei menosprecijoz, eguingo leuque pecatu mortala.

* Cetaco Sacerdotiac orijo Santubagaz igorcì, edo unguietan deutsaz gueisoari beguijac, belerrijac, suurra, aua, escubac, eta oñac?

Bere sentidu guztijacaz eguin dituzan pecatu guztien parcaciñoia Jangoicua ganic alcancetaco.

* Celan prestau biarda Sacramentu santu au artuteco?

Lenengo, ecelambere albadedi biarda confesau.

Bigarrena, gura izan ,eta escatu ataraco badago.

Irugarrena, artu eta errecibidu bere pecatuben damubagaz, Fede bicijagaz, confianza osuagaz, iminten davela bere buruba Jangoicuen escubetan.

Laugarrena, Sacerdotiac unciñoiac eguiten dituzan artian,guesuac bere, acto contricinoecua eguin, sentidu bacochagaz eguin dituzan pecatuben parcaciñoia Jangoicua ganic alcanzetaco.

* Ce frutu atera biar dogu leciñoe onetaric?

Lenengo, ez egon agoniñacua jo artian beguira, sacramentu au artuteco.

Bigarrena, eguin aleguiña, guesuai demporaz emon daiquijen.

Irugarrena, guesua peligruzcua danian inoc esan baga noberac escatu.

## ORDIA

Sacramentu Santu Ordiacua cetaco da?

Ordenduteco, eta consagretaco Elexaco ministro dinuac, celan dirian Sacerdotac, Diaconubac, eta bestiac.

## MATRIMONINUA.

* Sacramentu Santu Matrimoniocua cetaco dá?

Ezconduteco, eta ezcondubai gracija emoteco, baquian alcarragaz bici ditezan, eta seme alabac Ceruraco aci daijezan.

* Gracija gueijago emoten dau?

Bai Jauna, eruan eraguiten ditus paciencijatan estadu onec berez dacazan gach, eta nequiac; eta leialtadia gordetaco.

* Celan prestau biar da, sacramentu au errecibietaco?

Lenengo, itandu, bere confesoriagaz, eta gurasuacaz: eta beguiratu ondo, estadua jagocanez.

Bigarrena, Jangoicuaen graeijan egon eta prestau leenaz oraciñoiagaz, barubagaz eta limosniagaz,

Irugarrena, quendu aleguiñaz ezconcetan oidirian baralla, biguira, jolas, danza, eta jan edanac.

Laugarrena, icasi leenago ezconduben obligacinoiac, eta euqui intencinoe garbi bat Jangoicuac emoten daven frutuba Ceruraco azteco.

* Ce frutu atera biar dogu leciñoe onetaric?

† Lenengo, euqui Matrimoniñoiari errespeto andi bat, dalaco Jesucristoc eguinico Sacramentuba.

Bigarrena, espadagoz biar dirian disposicinoiac ez escondu.

Irugarrena, bici Cristinau onac leguez Jangoicuaen bildurtasunian, caridade, baque, uniñoe, amore, paciencija, eta leijaltade Sacramentu Santu ouec aguinduten davenian.

*Calahorra eta calzadaco Obispo Jaun D. Andres Porras eta Temesec aguindaric deutse bere Obispauco Cura Jaun guztijai, adierazo daijezala Elexan ezconzaco impedimentu edo eragozbide onec edola bere ilian beñ.*

## ONESTIDADECO AIDETASUNA.

Onestidadeco aidetasun au dator ezconzaco berbia emonetati, eta alan persona batec emoten badeutso beste bati ezconceco berbia, eguiten da aide, edo senide persona aen aide, eta senidiacaz lenengo graduban, edo belaunian; eta alan guizon batec emon badeutso ezconceco berbia an-

dra bati, ecin ezcôndu leite andra onen aistiagaz, ez Amagaz, eta ez alabiagaz bere, Eta bardin, ecin ezconduco da andra au guizon onen anajiagaz, ez Aitagaz, ez Semiagaz; bada onec dira lenengo belaunecuac eta ezconcen badira dispensa baga, eztau ezconciac balijo, eta biciea dira pecatu mortalian.

## COÑATECIA.

Seigarren mandamentubaen contra araguizco pecatu obrazcotati datorren aidetasuna, edo coñatecia eldutenda bigarren belaunera, eta alan guizon batec euqui badau cer icuşija, obraz, andra, edo nescatilla, bategaz eçin escondu leite nescatilla edo andra onen Amagaz, ez aistiagaz ez alabiagaz, ez lengusiniagaz, ez icecuagaz eta ez lobiagaz berc, eta ezconcen bada lenengo, edo bigarren belaunecogaz, eztau esconciac balijo.

* Alargun bat ezcondu leite bere emazte edo senar difuntubaen aide, edo sentiduen bategaz?

Senitaşuna elduten bada irugarren gradu guiño, ecin ezcondu leite; bada dauque coñatecia, eta au elduten da (ezcon-

cia ona izanic) laugarren belaunera.

Guztijac daquijena da barriz, ecin ezcondu leitezana persona bi alcarregaz, dispensa baga, badira bijac senide carnalac laugarren belaunian, eta ezconduco balira, dispensa baga. (uste onagaz izan arren bere), ez leuque ezconciac balijoco.

* Norbait ezconduco balitz, ezeonceco berbia emonda deutsan baten amagaz edo aiztiagaz, edo alabiagaz : edo bai berac pecatu eguin daven personiaen bigarren belauneco, edo graducogáz (uste onagaz) ezconcia ona izango litzate?

Ez Jauna; bada noberac ondo ezconduten dala uste arren bere, eztau uste onac ezconzaco impedimentuba quenduten. Eguija dá uste onagaz ezconeen danac pecaturic eguiten eztavena; baia ezconciac eztau balijo. Eta orretaraco itandu edo cousultau biar dau : alangoric jazo jaconac, Confesore jaquitun bategaz.

*Beste impedimentubac eztira emen iminten, eta onec bere adierazoco ditubez arguiruago, eta astiruago Cura jaunac, bada dá guztiz biarra, onec ondo jaquitia eta Llexan guztijai claru esatia.*

# JESUCRISTO GUEURE JAUNAEN

## PASINOE MISTERIJUAC ASTE SANTUCO EGUNETAN: ETA BIDE BATEZ ESATENDA GARIZUMIA CETACO EGUIN ZAN.

* Cetaco Elexa santiac eguin evan Garizumia?

Jesucristo gueure Jaunac eguin evan berroguei eguneco barauba onretarren, eta Prestau guendizan, Pascuetan ondo comulguetaco.

* Cer eguin biar da Garizuman?

Lenengo izangoda gauzaric onena garizumiaen asieran, confesau, eta comulguetia.

Bigarrena, igaro osasuneco egun santu onec dibersiñoe ascotaric (onac izanarren bere) apartetan gariala: bestetan baño limosna gueijago eguiten dogula, mortificaciñoia, barauban, eta oraciñoian dempora gueijago igaroten dogula doctrinara, eta sermoetara asistietandogula.

* Cetaco estalduten dira Altarac, eta Santubac Pasiñoeco astian?

Eracusterren guri Elexa Santiaen tristecia, Jesucristoen erijotzan.

* Garizumiaen azquenengo astiari, cetaco esaten deutsazu aste santuba?

Aste atan Jesucristo gueure Jaunac eguin cituzan Misterijo santubat gaiti.

* Cegaiti Erramuco Domecan erabilten dozuz procesiñoian erramubac escubetan?

Jesucristoc, bere Pasiñoe Santuba baño sei egunez leenago, Jerusalenen eguin evan zarzaijera santuben gomutan.

* Egubazten santu egunian cer igaro zan?

Egun onetan Judas traidoriac saldu eutsen Judegubai gueure Erredentoria, ogueta amar diruban.

* Eguben santu egunian cer igaro zan?

Afaldu evan Jesucristoc bere Apostolubacaz, garbitu eutsezan oñac, eta eguin evan Santisimo Sacramentu Altaracua.

* Nos artu even preso?

Gau onetan bertan, Jesemanico ortuban oraciñoian eguala, eldu cirian Judegubac, Judas aurrerengo zala, eta loturic lapur bat leguez, eruan even Anas eta Caifasen etsera. Emen ucatu evan San Pedroc iru bidar, bere Apostolubac igues eguin even ichiric Judeguban escubetan, eta gau onetan igaro cituzan alcirian pena eta trabaju guztiac, berba deunga asco esaten

eutsezala berê Izen Santubaen contra, eta estalduric bere arpeguija; emoten eutsezan belarrondoco andijac.

* Baricu Santu egunian cer jazo zan?

Egun onetan chito goxeti eruan even Pilatosen aurrera, andi Erodes erreguia gana, ceñec artu evan zorotzat, eta biurtu evan soñeco zuri bat jancita, Pilatosegana, onec aguindu evan azotau leijela, eta emon entsezan bost milla azote, eta gueijago gogortasun, eta crubeldade andijacaz.

* Azotau ezquero, cer eguin even gure Salvadoriagaz.

Janci eutsen soñeco gorri zantar bat imini eutsen aranzasco coroa bat buruban, cañabera bat escuban, eta belaunico bere aurrian, eguiten eutsezan burla andijac botaten eutsezala bere arpeguira chistu, eta gorro asco. Eta guero emon evan Pilatosec bere contra, ilteco sentencija.

* Pilatosec sentencija au emon ezquero cer eguin even Judegubac?

Imini eutsen lepuan Crutce astun bat, eruan leijan Calbarijoco mendira. An elduta billostu even, eta josiric crutcian lapur bijen erdijan, irugarren orduban ill zan.

* Cristo Crutcian egon zañ iru ordu onetan cer jazozan?

Eguzquija ilundu zan, eta arrijac bata besteen contra ausi eirian, lurra icaratuzan, eta criatura guztijac sentidu even Jesucristoen erijotcia.

* Cristo Crutcian ill ezquero, ce jazozan?

Soldadu batec igaro eutsan bere bularra lanza bategaz, eta eridati emon evan odola eta ura. Josepe, eta Nicodemusec eretsi even Crutceric, eta imini even bere Amaen altzuan, guero enterrau even, izara zuri bategaz vestidu, edo amortajauta, sepultura barri baten.

*Icusi bebi laugarren Articuluba.*

* Cer eguiten dau Elexiac zapatu santuz?

Uraen bedeñcaciñoia, eta beste gauza asco, guztiac santubac, eta misterijoz betiac.

* Aste santuba ondo igaroteco, cer eguin biar dogu?

1 Lenengo, barau eguin, eta mortificau gueure gorputzac, bestetan baño gueijago.

Bigarrena, asistidu debociño andijagaz oficijo Santubetara.

Irugarrena, aimbat sarrijen Crutciac bisitau, gogora dacargu zala Jesucristo

gure Jaunac gu gaiti igaro cituzan pena, eta nequiac bere Pasiñoe Santuban; eta artu gueure pecatuben benetaco damuba, eta gorroto andi bat izan dirialaco causia Jesucristoc aimbeste igarotzeco.

## CONFESIÑO GENERALA

EGUITECO OBLIGACINOJA NORZUC DAUQUEN: ETA CONCIENCIJA EXAMINETACO MODU ERRAZA CONFESIÑO PARTICULARRERACO BERE, ARA EMEN.

* Confesiñoe generala eguiteco obligaciñoia noc dauco?

1. Bere conciencija ondo examinau baga, edo bere pecatuben dolore, eta propositu eguijazcua baga leenago confesau danac.

2. Pecatu mortalembat bere erruz, lotsaz, edo bildurrez confesau baga ichi davenac.

3. Ocasiñoe urco, edo proximuan, edo pecatu eguiteco costumbren baten luzaro bici izandanac.

* Confesiñoe generala eguiteco obligaciñoeric euqui ezarren bere, leenago inos

eguin ezpada, ondo izango da generalmente confesetia?

Bai Jauna, bada gazte demporaco confesinoetan ez oida ain beste contu, eta ardura imini, ez bere conciencija ondo examiñetan, eta ez bere pecatuben doloria, eta damu eguijazcua euquiten bere, eta orregaiti da conseju chito ona, confesinoe general bat eguitia agaz barriztetaco leengo confesiñoe guztijac; baña onelanguac obligauta eztagoz (confesinoe deungac eguin ditubezanac leguez) aiñ beste contugaz euren concienciјac examinetara; eta gura baditubez pecatuben batzuc ichi confesau baga orregaiti confesiñoia ona izango da.

* Pecatu guztijac banaan confesetaco ecin burura ecarri dirianian, cer eguingo da.

Aldaizanac esan guichi gora bera; eta ezpabere astian edo ilian ceimbat izan al dirian.

* Eta ez aztez, ez illez bere contuba ondo atera albada.

Asco da esatia costumbre edo usadijo deunga atan bici izan dan dempora, eta orregaiti eztago cetan estutu; bada Jan-

goicuac escatuten eztau nor beren alegui-
nez ganeti. Biarren dana dá bere pecatu guztijen damu benetaco andibat euquitia, aecaz Jangoicua ofendidu davelaco eta gogo, edo propositu eguijazcua, aurrerancian ez pecatu gueijago eguiteco, eta pecatuben bide, eta ocasinoetaric igues eguiteco.

## CONCIENCIJA EXAMINAU

*baño leenago esateco oraciñoia.*

O Neure Jangoico guztiz ona: neure gachetaric ceugana biurtu gura dot. Baña orretaraco neure pecatuben iluntasun onetan ceure arguija biardot: Mundu galdubaen arguija, eta erremedijo bacarra Ceu zara. Ceure misericordija andija gaiti arren, Jauna, emoeidazu biardodan arguija neure conciencija ondo examinetaco eta neure culpa eta pecatubac idoro, eta biardan leguez ezaututeco: Betor Jauna, onec biardaven damu, eta propositu eguijazcua, onec ondo confesetaco: Au, Jauna, desietandot, eta erregututen deutsut, eta alan izango dala uste dot, Jesucristo ceure Seme Jaunagaiti, Amen.

## AMA VIRGINIARI ORACINOIA.

O cerubetaco erreguiña, Jangoicuaen Ama Santia, eta pecatari ceu gana negarrez datozan, guztijen misericordiazco Ama! Crutciaen oñian ceure Semiagaz, nigaiti igaro cenduzan penac gaiti, escatuten deutsut, bere Pasiñoe, eta merecimentubacaz, ni Confesiñoe onetan aprovechetaco, ceure mantupian artu naguizula. Eta neure Aita San Josepe bedeñcatuba, Ama eta Semíaen artian bitartecoric maitiena bijen artian zartu zaite, neure arimiaen baquiac eguiteco. Anguern, eta Ceruco Santu guztijac zubec bere bai, eta neure anguern guardaco adisquide, eta lagun beticua, orrecaz batera escuba emoidazu, eta lagun eguidazu Penitencijaco Sacramentu au, eta guero Altaraco guztiz Santuba ondo arceco, prestatu nadin. Amen.

# EXAMINA CONCIENCIJACUA

## EGUITECO MODU ERRAZA, ARA EMEN.

### *Lenengo Mandamentuba.*

Fediaen contraco pensamentuben baten consentidu, edo Fedeco misterijo Santuben baten dudau davenez.

Jangoicuaen misericordijagaz desconfiaju davenez; eta bere pecatuben anditasuna icusiric, aen parcaciñoia ecin leuquiala, uste izan davenez.

Jangoicuaen ontasun, eta misericordijan confianza larregui euqui davenez. Eta bere aleguiñaz beste baga, salva litiala uste izan davenez.

Jangoicuaen, edo bere Santuben contra blasfemijaco berbaen batzuc esan dituzanez.

Jangoicuaen providencija Santubari erruba ezarten deutsala, bere neque trabaju, eta estutasunetan paciencija galdu davenez.

Sorguinquerija, Agoero, zori, edo echicerijetan ibili, edo sinistu davenez; eta guessuen batzuc osatuteco edo beste modutaco gauzaen batzubetaco, onelango gau-

zagaz, edo bai erabagaco oraciñoe, eta bedeñcaciñoegaz balijau danez.

Amesctaco gauzaric sinistu davenez.

Jangoicuagana biurtutia erijotzaco ordura artian, ichi davenez.

Biardan leguez Dotrinia daquijanez.

Fede, Esperantza, eta caridadeco Actuac, edola bere urtian bein, eguin dituzanez.

Lotsaz edo bildurrez peatuben bat confesau baga ichi davenaz.

Lenagoco confesinoiac onac izan dirianez.

Confesoriac emonico penitencija cumplidu davenez.

Confesoriae biurtuteco esanico gauzaric aimbaga daucanez.

Besteri pecatu eraguiteco, motibo izan danez.

Pecatuben bat eguin, edo eguingo dabela alabau danez.

Elexa edo beste lecu sagradutan peeatu eguin davenez.

Gauza sagraduben baten ordez, diruba edo beste gauzaen bat artu, edo emon davenez. Capillau, edo beneficijadu izateco botoen batzuc erosi, edo saldu dituza-

nez; edo Capellanija edo beneficijuen bat beretuterren, diruric, edo bezte gauzaric emon davenez.

*Bigarren Mandamentuba.*

Gauza chicarrian izanarren bere, Juecen aurrian, edo bestelan guzurragaz; edo eguija danez ondo eztaquijala, (dudan) juramentu eguin davenez.

Onelango juramentubac eguiteco, izcuneric daucanez, edo necesidade baga juramentu eguin davenez.

Iñori dañuba etorrico jacon auci, edo querellen baten, juramentu guzurragaz eguin davenez.

Gachen bat eguiteco, eta cumplietaco goguaz, juramentu eguin davenez.

Iñori, edo bere burubari bengauco jacola, juramentu eguin davenez.

Pecatu mortalen bat eguin, edo eguingo davela (alabetan dala) juramentu eguin davenez.

Jangoicuari, Ama Virginiari, edo Santuben bati eguinico juramentu promes edo botoen bat (ona izanic) cumplidu baga daucanez.

Pecatu mortalen beco Jaijetan premiña baga biarric eguin davenez, edo bere cargucori eraguin deutsanez, eta onango egunetan saldu erosijan ibilli danez.

Jai Domequetan Meza osua enzun baga bere erruz egon danez, edo uts eguiteco peligruban jarri danez.

Bere oguitucuai Meza enzutia, motibo baga, galarazo deutsenez.

Erreberencija baga Mezatan egon danez eta Mesa enzutorduban iñogaz berbetan, batera, eta bestera adi edo siñuca ibili danez.

Pecatu mortalian daguala Sacramentuben bat artu davenez.

Confesau, edo Comulgau baga Pazcuetan egon danez.

Burla, eta barre gauza Santubac gaiti eguin davenez.

Deungaro eguinico gauzaric, edo pecatu mortalen bat alabau davenez.

Baricu, eta bigilija egunetan, necesidade baga, araguija jan davenez, edo iñori jan eraguin deutsanez

Obligaciñoeco egunetan barau eguin da-

venez, eta colaciñoian zortci onzan igaro danez.

Garizumaco egunetan, bulda baga; arrautzac, edo ezne gauzaric jan davenez.

Amarren, eta primicijac ondo pagau dituzanez.

*Laugarren Mandamentuba.*

Bere gurazo, Ugazaba, Maisu, Sacerdote, Juez eta Nagusijaguai lotsia obediencija, eta errespetua, galdudeutsenez, edo berba deungaric esan, edo biraoric ezarri deutsenez.

Bere gurasuac necesidadian egonta, socorru baga ichi dituzanez.

Guesoric egonta, bisitau baga ichi dituzanez. Eta Sacramentubac artu baga bere erruz ill dirianez.

Bere Gurasuai leenago esan baga, iñori ezconzaco berbia emon deutsanez.

Gavian licencijabaga, etseric urteten davenez.

Bere umiai, eta oguitucuai doctrinía iracatsi deutsenez, edo egemplu deungaric emon deutsenez, eta euren aurrian, eta dacusela, gauza deungaric eguin da-

venez.

Jaquinic edo sospechia edo susmia euquiric; bere umiac, edo etsecuac campuan, edo etsian deungaro bici diriala edo lagun deungacaz batceen diriala, erremedijua imini davenez.

Bere ume, eta etsecuen aurrian juramentu, edo biraoric (bijotceric izan ezarren bere) eguiteco izcuneric daucanez.

Zazpi urte ezqueroco umiac (edo gaztiago izanarr en bere, malicija badauque) euracaz oe baten eratzo dituvazanez.

Oficijo, edo jagoquén bici moduba, onraz biciteco, demporaz emon deutsenez.

Bere emaste, eta umiai bicitza, guestua emoten deutsenez. Jatecua, soñecua eta osterantcian biardavéna emoten deutsenez.

Emaztiac Senarrari esanagaz, edo eguinagaz atsacabaric emon deutsanez.

Sacerdote, Religioso zar edo pobriai burla, eta barre eguin deutsenez.

Tabernan, Jocuan, tratu eta bicijo deungatan, bere emastiac, eta umiac biar leuqueena galdu davenez.

Bere Gurazuac, edo besten batec testamentarijo ichita, aen enterru, onra meza zor, eta aguinzarijac cumplidu baga daucazanez.

Iñor ill, edo eridu davenez.

Erijotcia edo beste gachen bat bere burubari, edo besteri desiau deútsanez.

Iñoen onagaz atsacabaric, eta gachagaz atseguinic artu davenez.

Iñori gorroto deutsanez, eta gach eguin deutsanari parcatuten deutsanez.

Berbia, edo agurra iñori ucatu deutsanez.

Bijotceric biraoric egotci davenez, eta onelango izcuneric, edo usadijoric davenez.

Besten arteco baquia, edo adisquidetasuna barrijacaz, eta bere miñ guestuagaz galdu davenez.

Merecidu daven baño gueijago beriac, castigau dituzanez.

Bere egemplu charragáz besteri pecatu eraguin, lagundu, aconsejau, edo iracatsi deutsanez. Eta ceimbaten aurrian izan dan.

Errigelta zale danez.

Biar eztan auci, edo querellaen bat, bere erruz, Errijac, edo auzuen batec darabillenez.

Pecatu mortalian egonic erijotzaco peligruban bere buruba imini davenez.

Jaquinic gach eguingo deutsala biardan baño gueijago, jan, edo edan davenez; eta orregaiti orditu danez.

Señen bat amaen sabelian galduteco erremedijoric, emon, edo artu davenez; edo bere erruz señen bat oian, edo bestelan ill, edo ito danez.

*Seigarren, eta Bederatcigarren Mandamentubac.*

Araguizco pecaturic eguin davenez, ezcongaijac, ezcondubac aidiac, edo voto castidadecua dauquenac izan dirianez (confesiñoian ataraco nor dan icentau baga)

Pensamentu loiric euqui davenez, eta aetan (bere guraz) atseguin artuten egon danez edo onelango pecaturic eguiteco gogoric euqui davenez.

Leenagoco pecatuben batzuc gogoratu eta, aetan barriro atseguin artuten egon danez.

Pecatuben bat ez eguiña, garbaitu jacanez.

Canta, ipuiñ, edo berba loi eta deso-

nesturic esan, edo bere guraz, enzun davenez.

Danza eta jolas peligrosuetan ibili danez.

Erregalu, promes, edo ezconzaco berbagaz iñor engañau davenez.

Norberac bere gorputzagaz bacarrijan, edo osterancian gauza loi, edo indecenteric eguin davenez.

Mutillac mutillacaz, edo nescatillac nescatillacas, gauza loi, eta indecentetan ibilli dirianez.

Mandaturic bialdu, edo bera bestenzat mandatari, pecatu eguiteco, izandanez.

Errazago pecatu eguiteco, bere etsian sospechaco genteric euqui davenez.

Pecatu eguiteco goguagaz, arpeguira beguira, edo quiñuca ibilli danez.

Obrazco pecaturic eguiñ ezarrembere laztança, eta mosuca, edo beste gauza indecenteric eguiten ibilli danez, edo pecatu eguin davenetan seiñic ez izateco, ecer eguin davenez, edo señenbat, beria dana jaquinic, ucatu davenez.

Avere, edo alimaniñaen bategaz pecatu eguin davenez.

Amesetaco gauza loijenbategaz, iratzartu ezquero, atseguin artu davenez.

Erdi billosic gentia davilen lecutan, edo soñeco indecentiacaz ibili danez.

Guizon, Andra, avere, edo alimaniñen gauza indecenten adi (gogoz) egondanez.

Ezcondubac bere lagunari, motivo baga, matrimoniñoeco zorra pagau baga ichi deutsanez; edo deungaro matrimoniñoeco gauzacaz usau davenez.

*Zazpigarren, eta Amargarren Mandamentubac.*

Iñori ecer ostu deutsanez, cer, eta ceimbat.

Elexan lapurrerijaric eguin davenez.

Zorren batzuc (aldaizala) pagau baga daucazanez.

Jocuan iñor engañau davenez, eta jocolarijena eztanic irabaci davenez.

Saldu erosi artu emon, eta alboroquetan iñor engañau davenez.

Bere crijau, otsein, eta aloguerecuai euren soldatac (aldaijala) pagau baga daucazanez.

Biardan baño gueijago bere gurasuai gastau deutsenez.

Crijau eta Crijadac (euren soldatiaz ganeti) ugazabai ecer quendu deutsenez.

Iñoen soluan, basuan, edo aciendan dañuric eguin davenez, edo bestec eguin daguian motivo izan danez.

Bacochari beria ez emoteco, iñoen gaucia ostuteco, edo norbait engañetaco gogoric euqui davenez.

Biardan baño merquiago erosi, eta gorago saldu davenez.

Diruba prestamuban emotia gaiti, irabazteric, edo interesic eruan davenez, eta nori.

Iñoc osturico gaucien eztalguilla izan danez.

Bere trabajubac, edo nequiac biar daven baño gueijago, eruan davenez, eta aloguerian izan danian biardan baño biar guichiago eguin davenez.

Aurquiturico gaucen bat javiari biurtu baga daucanez edo javia nordan jaquiteco diligencija eguin davenez.

Iñoen bidebaco aciendia, edo gauza deungaraco, desiau davenez.

Iñori erra zua baga auciric imini deutsanez.

## *Zortcigarren Mandamentuba.*

Iñori testimoniñoe falsoric eregui deutsanez, eta iñori desonraric desiau, esan, edo eguin deutsanez.

Guzurric esan davenez.

Iñoen bicitzaco gauzaric jaquiten ibillidanez.

Jaquina, edo publico eztan gauzaric iñogaiti esan davenez. Edo murmurau davenez, eta cermbat lagunen aurrian.

Iñoen familija galdu davenez, edo isileco gauzaric aguertu davenez.

Iñoen cartaric zabaldu davenez.

Bestien famia quenceco cantaric atera davenez, edo alangoric berac cantau davenez.

Confesoriac esanta, famia biurtu baga daucanez.

Motivo baga inogaiti juicijo, edo sospecha deungaric eguin davenez, eta onelango juicijuac besteri comunicau deutsanez.

Iñoen murmuraciñoia gustoz enzun davenez, eta aldaijala murmuretia eragotci davenez.

Guzurren batzucaz, barriacaz, edo bere miñ guestuagaz ezcoucen bat galdu davenez.

Bere progimuari famia galduco jacan gauzaen bat eguin, edo esan davenez.

## EXAMINIA EGUINTA CONFESAU

*aurrian esateco Oraciñoia.*

O neure Jangoico misericordijaz betia! milla ezquer bijotz guztiric ceuri orañ, nic merecidu baga, barriro eguin deustazun mesede andi onegaiti; eta neure culpa, eta pecatu andijac ezaututeco, emon deustazun arguija gaiti.

Baña ¡Ay neure Arimiaen Jave bacarra! Neure buruba ceure aurrian icusita, ce lotsia dacardan! Orra neure bicimodu guestuco biageri, Seme galduba leguez, celan ceu gana biurtuten nasan ¡Ay neure aita ona Ceruco ondasun, eta doez beteric ceuganic juan nintzan, eta orrec guztijoc galduta desdichaz beteric ceu gana biurtuten nas.

¿Neure Aita ona, ezautuco etc nozu? baña cer diñot, Jauna, alde guztietati neure bila basabilz, eta besuac zabalic neure be-

guira basagoz? Milla ezquer, Jauna, ceure ontasun pare bacua gaiti ceure misericordija onagaz balijau gura dot, bada Ceu zara neure erremedijo bacarra, Jesucristo gueure Jaunaen amoria gaiti arren indazu neure pecatubac ondo confesetaco, eta çeu beti ametaco gracija. Amen.

## COMULGAU BAÑO LEENAGO,

*esateco Oraciñoia.*

O Ceruco Erregue Jaun andi neure Jesus maitia! Zu eta nigana Cerutic jatsi zara? Au cer da! Nori ezpada ceure amoriari onango gauzaric gomutauco jacon. Izan leite, eta Fedeco eguija dá, nic, eta zu, neure Jaun andija, Ostija chiqui baten neure bijotcian artu biar zaitudazala. O misterijo guztiz andi, eta miragarrija! O amorezco Sacramentuba! Cer eguin al nei nic, ezpada Ceure aurrian arritu, umildatu, eta neure bijotceco atiac ceuri pocic zabaldu, neure Arimaco ostatu pobre onetan, Ceu Erreguerie andijena, artuteco! O Ceruban garbitasuna noc leuquian! O Angueru eta Santuben Espiritu guztija,

eta Ama Virgina Santisimiaen Virtutiac noc leuquezan, ceu orañ biardan leguez neure bularrian artuteco.

O neure Jesus maitia! Eguija da, ni pecatari galdu bat nasaná. Baña Jauna Ceu zara nire erremedijo guztija, Erdu bada, erdu Misericordija guztijaen Javia: Erdu ceruco Medico Andija, ni osatutera, eta salbetara : Ceure gracija; eta vicimodu barri bat neure Arimiari emotera.

O neure Jave guztiz averatsa! Ceure ontasun cabu bacuac, eta ceure onereste andijac empeñau, eta ecarri zaituz Cerutic lurrera, ceure ondasunac, ceugaz batera niri emotarren. O mesede parebacua! Baquizu ceure digno eznasana : eta alan bere ceure amoriac zacartz ni gana. Baquizu ceren biarra daucadan. Indazu Fede bici bat, esparanza firme eta Caridade, irixigui bat, ceuc guren dozuzan beste virtutiacaz, ceu neure arimian ondo arceco, aurreraneian obeto ametaco, eta servietaco.

### *Oraciñoía.*

Ondo etorrija izan zaitezala neure Jaun andija! O celangua dan ceure amoriaen indar parebacua! Nori secula, Jauna, gomutatuco jacon, niri onelango mesédia eguiñgo ceustala! Ay neure Jesus ona! Ecin, Jauna, ecin biardan leguez, ni ceure digno izan neñteque. Ay eta ce etse, eta ostatu pobria neure bijotcian artu dozun! Baña Ceu zara Ceruban, eta lurrian neure Jangoicua, Ceu asco zaitudaz bacarric eta ceugaz nago guztiz aberatsa.

Neure beguijac, neure escubac, eta beste sentidu guztijac, erdu guztijoc ceuben Jave amoroso onegana. Neure memorija, entendimentu eta borondatia, Cerubac, lurra, Eguzquija, Irarguija, eta Izarrac zubec bere erdu, ceuben jave, eta Jaun andiau adoretara, eta alabetara.

Eta zu Cerubetaco Erreguiña Virgiña Santisima Marija neure Salbadore, eta Jaun andi onen Ama maitia : Ceruco Angueru, eta Santubac erdu guztijoc neure etse pobre onetan, ceuben glorija guztija

neugaz batera neure bijotcian adoretara, eta bedeñquetara eta neure falta guztijac erremedijetara. ¡O neure bijotecco Jesus maitia! Santu guztijac beti bedeñcatu zaijezala, niri eguin deustazun misericordija, eta mesede andi onegaiti. Ecer eztaucat Jauna ceuc daquizu neure pobrecien barrija: Ceuri esquerrac emoteco, cer ofrecidu eztaucat ezpada neure bijotz otz, illau: orra Jauna dana. Nic daucadan, eta nasan guztija ceuria da, eta ordu onian izambedi betico ceuria Amen.

¡Ay Jauna Ce gauza laburra, eta ce guichi dan bijotz bacar bat, eta au añ epela, eta ecer eza, celan dan neure bijotz au! Ah Ceruco Santu, Angueru eta Serafin irixigui guztijen Espiritubac nic baneucaz, ceu beti adorau, eta ametacó! Guztijac gura neuquez Jauna zuretzat, ceuri guztijac ofrecietaco etã ezquerrac emoteco.

Ea ceruco neure Jaun aberats, eta emalle ugarija! Etzara bada ostatu pobre onetara alperric eldu, eta ez utsic nigana etorri; ezpada ondasunez beteric neure javeric onena leguez; ceure biarra nic baucat. Baucazu nigan ceure ondasun,

eta doiac nun ondo empliadu.

Ara emen Jauna ceure oñetan, eta beguijen aurrian neure arima tristia.

Ara emen neure beguijac, miña, escubac, eta beste sentidu galdu guztijac: dirianac ceuc erreinedijadu, eta ceure bendiciñoez betetaco.

Nundi escatuten asi eztaquit, Jauna ceuc neure barrija obeto daquizu, eta ceuri onduen gusto emoteco, cer eguin biar dodan. Ceu servietaco, ceu ametaco, ceure borondatia beti eguiteco, ceure gracija indazu, eta orregaz aberats, eta zorijonecua betico izangonaz. Amen.

Ceruco ondasun guztijen Javia! Ezteutsut ichico neure arimaco etse pobre onetaric urteten: ezteutsut ichico neuganic juaten, ni utsa, pobria, eta biartuba ichirie. Ez Jauna, neure ostatu pobre onetaric juango etzara, ni ceure bendiciñoez bete baga. Guztijen Javia zara, eta ezqueco guztijen onguillia: baucazu nigan nun ondo empleau ceure ontasun eta misericordijac. Ara emen Jauna neure Arimia lur liorra leguez, ceure euren gozuen esque. Ara onci utsa leguez, ceure gracija, eta ondasunen beguira. Ceuc bacutsu, ce

umildade, paciencija caridade modestija, eta arimaco, eta gorputceco garbitasunen biar andija daucadan. Orrez ganeti bere emo eidazu ceure bendiciñoia, neure bijotz au, neure beguijac miña eta beste sentidu guztijac ceure gustora zucendu eta iminteco. Ceure bijotz Santuba gaiti bijotz barri garbi bat indazu; ceure gustora bici modu barri bat ceuri jarraituteco, eguiteco, guztijagaz ceure neure aleguin boron datia orañ lurrian eguin, eta guero Ceruban zorijoneco izateco. Alan izan della, Jauna arren bai.

# VICI BEDI JESUS

## MEZA ENZUTECO GOGARTE,

### ETA ORACIÑOAC JESUCRISTOREN PASIÑOAREN GANEAN.

Ez dau Cristiñautasunac Mezea baño gauza veneragarrijagoric. Jangoicoac berac ecin emon, eta asmatu leiquéan Meza Santea baxen gauza andijagoric, eta miragarrijagoric. Ondra gueijago emoten jaco Jangoicoari Meza bacar bategaz, Angueru, eta guizonac mundua danić oná esquiñi deutsena baño.

Meza batec balijo dau Jesucristoren Erijotzeac dun beste, diño San Juan Chrisostomoc: cerren, Mezan barriztetan da bere Vicitza, Pasiño, eta Erijotza berbera: bereán Jesucristoc emoten dau barriro bere Odola gugaitic: berean, Elexa Ama Santeac Sacerdotearén ezcuz, eta bitartez biralduten deutse Jangoicuari bere Seme maitea, bere Ontasunac eguiñico mese-

deen ordéz; eta guizonen pecatu, eta-erru guztien quitugarriz.

Meza esaten dan artean, dagoz Ceruac zabalic; dabiltz joan, eta etorri Angueruac gure escaria, eta erregûacaz, dira ondo enzunac gure escabideac: parquetan jacuz pecatu arinac: eransten jacus Jesucristoen merecimentu neuri bagueac; eta emoten jacaz ondo dantzuenari arima, eta gorputzeco ondasun ugari enzunaeaz.

O eta balequije fededunac, cer dan Mezea; ce balijo andicoa dan; eta ceimbat irabazten dan Meza bacar bat enzuteaz! Egundu baxen len egongo litzatequez Elexateetan ichadotenMez Emollea; aztuco leuquee baraustea; eta gox guztian urtengo eleuque Elexatic!

Bada, celan gagoz aste guztian Meza bat enzun baga? Domeca, Jai eta eguzaiietan gura, eta gurez enzuten dogu Elexa Santearen aguinduz; baña celan orduan bere? Guztiz nagui epelic, ganora baga, arraucica, erdi lo, albora adi, barreca, barriquetan fede apur baga. Au da Mez enzutea? Alan egonic bete, edo cumplietan dogu Elexearen aguinduaz? Alan egoteco obe ez litzateque echean Mez enzun baga gueratutea?

Cer-derichazue, altaran auspez belaunico zagozan Angueru Santuac, gure lotsa baguetasun, eta aberequeria onen? Ah! Lurreco Erregue baten aurrean moduzcoagoac egongo guiñateque! Jesucristo en jaijotzan modu obean egozan Asto, eta Idija, gu Mezan gagozan baño! O abereac baño bere abereagoac! O itsutasuna! O esquer gaistoa! eta ce castigu gogorren beguira gagozan!

Jangoico guztia jatorcu Mezara: Cerutar guztien laguntzat aguertzen da Jesucristo, barriro arguitu, eta iltera leguez diño San Agustinec; eta guc eldubere gura eztogu ain mirari andijac jazoten direan Mezara! Judeuac eurac bere ez eben guc baño guichiago eguin Jesusegaz, cein euquiric eureen artean, ezagutu ez ece, erijotza gogorraz iraindu eben

Lar-bere eguija da, auxe berau, eta beste onen beste jazoten dala gugaz; eta agaitic urteten dogu Mezatic, len baxen otzago, epelago, eta gaistoago: agaitic dacuzguz Cristiñau errijetan ain calte gogorrac; eta mireritu bear gaituz, celan Jesucristoc igues-eguiten eztaben gure Elexeetaric, icusiric gure esquer baguetasun gaistoa.

Eta, bada fededuna zara: aurrerantzean

enzun eiquezu Meza sarrijago, eta aldaizun ondoen, azquenengo Mezea balitzan leguez: Onetaraco orrá emen Meza arteraco adibide, Gogarte, eta Oraciñoac Jesucristoen Pasiñoaren ganean.

### *Mez-emollearen Jasquera, eta soñeco Apaindurac adierazoten davena.*

Sacerdoteac adierazoten dau Jesucristo.

Escuac Mez aurrean garbieteac, celan Jesusec garbitu cituan Erijotza aurrean bere Icasle, eta Apostoluac oñac bere escu ederracaz.

Jauzten daven Amituac, adierazoten dau, Judecuac Jesucristori arpeguija estalduteco, ifini eutsen eunestali, eta sorquija.

Albeac, Jesus maiteari Herodesen Jaureguian janci eutsen zoro-jasquera-soñecoa.

Cinguluac, guerritic estu eutsen catea, Manipulu, eta Estoleac, escu, eta idunetic lotu, eta estu eutsezan soca gogorrac.

Casulleac, Pilatosen echean ifini eutsen Erregue-janciera gorri zoroa.

Altareac, eta Altar-arrijac, eta berean dagoan Crutzeac adietan emoten dau Calvarijoco Mendija, eta Cristo iltzan Crutzea.

Altaraco zamuac, eta Corporalac, Cristo sepulturan batu eben izara, eta icercaria.

Calizac adierazoten dau Sepulturea, eta Pateneac Sepultura-arri-estalia.

Hostijac, Cristoren Gorputza; ardoac, gugaiti emoeban Odola; eta urtantac, bere bularretic urte-eban ura.

*Mezea asi baño len esaizu.*

Neure Jangoico maitea! Meza Santua, eta gaur Cristiñau-Elex guztietan esango dirianac, esquiniten deutsudaz, Ceu eta ceure Seme Jesucristoen glori andijeneraco; bere Ama laztan, eta Cerutarguztien ondraraco: Elexa Ama santa, eta bere Seme fededun guztien oneraco: nire pecatuen eta nire erruz besteac eguin dituezan erru guztien quitu-garritzat; eta mundua danic ona guizacume guztiac eguin dituezan pecatu eta gaiztaquerijen orderaco.

Opa deutsut Purgatorijoco Arima santa gaitic; batezbere neure Guraso, aide, onguill, ezagun, eta adisquideac, munduan izan cirianac-gaiti.

Esqueñiten deutsut Ill-aguinian, pecatu erijotzcoan, condenetaco zorian, gaisoric,

parea gairritzat,

eta estueraren baten dagozana gaitic. Herege, Judegu, eta fede bagueac arguitu, eta Cristiñautu daizuzan; eta erijotzaco ordu larrijan ucatu ezdaiguzun ceure Semearen gorputza, cein icusi ezarren, sinisten dogu, arquituco dala orainche Meza onetan, gu aberastu, zoriondu, sendotu, eta janarituteco, orain gracijas, eta guero glorijaz. Amen.

## MEZA ARTECO GOGARTEAC

*Sacerdotearen urtereac Sacristiaric Altarara, adierazoten dau, Jesucristoc bidezco Jesemanico hortura.*

### ESAIZU.

O Jesus maitea! eguin cenduan bidaldija gaitic Jesemanico Hortura, bertan emoteco asierea Pasiño garratzari; eta bertan errudun gaisto bat leguez loturic soca, eta cateaz igaro cenduan lotsarija gaitic; escatuten deutsut; zucendu daizuzala nire oñac oquer bideetara joan ezditeceen, artez ibilliric lurrean; eldu nadin Çeu icustera Ceruan. Amen.

*Sacerdotea barupeta, eta macurturic, adierazoten dau Jesucristoc auspez echunic Jesemanico Hortuan erreguca gugaitic bere Aita beticoari.*

## ESAIZU.

Jesus neure arimaco Erosleal ez arren aztu Jesemanico Hortuan nigatic irunsi cenduzan larritasun, bilduricara, estuera, bacartasun, eta gogortadeac: nigaitic eguin cenduzan erregu, eta escarijac; eta nire pecatuen gomuteac botarazo eutsuzan lurreguiñoco odol tantac.

Josi eguizu nire vijotcean pecatuen bildur gorrotozco bat: indazuz negarrezco begui- corrontac, urtuteco neure erru atsituac; eta lagun eguidazu neure erijotzaco larritazun; etaagonian. Amen. *Esaizu*: Ni pecatarija, &c.

*Mez-emolliac Mun eguitea Altaran da, adietan emoteco, Judasec Cristori emon eutsan mosu ta laztan azalezcoa.*

## ESAIZU.

O Angueruen ispillu ederra! Ceure arpegui sotilean Judasen aotic umiltasun andijaz artu cenduan mosu ezaina gaitic; escatuten deutsut, eztai-dazula iños laquetu, nire pecatuaz Zu alan irandutea: eta Zure Gorputza pecatu mortalean artutea. Amen.

## INTROITOA.

*Sacerdotea doianean Introitoa iracurten, esan gura dau, cela eroan eben Cristo lotsari andijaz esturic Anas, eta Caifasen aurrera.*

## ESAIZU.

O azuri bigun, eta Bildots errubaguea! Irunsi cenduan lotsarija, eta gogortade andija gaitic, ceroazanian loturic soçaz, eta esturic cateaz; erregututen deutsut ebagui daizuzala nire arimaco catea gogor astunac; eta josi naguizula ceure amore eta bildur santuaz igues ez daidan pecatu-bidera. Amen.

## KIRIELEISON.

*Adietan emoten dau, achinaco Santuen deijac Salbatzallearen etorrerea gaitic mundura; Jangoicoaren Ontasun andija pecatarijacaz; eta oneec escatu bear deutsen parcaciñoa.*

## ESAIZU.

Jaùna erruquija nigaz; Cristo erruquija nigaz, eta pecatari guztiacaz. Damudot, Jauna bijotz guztiric zu ofendidu izana ¡O ontasun neurri baguea! ¡O neure Aita biojtzecoa! Indazu Jauna damu benetaco bat, negarrez garbietaco neure arimea, ceure odolaz erosi cenduana.

## GLORIJA.

*Adierazoten dau Angueruac cantatu eutsena Jesucristori, Guizon eguin zalaco gugaiti.*

## ESAIZU.

¡O Jaun andija! ¡Eta ce maite dozuzan

Guizonac! bada eureecaitic jaijo cinian corta humil baten; etzan azca baten; eta egon lasto, eta abereen artean, izanic Ondasun guztien Javea. Urrindu eguizuz, bada nire bijotcetic andigura, vanerija eta lurreco ondasun uts guzurrezcoen gurarija; cantatu daidan Ceruan Angueruacaz batera, glorija baquea, bedeincaciñoa, eta betico pozcaria. Amen.

## DOMINUS VOVISCUM.

*Esan gura dau celan, [Cristoc berba eguiteban guizonacaz; celan lastanduten cituan pecatariric andijenac; eta celan beguiratu eutsan begui erruquitzuaz San Pedrori ucaerazco pecatu Ostean.*

## ESAIZU.

Itzuli, eta biurtu eguizuz, Jauna guganantz begui erruquitsuoc, zabaldu eguizuz ceure besoac laztanduteco pecatarijac; euqui eguizu gure erruquija, jausten bagara argaltasunez gaistaquerien baten, enda Jaola eta Arzain ardurazcoa leguez zaindu eta eztalpetu gaizuz ceure egapean,

Otso infernutarracjan eta iruntsi ezgaizan Amen.

## EPISTOLIA.

*Adierazoten dau Jesucristoc emoneuscun legue burrija; eta San Juan Batistaren Predicaldia.*

## ESAIZU.

Ceimbat, Jauna, zor deutsut, raguitu nozulaco Fede santeaz? Ceimbat, Cristiñau artian sortu, eta aci nozulaco? !O eta ceimbat ichi dozuzan ondaturic fede-baguetasunaco illunza icaragarrijan! Iraun-erazo eidazu Fede Santa onetan erijotzaraño; gorderic ceure Leguia : ceure Apostoluac iracatsi eusteena; eta San Juan Batistiac predicatueustan penitencija, eta negar-bldea, igo daidan egunen baten Ceru ederrera. Amen.

## EVANGELIJUA.

*Adierazoten dau Jesucristoen Predicaldia.*

### ESAIZU.

Jesus eguzqui ederra! bijotz guztirio escatuten deutsut; sendotu daizuzala fededunac; arguitu fedebagueac, ezagutu daijentzat guztiac ceure fedea, leguea, Icen, eta Izate miragarrija. Galdu ezbeitez, Jauna, ceure Odolaz erosirico arimac. Nic irmetasun sendoaz sinistuten dodaz Evangelijuac, eta Elexa Ama Santeac iracasten deustazan eguija, eta sinisguei guztiac: Ez arren Jauna ucatu nire arimeari doctrina, argui, eta janari beartsu au: eta lagun zaquidaz, gorde, eta bete daidazan Evangelijuan ichi ceuscuzan andi-bide artezac. Amen.

## CREDOA.

*Daracuzcaz fedeco sinisgueijac.*

### ESAIZU.

Sinisetan dodaz, Jauna, Credoan barrututen dirian eguija guztiac; eta gura neuque mundutar guztiac sinistu eizela. Sinisitan dot Jangoico bacar bategan; eta Irutasun Santea iru Persona banatan. Sinisetan dot Jesucristo-gan; jaijo-zala Ama Virginia-ganic; eta illtzala, pecatarijac salvetarren. Sinisetandot Elexa Santeagan, eta berari aguertu deutsezuzan eguija guztietan. Sinismen onegaz vici, eta ill gurot: bere antcera bicico nas aurrerantzean; eta bere defensan, orra emen, non prest nagoan galduteco neure vicitzea. *Esazu* Credoa.

## OFERTORIOA.

*Adierazoten dau, celan bere borondatez, eta gurariz opa-zan Jesucristo Erijotzara, ceinen gomutean opadau Mez-Emolleac ogui, eta ardaoa bere icencan eta fededun guztienean.*

## ESAIZU.

Aita Jangoico Cerucoa! Ceure Seme maitearen Sacrificijo valijo andico au opa deutsut, Mez- Emolleaz batera, Ceure glorija andieneraco: ñic, eta mundu guztiac zor deutsugun guztiari eranzuteco: eta Purgatorijoco lexibi gorijetan datzazan Arima erruquia-caitic. O noc lituquezan guztien bijotzac, guztiacaz Meza Santau Ceuri esquiñiteco! Beguira, Jauna, Ceure Semeac gugaitic igaro-eban Erijotzeari: aztu eguizuz gure pecatuac; eta galdu ezbeitez aimbeste costa ciñian arimac. Amen.

## OSTIJA, ETA CALIZA OPA IZATEAÑ.

*Eracusten dau celan Jesucristoc opa eituan bere Aitari bere Pasiñoco azote, coroi, lotsari, eta gogortadeac.*

### ESAIZU.

O Aita beticoa! Beguira ceure Seme maitea bost milla azoteaz zatituric; aranzaz coroituric; iraindurio, eta óstico-petu**ric; guztiau opadeutsu nire pecatu, eta mundu guzticoa-caitic. Indazu escua; eroan daidazan paciencija, eta umiltasunaz negarrezco erbezte onetaco nequeac, irainac, garratz-miñ, eta guissotasunac; vici nadin orain ceure Semearen irudi, eta antzera; eta guero igo daidan bere betico laguntza gozora. Amen.

## LAVATORIJO EDO, GARBIQUEREA.

*Gomuterazoten dau, celan, Cristo gueure Jaunac garbitu cituan bere Icasleen oñac: celan, Pilatosec garbitu cituan bere escuac, adietan emoteco Cristoen erru-baguetasuna; eta ce bijotz garbijaz maitatu bear garean Comulguetara guazanean.*

## ESAIZU.

Garbitu eguizuz, Jauna, nire arimaco orban, eta joi atsituac: osatu nire zauri, eta llaga ustelac: eta edertu naguizu gracijasco apainduracaz eta ceure bularretic urten-eban odol, eta ura gaz; garbituric gorpuz, eta ariman, izan nadin ceure jar-lecu, eta vicilecu beticoa. Amen.

## ORATE FRATRES.

*Iruditutendau, celan Pilatosec eracutsi eta ateraeban guztien aurrera Jesucristo soñeco gorrizoro bateaz janciric: eta Mez-emolleac escatuten deuscu, lagundu daiogula gueure escaria, eta erreguacaz Mezeac irauen artean.*

## ESAIZU.

Esque gagotzuz, Jauna aditu daiozula

begui erruquijozuaz, Mezemolle onec emoten doian Meza, eta Sacrificijo adoragarri oni : ondo ensunac izanditezela bere escariac, gureacaz batera, ceure glorija andijeneraco, eta Elex seme guztien oneraco. Amen.

## PREFACIOA.

*Adierazoten dau celan Jesucristori iracurri eutsen Erijotzaco Sentencija gogorra.*

## ESAIZU.

¡O Bildotz erru-baguea! ¡O vicien, eta illen Jueza! Eta bada, ni ateratarren infernuco erijotza icaragarritic, gura-izan cenduan egon errudun gaisto oquer bat leguez Juezaren aurrean, esturic socaz, ezainduric azoteacaz, lotsaturic matrallaco gogorracaz, enzuten cenduala umiltasun andiaz nic merecietan nenduan erijotzaco Sentencija; escatuten deutsut maitetasun andi onegaiti, libradu, eta atera naiguzula nire pecatuai zor jaquen erijotza Infernucotic, Amen.

## SANCTUS.

*Gomuterazoten dituz, Anguerú, eta Limboco Aita Santuac, esan cituezan canta soñu gozoac Jesucristori, eldu-zalaco eurac zorijonduteco demporea; eta Jerusalengo zartzaeran esan eutseezan alabanza eta poscariac.*

## ESAIZU.

Anguerú, eta santuacaz baturic, nic bere esangot: Santu, alabatua, bedeincatua, eta miragarrija da gueure Jangoicua andija. Cerutarrac; guizonac, egazti, eta criatura guztiac bedeincazaizala Jaun andija; gauza guztien jabea; ceru, eta lurraren eguille eta Gordetzallia. Onetaraco, Jauna, opa deutsut Meza santuai cristiñau Elex guztietan esango dirianac; eta mundua danic ona Anguerú, eta guizonac opa izan deutsuezan alabanza guztiac; eta eurecaz batean opa deutsut neure vijotza, eta nire miña, ceiñen onic aurrera esango eztituz ezpada ceure alabanza, eta miragarijac.

*Urrengo alabanza Jangoicuari emoten jacan bacochean, irabazten dira eun eguneco Indulgenciac: Domequetan, irureun; eta ille bacochean, Indulgencia Plenaria, edo osoa, confesatu, comulgaturic.*

Ex Corces. Clement. xiv 6 Jun. 1769.

Santua, santua, santua, Egerzituen Jaun, eta Jangoicoa: ceure Glorijaz beteric dagoz Cerua, eta lurra. Vici bedi gueure Jangoico andija. Glorija Aiteari Glorija Semeari, Glorija Espiritu Santuari. *Ostean Aita gurea, Ave Mariaz Elexa Ama Santea gaitic.*

## OSTIA EREGUITEAN.

*Adierazoten dau, celan jaso-eben Jesucristo Crutzean josiric.*

## ESAIZU.

Adoretan zaitud Jesus neure Jauna Ostija santa orretan: adoretan dot fede viciaz gorpuz Sagraduori, cein ill zan Crutzean nigaitic; eta oraiu barriztetan dozu

orduco Sacrificijo balijo andicoa. Ceure Ama maite, Angueru, eta Santu guztiac bedeinca-zaijezala betiraun guztiac. Bijotz guztiaz sinistuten dot, Zu, neure Salvatza-llea, eguijaz orche zagozala. Damu-dot Zu ofendidua: Opa nachazu nasan guztiau: maite zaitut gauza guztien ganean. Erruquija jauna, nigaz, eta pecatari guztiacaz.

## CALIZA GORATUTEAN.

*Adietanemoten dau, Jesucristoen gorputzetic urten eben odolezco iturriac, gu garbietaco.*

## ESAIZU.

Adoretan zaitut neure Jesusaren Odol balijotsua, nire amorez Crutzean emona; erosteco arimac, zorijonduteco pecatarijac; onduteco guizonac; eta salvetaco guztiac. Bijotz guztiaz sinisetan dot, ZU or zaozala. Odol balijo andico onetan ichadoten dot, eta bere bitartez ustedot, garbituco diriala, nire ariman pecatuac ichi deusten loitazuna. Erruquija, Jauna nigaz. Maite zaitut gauza guztien ganean. ¡O Odol estimagarrija!

## CONSAGRACINO OSTEAN.

¡O Neure Jangoicoa! Beguira Altara orretan ceure Seme maitea: Au berau biurtu eta opa deutsut Elexa santa Erri Cristiñau, eta pecatari guztien icenean. Berau da Ostija garbija, Ostija Santea, Ostija miragarrija. Berau da asco, garbietaco gueure arimac, ordetuteco gueure zorrac eta quituteco. Ceure escu presturic artuteric doguzan ezquer-mesede neu-rri bagueac. Beguira bada Aita, erruquiorra, Ceure bijotzeco, Seme maite on, eta gu gaitic igaro evan bicitza aricatu, eta erijotza garratzari.

## MEMENTO EDO GOMUTEAC.

*Adierazoten dau, Cristoc Crutzean josiric eguin eban oraciño, eta escaria bere arerijo, eta pecatariacaitic Emen erregatuten da illac gaitic.*

## ESAIZU.

Jaun erruquiorra! parquesca nagotzu neure perseguilla, gaisquin, eta arerijo guztiacaiti: ezque nagotzu, euqui daizula

Purgatorijoco Arima Santen erruquija: Eurecaitic opa-deutsut, Ceure Semeac Crutzian igaro-evan guztia, gugaitic eguin eutsuzan escariac; eta Meza onetan barruratuten dirian mirari eta ondasun ugarijac.

## NOBIS QUOQUE PECATORIBUS

*Gomuterazeten deuscu, Lapur onac eucan damu, eta bijotz-miñ eguijazcoa; etaira-baci evan parcaciñoia.*

## ESAIZU.

Eta bada, Jauna, parcatuceuntsan ceure Crutce alboan illtzan Lapur damutuari, eta beste pecatari andi ascori uste dot beste oneu beste eguingozula nigaz, neure deungaro eguineen dámuaz banator Ceugana; eta ari leguez lagunduco deustazula erijotzaco ordu larrijan. Orain ganic, Jauna ondu eta obetu gurot, Damudot Zu ofendidua O iñosco alditan pecatu eguin ezpaneu! O urtu albaneiz neure beguijetaco negarracaz! Misericordija, Jauna! Erruquia nigaz.

## PATER NOSTER EDO AITA GUREA.

*Adierazoten dituz, Cristoc illte aurrean Crutcetic esan cituan zazpi berba mirariz beteac; eta bere Ama maite, eta Andra Santac eguin eben Oraciñoa Cristoen Erijotzan.*

*Esazuz mez-emolleaz batera Aita gureco zazpi escariac, escaturic ceugaiti eta ceure arerijo guztia caitic.*

Ostija zatituteac, esan gura dau, celan zatitu, eta ebagui cituezan Jesucristoen aragui guztijac; gauza osoric ichi baga buru ganetic, oñazpira.

Calizan ezarten dan zati chiqueac, adietan emoten deuscu Jesucristoen jatsierea Limbora, zorijonduten, toqui atan egozan Aita Santuac.

Pax Domini : gomuterazoten deuzcuz, berac eguin cituzan baqueac Jangoico aserratu; eta guizonen artean.

### AGNUS DEI.

*Daracuscu, celan pecatari asco jatsicirian calvarijotic, negarrez euren peca-*

*tuac, damuturic, onduric, urratuten cituezala ucabillaz euren bularrac: euren antcera guc bere eguin beogu.*

ESAIZU.

Jangoicoaen bildotza munduco pecatuac quentzen dozuzana erruquija gugaz *iru bider.* ¡Jangoicoaen Seme maitea! ez arren beguiratu gure pecatuai, ezpada ceure ontasun andijari. Galduac gara betico, aztuten ezpozuz gure gaistaquerijac Gomutezaite, guri asco gureac igaroeraso eutsun vicitza, Erijotza garratzaren: gorde gaguizuz ondamendi, eta galbidetaric; eta gorputz, eta arimaco gach, eta guertaera charretaric; baquetu, eta bildu-gaguizuz ceure Aita aserratuaz. Bai arren Bildots erru baguea. ¡Azuri inocentea! Jaun erruquiorra!

DOMINE NON SUM DIGNUS.

ESAIZU.

Jauna! ez naz ni diña nire echean sarzaitecen baña berba bat esazu, eta garbituco da nire arimea *Iru bider esan au;*

*eta ẽnqui gurari vici erexeguin bat Cristoen Gorputza ceure vijotcean artuteco; ceiñi derichon arimazco Comuniñoia; baña onetaraco aurquitu-bear zara pecatu mortal, edo erijozco baga.*

## COMUNINOIA.

*Esan-gura-dau celan Cristoen gorputz illa sartu-eben sepulturan.*

## ESAIZU.

Erdu, Jauna, nire vijotcera, jabetuzaite nigaz zorijondu, eta aberastu eguizu nire arimea, zu laco Jaun andija nigan sartu dedin. O Jauna! Nor zara zu, eta nor nas ni! O noc leuquean ceure amaren garbitasuna, neure barruan zuri ostatu emoteco! Bazaut, Jauna, neure ecerbereza: bacust enasala, ezpada lurreco ar zantar billau, prestuez bat: baña ceugan dagoz ondasun guztiac eta alan aberastu naguizu ceruzco ondasunaz: ceuretu-naguizu zurea guztiau izan nadin; zu beti nigaz lurrean egonic zu ceruan betico gozetaco. Amen.

MISALA *igarotea bateric bestera, esangura dau; munduaren azquenean igaro, eta biurtuco diriala gure fede santara Judegu, Herege fede-bague guztiac.*

DOMINUS VOBISCUM: *Jesucristo biztu esquero, aguertu zala, bere Apostolu, eta andra santai.*

*Guerorengo* ORACINOAC, *bere Icasleai eta Sacerdoteai emon eutsen escu-bidea pecatu guztiac parquetaco, eta bere fedea mundu guztian zabalduteco.*

*Azquenengo* BEDEINCACINOAC *adierazoten dau, Cristoen Igoera Ceruetara: espiritu Santuaren Etorrerea; eta Juicijoco eguneàn Onai ezarrico deutsen Bendiciñoa.*

## OSTERENGO EVANGELIOA

*Adierazoten dau, celan igoric Jesucristo cerura, asi cirian Apostoluac zabalduten munduco Erri guztietan Evangelijo Santuco Eguijac.*

## ESAIZU.

Ceruetaco Aita maitea; Jangoico bacarra; gauza guztien eguillea! Nic becatari andi onec Elexa Ama Santeaz batera opa deutsut Meza santa onetan esquini-jatzun Sacrificijo venera garri au. Berean barriztatu dira Ceure Seme bijotzecoaren Vicitza, Pasiño, eta erijotzea. Beguira, Jauna, Meza onetan eguindanari; eta artu eizuz, berean eguin deutsuezan escariac ceure Seme maiteac, enzulac, eta Elex guztiac gueure pecatuen orderaco. Purgatorijoco, Arimen quitugarrizat. Ondu-eguizuz pecatariac; arguitu fedebagueac; sendotu cristiñauac : zaindu Elexea; eta ex eiguzu ucatu ceure Semearen gorputza erijotzaco orduan igoteco, bera icusten ceruco Glorijara. Amen.

## JESUCRISTO GUBURE JAUÑAEN

*dolorezco pausábac Calbarijoco mendira.*

Belaunico soseguz, eta debociñoe andijagaz ceñatu, eta acto contricinoecua esan

ezquero batec guztijen icenian ofrecimentuba eguingo dau.

## OFRECIMENTUBA.

O Neure Jaun, eta Jangoico guztiz misericordioso, eta ona! Belaunico ceure aurrian, aldaguidan erreberencija, eta umildadiagaz echunic, ofrecietan deutsudaz, Calbarijoco bide Santu onetan eguitera guazan pausubac eta egercicijo Santu onetan dagozan Gracija, eta indulgencija guztijac, Aita Santubac gura daven leguez, irabazteco, arren indazu ceure gracija; izandein guztija ceure glorija gueijagoraco, neure pecatuben parcaciñoeraco, eta guren dozuzan purgatorijoco Arimen socorruraco, Amen.

## LENENGO ESTACIÑOIA.

Gura bozu idigi
Ceruco atia :
Crutce Santuba da
Ango guilcia.
Cerūraco bidia
Guradozu icasi:
Cristoen pausubai
Jarraitu beti.

*Erijotzaco sentencija Jesucristori emon eutsen lecuba.*



Sentencijau dave
Jesus maitia
Crutcian iltera
O ce penia!

Pensau eguizu neure Arimia, celan Jesus gueure Erredentoria baricu santu goxian bost milla azote, eta gueijago, aran-

zazco coroia, eta beste tormentu ascoez ganeti, Grutcian, eta lapur bijen erdijan iltera, Pilatosec condenau evan.

ORACIÑOIA.

O neure Jesus erredentore Maitia! Azote, aranza, eta lotsaz beteric, aiñ ixilic, eta aiñ umilduric ceure erijotzaco sentencija gure pecatubac gaiti artu cendubana! Ceure bijotceco amore, eta umildade andi onegaiti, arren Jauna emoneguidazu gracija, eguijazco penitencijagaz neure pecatuben catietaric libretaco, guero ceure tribunal justuban neure favoreco sentencija enzun daguidan. Amen.

Paternosterra, eta Ave Marija, eta Glorija. Guztija Aita Santubaen intenciñoia gaiti eta guero esaten da.

Misericordija Jauna pecatari onegaz: damudot, Jauna bijotz guztiric, ceu aiñbeste bidar ofendiduba. Alabaduba, eta bedeñcatuba izan della Jesucristo gueure Jaunaen Pasiñoe Santuba, eta Ama Virgina Santisimiaen Concecciñoe garbija. Amen eta onen beste Estaciñoetan bere.

BIGARREN ESTACIÑOIA.

*Jesucristori Crutcia imini eutsen lecuba.*



Orañ arcen dituz
Crutce batian
Gure pecatubac
Bere ganian.

Pensau eguizu cristiñauba; celan Jesus inocentiari burlaz janci eutsen soñeco zarra coroiagaz batera tiraca quendu eutsen, eta guero bere soñecua janci eta coroia barriro tormentu, eta pena gogorragaz bere buruban sartu eutsen, eta borreru guesto aec Crutce astuna bere lepuan imini eutsen.

ORACIÑOIA.

O neure Jesus Bildots mansua, Isac justuac baño obeto, ceure sacrificijoraco egur-

ra, Ceure Aitaen obedencija, eta guri ceuscun amoria gaiti, ceure lepuan ńequez eruan cendubana! Ceure amore andi onegaiti, arren indazu gracija, neure erabagaco pensamentu, berba, eta obra guztijac, ceuri sugetadu, eta neure pecatubai ondoen jagocan ponitencijagaz Crutcia beti ceure atcian gogoz eruan, eta mundu onetaco pena eta nequiac paciencijan igaruagaz, ceure Coroia irabaci daguidan. Amen.

*Paternoster eta Ave Marija.*

IRUGARREN ESTACIÑOIA.

*Crutciagaz Jesucristo lenengo jausizan lecuba.*



Emen jausizan
Jesus lurrera,
Lurra jasoteco
Bere aurrera.

Pensau eguizu Cristiñauba celan Jesus

chito neques, maitia entero nequez, eta oñen gañian ecin egonic, Crutciaen carguiagaz lurrera jausizan. Beguira celan judegubac jaguiten lagundu biarrian, osticoca, golpeca, eta arrastaca erabillela, nequez eregui even.

ORACIÑOIA.

O neure Jesus guztiz poderosua eta gueure amorez onelan argalduba eta lurra jo arteraguiño Crutce pian macurtuba! Ceure amore, eta fin bagaco paciencija andi onegaiti, arren ecazu ceure escuba, neure pecatu astunen azpiric, eguijazco penitencijagaz ceugana jaguiteco, eta ceure Crutciaen atcianmunduco neque, eta doloretan pocic ibilita, ceure arpegui ederra Ceruban betico icusteco. Amen.

*Paternosterra eta Ave Marija.*

## LAUGARREN ESTACIÑOIA.

*Jesusec bere Ama Santisimia aurquitu evan lecuba.*

Noc esan leique
Amaen penia
Onelan icusita
Bere Semia.

Pensau eguizu, Cristiñauba, celan Calbarijoco bide onetan Jesus onac bere Ama maitia, pena eta negarrezco ichasobat eguiñic topau evan! Beguira ondo, begui amorosuacaz alcar icusi eta celan bijotz bijac bata besteari berba eguin eutsen, eta bijotz laztan, penaz beterico bijac celan estutuco cirian.

### ORACIÑOIA.

O Amaric maitena! dolorez eta penaz betia! Ce ezpata zorrotzaz ceure arimia

josico evan, ceure bijotceco Seme maitia, eta Angueruben edertasuna, alan icusi cendubanian, Buruba arantzaz josiric, arpegui ederra chistuz; odolez, eta autsez ezañduric, eta Crutce astun bat bere lepuan evala; golpeca, arrastaca, eta bulzaca eroela. O ama triste, eta afligidia! Arren indazu ceure Semiaen, eta ceure pena andi orren erruquija, neure pecatu guztijen parcaciñoia eta ceuben bijoen amoria betico alcanzau daguidan. Amen. Patern. eta Ave Marija.

BOSTGARREN ESTACIÑOIA.

*Jesus maitiari Crutcia eruaten lagunduteco Simon Cirineo artu even lecuba.*



Crutcia eruaten
Naidozu lagundu :
Bada emen nai dave
Lagun bat artu.

Pensau eguizu Cristiñauba, celan negar-

rezco bide onetan Jesus aiñ arga,; eta nequez joian : eta borreru guesto aec Crutciaen pisubagaz icara, eta jaustecozorijan icusì ebenian. Simon erichon guizon bat, Jaunari lagunduteco artu eben; baña ez bere erruquiz, ezpada Crutcian illten icusi gura ebelaco.

ORACIÑOIA.

O neure Salvadore maitia! munduco pecatuben carga andija ceure ganian artu gura izan cendubana, gueure arimén billa nequez bide onetan ibili ciñiana : eta Simon dichosuari leguez Calbarijoco bidian ceuri jarraituten, eta laguntuten iracatsi ceuscuna! Emoeguiguzu arren Jauna, ceure pasiñoeco paciencija: gueure pecatuben damu eguijazcua, eta ceure penen erruqui andibat, Crutzia eruaten orañ ceuri lagundu, eta orren frutuba gozau daigun, ceu betico glorijan alabetaco. Amen. Patern. eta Ave Marija.

SEIGARREN ESTACIÑOIA.

*Veronica erichan andra piadosa batec Jesucristori bere arpeguija garbitu eutsan lecuba.*



Arpeguico ieerdi,
Eta odoletan
Zapi bat bustidau
Iru dobletan

Pensau eguizu Cristiñauba, celan Jaunaen arpeguija chiztuz, autsez, eta odolez beteric Veronica Santiac icusi eta iru dobleco zapi garbi bat artu evan, eta gente guztijen arteti sartu eta arpegui diviñua garbitu eutsan; eta iru toleeetan bere arpeguija eztampauric, caridade onen ordez, ichi eutsan.

ORACIÑOIA.

O neure Jesus edertasun eguijazcuen

ispillu edérra! Ceimbat neure pecatubac gaiti ezañago, aimbat guretzat maitiago! Bardin gueure pecatubac olan ezañdu bazaitubez, onen damu eguijazcua izan biar dau zapi garbija Ceure odolezco icerdi, eta loijac quenduteco. Emon eiguzu, Jauna ceure gracija, bijotceco negarracaz gueure arimac garbituta, ceure imagina bici bat gueure ariman jositeco, eta Ceruban ceure arpegui ederra beti icusteco. Amen. Patern. eta Ave Marija.

### ZAZPIGARREN ESTACIÑOIA.

*Jesucristo bigarrenez jausizan locuba.*



Bigarren aldian
Emen da jausi,
Eta zu etzara
Contura etorri.

Pensau eguizu Cristiñauba, celan Jesus

gueure Jauna Crutciaen pisubagaz bere lepua eriduta, guztija argalduric, bigarrenez lurra jo evan. Beguira celan borreru amurratubac tiraca, eta golpecajaso even.

## ORACIÑOIA.

O neure Jesus misericordijoso, eta guztiz ona, mundubaen jave bacarra; errico desonria baciña leguez, Jerusalendi campora atera, eta bota cendubezan, eta orregaiti bere, erri zoriguestuco onegaz erruquitu ciñian. Arren Jauna ceure piedadiagaz neure arimiari beguiratu eguijozu, eta Crutcia eruaten nic pocic lagunduco deutsut: eta gure culpa, eta pecatubac gaiti erriric bota bazaitube bere, guc gueure bijotcetan artuco zaitugu, ceugaz beti bici izateco, Amen. Patern. eta Ave Marija.

## ZORTCIGARREN ESTACIÑOIA.

*Jerusalengo Andrai Jesucristoc berba eguin eutsen lecuba.*



Pecatuba gaiti
Negar eguizu
Bada neure penac
Orrec emon ditu

Pensau eguizu Cristiñauba, celan Jesus piadosua, bere desonra, pena eta neque guztijen artian lapur infame baten modubau bajoian bere, Andra erruquior, lastimaz, eta negarrez bere atcian juazanai esan eutsen: Jerusalengo Alabac, ez nigaiti negar eguin, ezpada ceuben burubac gaiti, bada orren ganera gach andijac eitorri biar dave.

### ORACIÑOIA

O neure Jesus, Arzaiñ ona leguez gueu-

re arimen billa ibilli ciniana! Calbarijoco bide gogor onetan, eta ceure neque, eta penen artian bere, Andra erruquior, eta piadosa arei, eta aetan gure pecatubac gaiti biardan leguez negar eguiten iracatsi ceuscun. Arren Jauna, argui bicibat iguzu, ardi onac leguez, ceure dei amorosua enzun, eta Ceuri arzaiñ onari leguez zucen beti jarraituteco, eta gueure bijotceco negarracaz orañ ceuri lagundu, eta guero gueure salbaciñoeco deija ceure ao gozoric betico enzun daigun. Amen. Patern, eta Ave Marija.

BEDERATCIGARREN ESTACIÑOIA.

*Irugarrenez Jesucristo jausizan lecuba.*



O peçatubaen
Gauza astuna!
Irugarrenian
Jo dau emen lurra.

Pensau eguizu Cristiñauba, celan aldat-

zaen igoeran indarrac ichita: Jesus maitia irugarren aldiz jausi zan, eta bere arpegui ederra autsez bete evan: jagui gura, baña ecin jaguizan, eta arerijo gogorrac, osticoca, tiraca, eta deadarrez esaten eutsen. Ea jagui laster Crutcian ill biardozu: an ilic icusi gura zaitugu.

ORACIÑOIA.

O neure Jesus Ceruco Maisu amorosua! O celan ceure Crutcia, eta munduco enquiac guztoz eruatera animetan gozuzaan! Ay Jauna! Neure pecatubac dira, Zu bulzaca, eta golpeca lurrera, irugarren aldiz, bota zaitubezanac! Arren emon eguiguzu ceure gracija gueure pecatuben penitencija eguijazeua eguin daigun, eta Crutceco penac, gueure culpen ordia leguez, artu daiguzan: ceure odolagaz, eta amore parebacuagaz gozatu, eta betico zorijona Ceruban aurquitu daigun. Amen. Patern. eta Ave Marija.

*Jesucristori soñecuac quendu eutsezan lecuba.*



Ona nun daucuzun
Jesus billosic,
Burutic biatcera
Zauriz beteric.

Pensau eguizu, Cristiñauba borreru amurratu aec, erruqui baga, Jangoicuaen Semiari bere soñecuac lotsari andijagaz quendu ezquero, biaztunagaz nastaurico ardaua edaten emon eutsen. O celan emen burlaz, eta barrez desonrau even!

ORACIÑOIA.

O neure Jesus paciencija miragarrijaen ispilluba! Ce pena, eta atsacaba andija ceure bijotzac artuco evan mundubaen begui-

jetan ceure soñecuac quendu, llaga sagradubac barriztu, eta lotsari, andija beaztuna edatenemon eutsebenian. Arren Jauna, emon eiguzu indarra gueure pecatu, eta pasiñoen soñeco zarra quenduteco, eta ceure amorezco soñeco barrija janciteco; eta emeco atseguin falso beaztunez betericuac ichita, eguijazco ceure atseguinac Ceruban aurquituteco. Amen. Patern. eta Ave Marija.

### AMAICAGARREN ESTACIÑOIA.

*Jangoicuaen Semta Crutcian josi even lecuba.*



Oñac, eta escubac
Unteez josiric,
Emen dago Cristo
Penaz beteric.

Pensau eguizu, Cristiñauba, celan Jesus

bildots mansua, aiñ isilic gueure pecatubac gaiti, Crutciaen gañian ezarrita, tiraca bere zanac urratubaz, untce gogorracaz josi even, eta aec oquertuteco Jaun dibinuaen ganian jarri eta, golpe Lacochian, Ama Virgiña Santisimiaen bijotz amorosua, Semiagaz batera, igaro, eta urratuten even.

ORACIÑOIA.

O neure Jesus pecatubac quenduten dozuzan bildots inocente eta mansua! Ay, eta ce amorezco carobi irisiguija ceure bijotza orduban ogongozan! Bada añ umilduric, eta añ pocic ceure escu eta oin sagradubac, Crutcian josteco, emon cenduzan! ceure amore eta paciencija andi onegaiti, emon eiguzu Jauna, gracija; gueure escu eta oiñac pecatuben catiac urratu eta ceure bildurtasun santuban ceure amorezco unteiacaz josi daiguzan, eta ceugaz beti Ceruban vici gaitezan. Amen. Patern. eta Ave Marija.

*Jesus gueure vicitzia Grutcian illzan lecuba.*



Emen Jesus ill zán
Guizona gaiti
Acordau zaitez
Orain, da beti

Pensau eguizu cristiñauba, celan Jangoico, eta Guizon eguijazco gueure Jesus maitia crutcian josi, eta jaso even; eta Crutcia asentetaco, bere zanac, eten, eta mendi santu atan gueure Salvadoria aidian aguertu zan. Beguira lapur bijen erdijan, ce tormentu, eta burlen artian ill zan.

ORACIÑOIA.

O neure Jesus Ama Virgiña Santisimiaen sabel Virginaleco frutu bedeinca-

tuba: eta oraiñ gure pecatubac gaiti madaricatuba leguez, Crutceco arbola santuban egon ciñian! Gueure parcaciñoeco eguna au da : eta ori ceure tormentu, llaga, eta penac : ori Ceure bijotceco negar, eta deadarrac Aita Eternuari escatuten deutsé. Alan izan bedi, Jauna eta gueure pecatu guztijac penitencija eguijazcuagaz deseguin, urtu, eta ill bediz: guero betico ceugaz bici gaitezan. Amen. Patern. eta Ave Marija.

### AMAIRUGARREN ESTACIÑOIA.

*Gorputz Santuba Crutceric eretsi eta Ama Virginiari emon eutsen lecuba.*



Crutce ganeti
Bere Ama gana:
Emen eresten da
Jesus laztana.

Pensau eguizu, Cristiñauba, celan Jau-

naen doloriac erijotciagaz acabau cirian, eta Ama maitienac dirauben. Gorputz illaen bularra lanciagaz igaro even, eta Amaen arimia josi even: Josef, eta Nicodemus Santubac Crutceric eretsi even, eta bere Amari alzuan imini eutsen: O ce penac, ce negarrac Ama dolorosa onenac!

### ORACIÑOIA.

O neure Ama maite penasco ichaso ondo baguia! Noc esan lei ceure ariman cer igaro zan, ceure bijotceco Semia illic ceure besuetan artu cendubanian! Bere buruba arantzaz, escu, eta oñac untze zorrotcez, eta bere bijotza lanza crubelagaz edegui eta icusi cendubanian; ce pena, tormentu, eta doloriac artuco ete cenduzan. Gueure amaric maiteena eta penaz beteena! Arren emoneiguzu ceure pena, eta trabaju andijan erruqui eguijazcobat, gure pecatu guztijac, bijotceco damu bibicijagaz, garbitu daiguzan, eta guero Ceruban Ceugaz betico bici gai tezan. Amen. Patern. eta Ave Marija.

## AMALAUGARREN ESTACIÑOIA.

*Sepultura barri baten Jesusaen gorputza sartu even lecuba.*



Enterradu gura dau
Ceure bijotcian
Jesus illac betico
Zu bici zaitian.

Pensau eguizu, cristiñauba, dolorezco Amaen besuetaric nequez gorputz Santuba Josef eta Nicodemusec artu, eta izara barri bategaz vestidu even: eta ungidu ezquero arrizco Sepultura barri baten deciño andijagaz imini even. Pausu triste onctan ay Ama Virgina Santisimiac, ce dolore, eta ce negar miñac eucazan!

### ORACIÑOA.

O Martiri guztijen Erreguiña! penaz eta

dolorezco pausu negargarrizco onetan icusiric ceure bijotceco Seme Jesus enterretan, igaro cenduban anguztija, dolore eta martirijo parebaco onegaiti, arren ceure escuba emon iguzu, ta bai dicharic andijena ceñ dan soledade, eta bacartazun triste onetan ceuri lagundutia, gueure pecatuben penitencijagaz, munduco gauza guztijai ichi eta ceure Seme Jesus beti Ceruban amadu eta gozau daigun, Amen. Paternosterra eta Ave Marija Gloria Patri.

## AMA VIRGINIAEN EROSARIJO

### Santuba biar dan debociñoiagaz errecetaco moduba.

*Ama Virginiagaz berba eguiten asteco sosiguz; eta ondo Ceñatu, eta Neure Jesucristo Jauna &c. bijotceti esan, eta guero Elexiac latinez diñuana: Domine, labia mea, &c. batec bacarric asico dau onelan.*

℣ Idiguico dituzu, Jauna neure ezpanac.
℟ Eta neure auac esango dituz zure alabanzac.

℣ Beguira zaite, Jauna neure socorrura.

℟ Eta erdu laster niri lagundutera.

℣ Glorija Aitari, eta Semiari, eta Espiritu Santubari.

℟ Asieran zan leguez, secula guztijetan, orain, eta beti. Amen.

# ASTELEN, ETA EGUBENETACO,

BOST MISTERIJO GOZOSUAC.

## LENENGO MISTERIJUA.

### JANGOICUAEN SEMIAEN ENCARNACIÑOIA.

### OFRECIMENTUBA.

O Virgina Marija, Jangoicuaen Aña miragarrija, eta gure Erreguiña: Amar Ave Marija onec, eta Paternoster au izan bitez zure bijotzac artu eban atseguinen erreberencijan, araco San Gabriel Anguerubac barri onac ecarri, eta Aita Eternuac bere Alabatzat, Semiac Amatzat, eta Espiritu Santubac Esposatzat artu cendubezanian. Jangoicua zure Sabelian guizon eguindaco misterijoric miragarrijen onegaiti; arren alcanzau eiguzu gueure bijotcetaco umildade ceuriaen antceco bat, eta gueure pecatuben damubagaz penitencija eguiteco arguija: Princiqe Catolicuen, eta onen Erreñubetaco baquia, eta Jangoicua serbietaco osasuna, eta gracija Amen: Paeernosterra, eta Amar Ave Marija, esaten da misterijo bacochean.

## BIGARREN MISTERIJUA.

*Ama Virginiac Santa Isabeli eguin eutsan Visitia.*

### OFRECIMENTUBA,

O Virgina Marija Jangoicuaen Ama eta Virtute guztijen jabia! Amar Ave Marija onec eta Paternoster au izan bitez zure bijotzac artu eban atseguinen erreberencijan, araco Jangoicua ceure Sabelian sortu ezquero Caridade bicijagaz ceure lengusiña Santa Isabel icustera juan ciñianian, Ceruco ondasunez bera beetetara, eta San Juan amaen Sabelian Santifiquetara. Ceuben bijoen artian, eta ceuben seme bijeen artian orduban igaro cirian Misterijo ezcutubac ezagututeco, eta gure arimaac penitencijagaz Satifiquetaco biardan guztija alcanzau eiguzu, eta Principe Catolicuen, eta onén Erreñubetaco baquia, eta Jangoicua serbietaco osasuna, eta gracija Amen.

## IRUGARREN MISTERIJUA.

*Jangoicuaen semíaen Jaíjotcía.*

### OFRECIMENTUBA.

O Virgina Marija Jangoicuaen Ama, eta ondasun guztijen Iturrija! Amar Ave Marija oneec, eta Paternoster au izan bitez, araco Jesus ceure Sabeleco frutuba mundubari emon, eta jaijo, eta oijal pobre garbijetan batu, eta abereen asca baten eratzo cendubanian, ceure bijotzac artu eban atseguinen erreverencijan. Ceure Seme, eta gueure Jaun onen jaijoquera santuba gaitigueure arimetaco garbitasuna alcanzau eguizu, bere amodijuan barriro jaijo gaitian, eta Principe Catolicuen, eta onen erreñubetaco baquia, eta Jangoicuā serviecaco osasuna, eta gracija. Amen.

chunerano cen-
...anian,

# LAUGARREN MISTERIJUA,

*Ama Virginiaen Purificaciñoia, eta Presentaciñoia.*

## OFRECIMENTUBA.

O Virgina Marija Jangoicuaen Ama, eta garbitasun guztijen onci ederra! Amar Ave Marija onec, eta Paternoster au izan bitez, araco ceure Semia besuetan bere jarlecu preciosuenian leguez, gure erremedijoraco templuban ofrecidu cendubanian ceure bijotzac artu eban atseguinen erreberencijan. Misterijo onetaco argui, eta egemplu ederrac gaiti, arren gure Arimaco iluntasuna quendu, eta Jesus gure dicha guztija ezagututeco biardan arguija alcanzau eiguzu, eta Principe Catolicuen, eta onén Erreñubetaco baquia, eta Jangoicua serbietaco osasuna, eta Gracija. Amen.

## BOSTGARREN MISTERIJUA.

*Jesus amabi urtecua galdu, eta Templuban urquitu zanecua.*

## OFRECIMENTUBA.

O Virgina Marija, Jaugoicuaen Ama eta arima galduben Ceruco bide śegurubal Amar Ave marija onec, eta Paternoster au izan bitez, araco Ama maitia leguez ceure Semiaen billa ibili, eta Templuban Ceruco Maisuba leguez lurrecuai iracasten aurquitu cendubanian, ceure bijotzac artu eban atseguinen erreberencijan. Jaun au egunian baño egunian obeto billatuteco, eta Maisu onen dotrinia obeto icasteco, arren bere argui bero bat alcanzau eguizu : Baita gure pecatuben penitencija, edo confesiñoe on bat eguiteco biar dan guztija, eta Principe Catolicuen, eta oneen Erreñubetaco baquia, eta Jangoicua serbidu, eta erijotza onbat eguiteco gracija. Amen.

# MARTITCEN, ETA BARIACUÇO

## MISTERIJO DOLOROSUAC

## LENENGO MISTERIUA.

*Getsemanico örtuban Jesus maitiac eguin evan Oraciñoia.*

### OFRECIMENTUBA.

O Virgina Marija, Jangoicuaen Ama, eta Martiri guztijen erreguiña! Amar Ave Marija onec, eta Paternoster au izan bediz, araco ceure bijotceco Semia erijotza guiñoco anguztijaz estuturic odolezco icerditan deseguiten zan orduban, ceure bijotz maitegarrijac artu eban doloreen errebereñcijan. Ceure Seme Jesus oraciño atan gure pecatubac gaiti erijotzara ofrecidu erazoeban amodijo andijagaiti, arren guere culpen eguijazco damu bat, eta Jaunaen borondatia beti eguiteco indarra alcanzau eiguzu, eta Principe Catolicuen, eta oneen Erreñubetaco baquia, eta Jangoicua serbietaco osaşuna eta gracija. Amen.

## BIGARREN MISTERIJUA.

*Jesus inocentia Coluna bati loturic celan izan zan azotaduba.*

### OFRECIMENTUBA.

O Virgina Marija Jangoicuaen Ama eta paciencijaen Ispillu bicija! Amar Ave Marija onec, eta Paternoster au izan bitez araco ceure Seme ederra bere Soñecuac lotsa andijan quendu, azotez urratu, eta odoletan joianian ceure bijotz amorosuac artu evan dolore andijen erreberencijan. Ceure Semiaen guztico paciencija, eta amore andi onegaiti, arren alcanzau eiguzu gure culpeen soñeco zaar loija quendutecọ, eta onec merecidu daben castiguba eta penac paciencijaz eruateco bijotz umilde bat; eta Principe Catolicuen, eta oneen Erreñubetaco baquia, eta Jangoicua servietaco osasuna eta gracija. Amen.

## IRUGARREN MISTERIJUA.

*Jesus onari arrazasco Coroia josi eutsena.*

### OFRECIMENTUBA.

O Virgina Marija Jangoicuaen Ama eta triste guztijen consubelua! Amar Ave Marija onec, eta Paternoster au izan bediz ceure Seme Jesus guztijen eguijazco Erreguiari bere buru Santuba aranzaz josi eutsenian Zure bijotzac artu eban, ecin esan alaco dolorien erreberencijan. Gure pecatuben erijotzco aranza orreec berari, eta ceuri emon eutsuben tormentu andija gaiti arren alcanzau eiguzu gure culpai darraicazan aranza, eta nequiac ondo eruateco biar dogun paciencija; eta Principe Catolicuen, eta oneen Erreñubetaco baquia, eta Jangoicua serbietaco osasuna eta gracija. Amen.

## LAUGARREN MISTERIJUA

*Jesús bere Crutciagaz Calbarijora eruan ebeenecua.*

### OFRECIMENTUBA.

O Virgina Marija Jangoicuaen Ama eta lurrian bidezco galduben argui ederra! Amar Ave marija onec, eta Paternoster au izan bidez, araco Calbarijoco bidian ceure Semia gure culpeen carga astuna Crutcian eroiala, eta nequiagaz aen azpijan jausten zala icusi cendubanian ceupire bijotz umildiac artu evan pare bagaco dolorien erreberencijan. Jesus maitiac eta ceuc Aita Eternuari euqui ceuntsen obedencija miragarrija gaiti, arren alcanzau eiguzu gure Curutce, eta nequeen artian, aren borondatiari ceuben atcian jarraituteco obedencija umildade bat: eta Principe Catolicuen, eta oneen Erreñubetaco baquia, eta Jangoicua servietaco osasuna eta gracija. Amen.

## BOSTGARREN MISTERIJUA.

*Cetan Jangoicuaen Semia Crutcian josi ebeen.*

### OFRECIMENTUBA.

O Virgina Marija Jangoicuaen Ama eta peneen ondo bagaco ichasua! Amar Ave Marija onec eta Paternoster au izan bitez ceure Sabeleco frutu bedeincatuba gu salbetiarren Curutcian josi, eta odola erijola gu gaiti erregututen, eta illic aen bijotza lanza gogorragaz edeguiten icusi eta ceure bijotzac artu evan dolorien erreberencijan. Ceure Semiaen Curutceco dolore, eta amore guztija gaiti, arren alcanzau eiguzu gueure pasiñoe, eta gogo erabagaco guztijac Curutcian josteco virtutia eta bijotceco damubagaz Confesiñoe on bat eguiteco biardan guztija; Principe Catolicuen, eta oneen Erreñubetaco baquia eta Jangoicua serbidu, eta erijotza on bat eguiteco gracija Amen.

# EGUBAZTEN, ZAPATU, ETA

DOMECACO MISTERIJO GLORIOSUAC.

## LENENGO MISTERIJUA.

JESUCRISTOEN ERRESURRECIÑOIA.

### OFRECIMENTUBA.

O Virgina Marija, Jangoicuen Ama, eta Angueruben Erreguiña! Amar Ave Marija oneec, eta Paternoster au izan bitez araco ceure Semiac erijotzia bencidu, eta glorijagaz beteric Angueru, eta Santuben artian erresucitau, eta ceu icustera, eta iragoco penac bere glorijagaz aztu erazotera etorri zanian ceure bijotzac artu eван Ceruco alegrijen erreberencijan. Gure esperancien glorijagazco Misterijo onegaiti, arren alcanzau eiguzu conciencija justu garbi baten espirituco alegrija, eta Principe Catolicuen, eta oneen Erreñubetaco baquia, eta Jangoicua serbietaco osasuna eta gracija. Amen.

## BIGARREN MISTERIJUA.

*Jesucristoc Cerubetara igo ebaneeua.*

### OFRECIMENTUBA.

O Virgina Marija, Jangoicuaen Ama, eta Ceruco Ate ederra! Amar Ave Marija oneec, eta Paternoster au izan bitez ceure Seme Jauna Magestade guztijagaz jantciric Cerubetara igoten icusi cendubanian Ceure bijotzac artu evan poz andijaen erreberencijan. Jesus maitiac Aita Eternuaen escumatati jarriric daucan poderijo guztijagaiti arren alcanzau eiguzu ceure bitartez gure bijotzac lurreco nequeen artian beragana beti jasoteco gracija, eta ceugaz batian bera icusi, eta adoretaco dichia; eta Principe Catolicuen, eta oncen Erreñubetaco baquia, eta bera serbietaco osasuna, eta gracija, Amen.

## IRUGARREN MISTERIJUA.

*Espiritu Santubaen etorreria.*

### OFRECIMENTUBA.

O Virgina Marija Jangoicuaen Ama, eta gure argui ederraen ama Santisimia! Amar Ave Marija oneec, eta Paternoster au izan bediz, Elexa Santien argui, eta consubeloraco Espiritu Santuba Semiac Aitaganic bialdu, eta zure Arimia beste guztijen ganian, edo guztijac baño gueijago bere Doe ederrez, eta glorijaco ondasunez bete ebanian, zure bijotzac artu evan alegrijen erreberencijan. Arren Espiritu consoladare onen su gar bici bat, ceure bijoteeco onci garbijan leguez, alcanzau eiguzu, bera ezagutu, eta ametaco; eta Principe Catolicuen, eta oneen Erreñubetaco baquia, eta Jangoicua servietaco osasuna, eta gracija. Amen.

## LAUGARREN MISTERIJUÁ.

*Ama Virginia Cerura igo ebanecua.*

### OFREGIMENTUBA.

O Virgina Marija Jangoicuaen Ama, eta pecatarijen amparu Sagraduba. Amar Ave Marija oneec, eta Paternoster au izan bitez, amodijo gozozco ceure erijotza preciosuen, eta biztu eta Glorijaz janciric Ainqueruben erdijan Cerubetara igo cendubaneco glorija pare baguen erreberencijan. Cerubetaco bienaventuradu guztijac orduban artu even atseguin andija gaiti, arren ceure mantupian bici garian pecatarijoi lagun eiguzu gure erijotzaco orduban, ceure escubetan, eta Jaunaen amorian gueure arimac emon, eta ceu icustera betico igo daigun; eta Principe Catolicuen, eta onén Erreñubetaco baquia, eta Jangoicua serbietaco osasuna, eta gracija. Amen.

## BOSTGARREN MISTERIJUA.

*Ama Virgiñiaen Coronaciñoía Trinidade Santisimiac.*

### OFRECIMENTUBA.

O Virgina Marija Jangoicuaen Ama Angueru, eta Santu guztijen coroeric ederrena! Amar Ave Marija oneec eta Paternoster au izan bediz, araco Trinidade Santisimiac glorijaric audijenagaz guztijen Erreguiña, eta Angueru guztijac baño gorago jaso, eta emon eutsen dignidade altubaen erreberencijan. Zuc or goijan daucazuzan Glorijazco onra, eta ondasun guztijac gaiti. Arren alcanzau eiguzu lurreco gauzac oiñ pian ichi eta Cerucuac, ceuc leguez, eta ceu icusi artian billatuteco virtutia, eta Jaunagaz batian, pecatuben eguijazco damubagaz guztijen confesiñoe on bat eguitia: Principe Catolicuen, eta oneen Erreñubetaco baquia, eta Jangoicua serbietacoosasuna, eta gracija. Amen.

# MARIJA SANTISIMIAEN

## LETANIA.

Kyrie eleyson.
Christe eleyson.
Kyrie eleyson.
Christe audi nos.
Christe exaudi nos.
Pater de Cœlis Deus. Miserere nobis.
Filii Redemptor mundi Deus. Miserere nobis
Spiritu Sancte Deus. Miserere nobis.
Sancta Trinitas unus Deus, Miserere nobis.

Sancta Maria,
Sancta Dei Genitrix.
Sancta Virgo Virginum.
Mater Christi.
Mater Divinæ gratiæ.
Mater Purissima,
Mater Castissima.
Mater Inviolata.
Mater Intemerata.

} ORA PRO NOBIS.

Mater Inmaculata.
Mater Amabilis.
Mater Admirabilis.
Mater Boni consilii
Mater Creatoris.
Mater Salvatoris.
Virgo Prudentissima.
Virgo Veneranda.
Virgo Prædicanda.
Virgo Potens.
Virgo Clemens.
Virgo Fidelis.
Speculum Justitiæ.
Sedes Sapientiæ.
Causa nostræ lætitiæ.
Vas Spirituale.
Vas Honorabile.
Vas insigne Devotionis.
Rosa Mystica.
Turris Davidica.
Turris Eburnea.
Domus Aurea
Fœderis Arca.
Janua Cœli.
Stella Matutina.
Salus Infirmorum.
Refugium Pecatorum.
Consolatrix Aflictorum.

ORA PRO NOBIS.

Auxilium Christianorum.
Regina Angelorum.
Regina Patriarcharum.
Regina Prophetarum.
Regina Apostolorum.
Regina Martyrum.
Regina Confessorum.
Regina Virginum.
Regina Sanctorum Omnium.

} ORA PRO NOBIS

℣. Agnus Dei, qui tollis peccata mundi.
℟. Parce nobis Domine.
℣. Agnus Dei, qui tollis peccata mundi.
℟. Exaudi nos Domine.
℣. Agnus Dei, qui tollis peccata mundi.
℟. Miserere nobis.
℣. Ora pro nobis Sancta Dei Genitrix.
℟. Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

## OREMUS.

Gratiam tuam, quæsumus Domine mentibus nostris Infunde, ut, qui Angelo nunciante Christi Filii tui incarnationem cognovimus, per Pasionem ejus, et Crucem ad Resurrectionis Gloriam perducamur. Per eumdem Christum Dominum nostrum. Amen.

# San Jose-ri erreguba.

Zugana gatoz gueure atzecabean, San José gloriyosua, eta zure Emaste gustis Santearen laguntasuna escatuta guero, icharopen andi bategaz escatuten dogu zure bitartecotasuna bere. Jaungoicoaren Ama, Mariya, Dontzella orbangabeagaz bat eguinic zeuncazan caridadeagaitic, eta Jesus umechua lastandu zenduban Aitas-co amodiogaitic, humill erregututen deutzugu, beguiratu daiguzula bigun, Jesucristoc bere odolagaz beregandu guenduzanoi, eta lagundu daiguzula gueure premiñetan zeure almen eta bitartecotasunagaz. Gorde eguizu Jesucristoren arraza autuba jó Jaungoicozco Fameliyaren Jagola gustiz arduratzua! aldendu eguizuz gugandic erracuntza eta gaiztaqueriyazco zetaque guztiac; lagun eguiguzu erruquitzu cerutic, infernuagaz darabilgun gudaldi onetan! ó gueure libratzalle sendo sendua! eta beste dempora baten eriotzaco arriscu urrecotic atera zendubana legnez Jesus umechua, alan atera eguizu orain Jaungoicoaren Eleissa santea, bere areriyoen esetzi eta naigabe danetatic eta gorde eguizu gutarico bacocha beti zeure bitartecotasunagaz, al izan daigun, zure antzera, eta zure laguntasunagaz sendaturic, bizitza santu bat igaro, eriotza on bat eguin eta jaritzitia cerubetan betico zoriontasuna.—Amen.

Gure Aita Santu Leon XIII-ac aberastudan erreguan zaspi urte eta zaspi berrogueico parcamen edo indulgentziyacaz erresetan dan bacocheco.

* Ama Virgina Errosarijocuaen canta eder au iminten da emen, mutilchubac escolaric etsera datozanian, ganaduben zain soluan dagozanian, eta aen billa basuan dabilzanian cantau daijen. Uxala beste canta loi asco arima galzaigarrijac onan quendu al baleitez. Alan izan della bada arren bai.

## MISTERIJO GOZOSUBAC.

*Errosarijoco larrosa eder*
*Virgiña Ama bacarra,*
*bost misterijo gozoz betiac*
*gatoz gaur contempletara.*

### I.

Amudijuac urqnitu ez evan
munduban beste loraric
emon nai evan frutu ederra
conserbetaco garbiric :
Aiñ alegrija dichaz betia
ceuri jagotzun bacarric
ceure erraijetan ceuc icustia
Jesus maitia sorturic.

Eranzuten da: *Errosarijoco Larrosa &c.*

II.

Isabel ceure lengusinia
dago mirariz beteric
bere Jaun, eta Javiaen Ama
visita emoten juanic:
Saltoca dabil bere Semia
oraindo jaijo bagaric
ceure dicha, eta gozo andija
adietan emon guraric

*Errosarijoco Larrosa &c.*

III

Cein andija zan ceure gozua
munduban iñoc eztaqui
aberiac berc sentietan dave
cénzun baguiac izanic :
Angueru asco dira etorri
alcarren leijan Ceruti
jaijotza onen barri alegriac
zabaldutерren munduti

*Errosarijoco larrosa &c.*

IV.

Templura suaz Ama maitia
contentuz guztiz beteric
ecin cinaijo Jangoicuari
presente andijagoric :
Simeon Santubac bere dichia
ecin ondo sinisturic
icusi ezquero Jesus maitia
eztauco ill-arren penaric.

*Errosarijoco larrosa &c.*

V.

Noc esan leique ceure gozua
ceure Semia icusiric
Legueco jaquinduen artian
bera guztijen nagusi
bere Aitaen aguindubari
asiera ori emoñic
nai dau orrelan adietan emon
cetara jacun etorri.

*Errosarijoco larrosa &c.*

Esango davé guztijac acabuban.

*Lirijo ederra ceu izan zaite*
*aimbat gozoen artian*
*errezau davenen amparuba*
*orain, eta dempora guztijan.*

## MISTERIJO DOLOROSUAC.

*Errosarijoco larrosa eder*
*Virgiña Ama bacarra,*
*bost misterijo dolorosuac*
*gatoz gaur contempletara.*

### I.

Ceure penia Ama maitia
izan zan guztiz andija
ceure Semiari erijonian
Odolezco izerdija
bere ganian nola artu evan
pisu ain icaragarrija
bere Odolac aguertuten dau
Ariman daucan larrija.

*Errosarijoco larrosa &c.*

II.

Nola etcinian ama baçarra
egongo penaz betia
icusi ezquero azotaduric
Jesusaen gorputz guztija
orra nun doian erruqui baga
Odolezco iturrija
numbaita orain amaituco aldau
bere betico egarrija.

*Errosarijoco larrosa &c.*

III.

Pena gogorrez inguiratuba
daucazu vijotz ceuria
nola daguan arantza artan
Jesusaen buru guztija
bere Erreinuba emengua eztana
orain dago aguirija
etzan oraindo mundura etorri
coroe orrean barrija.

*Errosarijoco larrosa &c.*

IV.

Ay! Ama triste dolorosia
ceure peniaen acija
Crutce orretan ceure Semiac
emon biar dau Vicija:
arbola batec ecarri deban
ain calte negar garrija
Arbola orrec irabaci dau
galdu eta eguan gracija.

*Errosarijoco larrosa &c.*

V.

Jesusen escu eta oin sagradubac
josiric ceuc icustia
Ama maitia izan zan ceure
peniaen ascan tristia
eclisaduric gueldilu dira
Eguzquija, eta Irarguija
ezta milagro ilundu bada
Ceru guztijen arguija.

*Errosarijoco larrosa &c.*

*Lirijo ederra ceu izan zaite*
*aimbat penaen artian*
*errezau davenen amparuba*
*orain, eta dempora guztijan.*

## MISTERIJO GLORIOSUAC.

*Errosarijoco larrosa eder*
*Virgiña Ama bacarra*
*bost misterijo gloriosuac*
*gatoz gaur contempletara.*

I.

Ay cein andija zan ceure poza
pena guztiac ichiric
ceure Semiac urte-evanian
betico illen arteric
ceu icustera dator lenengo
glorijaz guztiz beteric
ondo equijan ceu cengozana
gueijen icusi guraric.

*Errosarijoco larrosa &c.*

II.

Ceure Semiac igo evanian

Cerura mundu onetaric
gozoz beteric gueretan zara
bacartasun asturic
orregaiti etzara egongo
ceure Semia bagaric
ain asco gura dirian bijotzac
eztagoz inos bacarric.
*Errosarijoco larrosa &c.*

III.

Espiritu Santu dator
guztija amudijoz beteric
nola etzaituz gozoz beteco
bere Esposia izanic
orra ce laster cumplietan daven
bere berbia Cerutic
ceureSemiac egon gaitezan
fedian guztiz firmeric
*Errosarijoco larrosa &c.*

IV.

Contentu andijaz zuaz Cerura
mundu tristia ichiric
beguira dagoz Angueru ederrac
mirari azcoz beteric

ecin egon da ceure Arimia
bere Gorputza bagaric
Ceruco tesoru ain andija
eztau nai emon lurrari.

*Errosarijoco larrosa. &c.*

V.

Ceure glorijac coronetaco
daucazuz empeñaduric
Trinidadeco iru Personac
eternidade bateric
ceure dichien causa guztiac
pecatarijac izanic
noc eztau orrela lograuco
bere dichia ceuganic.

*Errosarijoco larrosa. &c.*

*Lirijo ederra ceu izan zaite*
*aimbat glorijen artian*
*errezau davenen amparuba*
*orain eta dempora guztijan.*

Eztá idiguiten
Ceruco ateric,
ezpada Virgiñiaen
debociñoric.
Eztago Cerubetan
añ Izar arguiric
Virgiña Marija
berori lacoric.
Eguzquija bera
bere aurreti
ilunduric dua
argui bagaric.
Irarguija oñetan
dauco guelderic
ecin arpeguira,
beguiraturic.
Eztau iños urten
Jaunaen escuric
beste criaturac
bera langoric

Sortu eta jaijozan
beti garbiric
pecatuba urrin
berorreganic
Ecin litzateque
ceure maitia
aserre davenac
ceure Semia.
Ceuria eztanac
alper alperric
icharongo dau
salvaciñoric.
Berorrec ezpadau
neure erruquiric
eztago nerezat
erremedijoric.
Virgina Marijac
escuba emonic
seguru urtengodot
mundu onetaric.

# ONDO ILLTEN

## LAGUNDUTECO EXERCICIOA.

## *ORDO COMMENDATIONIS ANIMÆ.*

Kyrie eleyson.
Christe eleyson
Kyrie eleyson.
Sancta Maria Ora pro eo.
Omnes Sancti Angeli, et Archangeli, Orate pro eo.
Sancte Abel. ora.
Omnis chorut justorum. orate.
Sancte Abraham. ora.
Sancte Joannes Baptista. ora.
Sancte Joseph, ora.
Omnes Sancti Patriarchæ et Prophetæ, orate.
Sancte Petre, ora.
Sancte Paule, ora.
Sancte Andrea, ora.
Sancte Joannes, ora.
Omnes sancti Apostoli et Evangelistæ, orate.

Omnes sancti Discipuli Domine, orate.
Omnis Sancti Inocentes, orate.
Sancte Stephane, ora.
Sancte Laurenti, ora.
Omnes Sancti Martyres, orate.
Sancte Silbester, ora.
Sancte Gregori, ora.
Sancte Augustine, ora.
Omnes Sancti Pontifices et Confessores, orate.
Sancte Benedicte, ora.
Sancte Francisce, ora.
Omnes Sancti Monachi et Eremite orate.
Sancta Maria Magdalena. ora.
Sancta Lucia. ora
Omnes sanctæ Virginis et Viudæ, orate
Omnes Sancti et Sanctæ Dei, Intercedite pro eo.
Propitius esto, Parce ei Domine.
Propitius esto, Libera eum Domine.
Propituis esto, Libera.
Ab ira tua, Libera.
A periculo mortis. Libera.
A mala morte, Libera.
A pænis inferni, Libera.
Ab omni malo, Libera.

A potestate diaboli, Libera.
Per nativitatem tuam. Libera.
Per crucem et passionem tuam, Libera.
Per mortem et Sepulturam tuam, Libera.
Per gloriosam resurrectionem tuam, Lib.
Per admirabilen ascensionem tuam, Lib.
Per gratias Spiritus sancti paracliti, Lib.
In die judicii Libera.
Peccatores, Te rogamus audi nos.
Ut ei parcas, Te rogamus.
Kyrie eleyson.
Christe eleyson.
Kyrie eleyson.

*Deinde cum in agone &c.*

Proficiscere anima Christiana, &c. *ut in Rituale Romano.*
Oratio. *Suscipe Domine &c.*

*Eusqueraz Oraciñoe au.*

Artu eguizu, Jauna, ceure sierbo au bere Salbaciñoeco, ceure misericordija ganic uste daven lecu atan. Amen.
Librau eguizu, Jauna, ceure sierbo onen

arimia infernuco peligru, pena, eta estutasun guztijetaric. Amen.

Librau eguizu, Jauna, ceure sierbo onen arimia, Enoc, eta Elias munduco erijotza jaquineric librau cenduzan leguez. Amen.

Librau eguizu, Jauna, ceure sierbo onen arimia, Noé dilubijoco uretan ito etcidin, librau cendubana leguez. Amen.

Librau eguizu, Jauna, ceure sierbo onen arimia, Abrahan Caldeoen su, eta garretaric librau cendubana leguez. Amen.

Librau eguizu, Jauna, ceure sierbo onen arimia, Job Santuba bere neque, eta penaetaric librau cendubana leguez. Amen.

Librau eguizu, Jauna, ceure sierbo onen arimia, Isac bere Aitaen Sacrificijo, eta erijotzaric libradu cendubana leguez. Amen.

Librau eguizu, Jauna, ceure sierbo onen arimia, Lot Sodomaco sutaric librau cendubana leguez. Amen.

Librau eguizu, Jauna, ceure sierbo onen arimia, Moises, Faraon Egiptoco Erreguiaen escubetaric librau cendubana leguez, Amen.

Librau eguizu, Jauna, ceure sierbo

onen arimia, Daniel Leoe gosetarie librau cendubana leguez. Amen.

Librau eguizu, Jauna, ceure sierbo onen arimia irn guizon guztiac Babiloniaco labe erexiguiric, eta Erregue guestuaen escubetaric librau cenduzana leguez Amen.

Librau eguizu, Jauna, ceure sierbo onen arimia, Santa Susana falso testimonioric librau cendubana leguez. Amen.

Librau eguizu, Jauna, ceure sierbo onen arimia, David, Saul Erreguiaen eta Goliat Gigantiaen escubetaric librau cendubana leguez. Amen.

Librau eguizu, Jauna, ceure sierbo onen arimia, San Pedro eta San Pablo Apostolubac carcela eta calabozo etaric librau cenduzana leguez. Amen.

Eta Santa Tecla Virgina, eta Martiri bienaventuradia, iru tormentu icaragarrijetaric librau cendubana leguez, alan sierbo onen arimia, gura izan daizula libretia ceugaz beti glorijan egon deiñ. Amen.

SANTO CRISTUA ADORETAN
*dala esaten da,*

Adoretan zaitugu, Cristo eta bedeñque-

tan zaitugu, ceure Crutce Santubagaz munduba erredimidu cendubalaco.

## ORACIÑOIA.

Jangoico misericordioso, munduba erremedietiagaiti, jaijo eta Circuncidau gura izan cendubana, Judeguben artian erreprovaduba, Judas traidoriaen laztan falsuagaz entregaduba, socacaz lotuba bildots inocentia leguez erijotzara eruana. Anas, Caifas Pilatos eta Herodesen aurrian deungaro, lotsa andijagaz aguertuba testigu falsuacas acusaduba, azotez chistuz eta afrentas betia, aranzaz coronaduba, matrallacoz desonraduba, cañaberiagaz eriduba arpeguija estalduba, soñeco baga ichija, untciacaz Crutcian josija, eta gora jasua: lapur biren erdijan iminija, biaztuna eta binagria artu erazua, eta lanciagaz eriduba. Zuc Jauna, ceure pena santu onec gaiti, ceñzuc nic pecatari onec gogora dacardazan, eta ceure Crutce Santu, eta erijotciagaiti libradu naguizu (edo N. gueiso au libradu eguizu) Infernuco penetaric; eta lapur on ceugaz Crutcian eguana, eruan cenduban lecura, eruan eguizu. Amen.

# ONEN GANIAN CONSIDERACINOIA.

O Neure Cristiñauba! ceure penetan eguijazco consubelua aurquitu gura badozu, Jaun amoroso oni ondo beguiratu eguijozu. Ceure Medicu Cerucua, eta erremedijo bacarra au dozu: esan doguzan Jaun onen pausu, eta pena guztijac sinistu eta adorau eguizu eta ceure arimia bere erregaluz beteco deutsu.

Medicu onen amoria ondo considerau eguizu: eta ceure arimaco miñac, eta gachac osatuteco beguira, ce penac, eta celan, erremedijoric penazcuenac berac artu cituzan.

Beguira, celan ceure amoriac Crutcian josiric, odolezco negarracaz, eta bijotceco diadarracaz Aitari ceure parcaciñoia escatuten, tormentuz alde guztijetati beteric illzan.

Beguira, celan bere besuac zabalic daucazan, pecatarijac artuteco; eta baldin zu bijotceco damubagaz beragana biurtuten bazara, zuri amorezco laztan gozua emoteco. Beguira celan buruba macurturic zuri deijez jagotzun.

Beguira, celan bere bular, eta bijotz

Sagraduba idiguiric daucazan, erijotziaen bildur, eta enemigüen tentacinoetaric zuc beragana igues eguin, eta beragan zu artu, eta seguru gordetaco.

Bere gorputceco llaga, eta eridac ceimbat dirian, beste aimbeste dei, eta diadar emoten deutsu, bere amoríac diñuala: Erdu neure arimia, erdu nigana. Ceuria da erruba; baña nic artudo. penia. Baldin ceure pecatuben carguiac erijotciaen penacaz batera, estututen, eta, azpijan artuten bazaitubez; erdu nigana : nic guztijen parcaciñoia emon, eta arindu, eta consolauco zaitudaz. Eztot ez igues eguingo ceure ondoric: baña celan igues eguin alnei, bada zuganaco amoriac, oñac eta escubac onan lotu eta josi badeustas.

O arimiaen zorijoneco dichia! Eta bere Javiaen onelango verba gozuac enzun ezquero, nor animauco ezta! Eta onelango Jauna ofendidu bagaz, noc damu izango eztau! Ea bada neugaz batera bijotceric eta eguijozu.

## CONTRINOECO AFECTUAC

Ay neure Aita guztiz ona! Cer erant-

zungo deutsat nic zurê amorezco deijari! Baquit Jauna, ceure seme izatia merecidu eztodana; bada ceure beguijetan, neure Ceruco Aitaen contra pecatu eguindot. Ay! damudot milla bider, zu, alan, eta aimbeste bider ofendiduba. O damuz, eta ceure amorez neure bijotza bertan apurtu, eta erdiratuten balichat.

Ez arren, Jauna, nire pecatubai beguiratu: infernuba merecidu izan dodala ezautu tendot. Beguira bai ceure ontasun andijari, nigaz misericordija eguiteco.

Ceure begui garbijac, neure pecatu łoijetaric quendu eguizus, eta ceure amore, eta piedadiari beguiratu, eta guztijac parcatu eguidazuz,

Ea Jauna: ceure misericordijazco beguijacaz neure arima galdubari beguiratu eguijozu: eta alan salbauco naz.

Neure Salvadoria bada, izan zaitez oraň: eta ceure Iœen Santu, Crutce, eta Pasinoiagaiti oraň enemigüen tentaciňoetaric libradu, eta salbau naguizu. Neure Jesus ona: ceure Bijotcian betico sartu, eta ceure gracijan gorde naguizu.

Neuria da erruba, Jesus ona: Ay zori guestoco pecatubac! Baňa cer eguin alnei!

Guztijen damuba daucat, Jauna guztijac ceure oñetan confesetan dodaz, ceure amorezco su bician erre, eta acabau ditezan.

Ceugan daucat neure esperantza guztija. Eta bere pecatuben damu eguijazcuagaz ceugan esperetan davena, inosbere galdu ezta; pecatari andi ascori parcatu deutsazu: misericordija ori berori nigaz eguingo dozu.

Ay Jauna: ceugana añ belu etorri nasalaco, daucat damuba! Baña alambere baquit eguijazco damu eta proposítu bagaz zugana datozan pecatarijac, ceure piedadeco atiac beti zabalic topetan ditubezala. Ara bada zugana nun natorren, edo ceure ontasunac nun nacarren.

Ceure amoriac caburic eztauco: finbacua dâ ceure misericordija. Niri parcatutian, ceure ontazun, eta misericordija icustenda. Orregaiti ni condenetia gura eztozu, espada ni salbetia, eta ceu icusteco, ametaco, ceu gozetaco, ceure glorijara ni betico eruatia. O Jauna! alan izan dilla arren bai.

## AMA VIRGINARI AFECTUAC.

Virgina Marija, gueure Jangoico Salva-

dore, eta Amore ederraen Ama maitia! Zu zara pecatari triste guztijen misericordiazco Ama.

Crutciaen oñian ceure Semiari beguira, dolorez beteric, cengozanian, berac pecatarijen Ama eguin cenduzan. O ce consuelo, eta ce dicha pare bacua guretzat: zu lango Ama Ceruban euquitia! Zu zara guretzat Ceruco Atia, eta zugana datozanenzat beti idiguija.

Eguija da, neure arimia pecatuz loituric icusi, eta lotsaz eta damuz beteric ceure beguijetara elduten nasana. Baña Ergreguiña andi, eta Señora ona, neure esperanza, eta uste seguruba ceugan daucat. Ceure mantuben azpira, ceure amparurura nator, neure erremedijuen billa.

Ama guztiz maitia: arren ceure begui eder orrec biurtu eguizuz nigana. Eguija dá, nic ori merecietan eztodana; baña Jesus ceure Semiaen bijotceco amoriac ori merecietan dau, eta escatuten deutsu: eta bere Pasiñoe, eta Eriotcia gaiti, zuc ceure baljo andijagaz, beragaz nire artian, bitarteco izan biar dozu.

Orañ inos baño bere gueijago ceure biar nas: Ceure bijotz bigun, eta begui

piadosuacaz beguiratu eguidazu. Ama misericordijazcua izan zaitez. Amparau, eta socorridu naguizu: enemigo guestuen artian estu nabil: onen tentaciñoetaric librau naguizu: Zu nire favore zariala, zu nire lagun zariala, aen bildurric eztaucat.

Eztot nic eeer merecidu, baña ceure bijotceco Semiaen Odol preciosuagaiti, ez arren Andria ni orañ desamparau. Secula enzun ezta ez enzungo bere, zu gana biurtu, eta zugaz baliau danic, amparu baga guelditu dala: ara bada ni emen guztiz biarra, eta necesidadecua nator bijotz guztiric, ceugan neure esperanza osua daucadala.

Erijotza eta Eternidade guztijagaz nago pelian: erruquitu zaitez nigaz Ama guztiz misericordiosua, neure bildur, pena eta neque guztijac bigundu eta gozatuco dira, ceu neure favore bazagoz.

Ea bada pecatarijen Ama, arima triste onegaiti ceure Seme bedeñcatubari erregutu eguijozu. Zuc au eguiten badozu: seguru nago, pocic eta amorez zulango Ama, alango Semeac enzungo davela. Berba eguijozu bada, neure abogada eta bitarteco bacarra, eta esan eguijozu, nilango pe-

catariac salbetarren etorri zala mundura.

Zu zara gueure arguija: argui eguidazu. Zu zara gueure baquia: arimaco baquia emoeidazu, Zu zara gueure consoladoria: nire arimia consolau eguizu. Zu zara mundu galdubaen erremedijna arquitu, eta aguertu cendubana, nire arimia erremediau eguizu. Zu zara, ceure Seme maitiaen: gueure Salbadoria emon ceuscuna: izan bedi bada neure Salvadoria: eta izango nas ni zugaiti salbaduba.

Baquit, Esperanza neuria, ceure bijotceco erruqui amorosua nigan guiño zabaldu dana. Zuc ceure Semiac leguez gura eztozu iñor condenau deñ; ezpada guztijoc salbagaitezan. Ceure bular gozuac ceure Semiari zuc eracutsi esquero, bere aserre justua bertati gozatuco da.

Neure damuba dá, ceure Semia eta zu aimbeste bider ofendidu, eta aserratu zaitudazalaco. Baña guztijen damuba daucat. Damudot bijots guztiric Jangoico añ ona ofendidu dodalaco.

Zuc pecatu guztijen bijotceco eguijazco damuba eta parcaciñoe osoozua alcanzau eguidazu.

Zu zara andra guztijen artian bedeinca-

tua, Jaunaen gracijaz, eta doez betia zu: gracijazco eta misericordijazco Ama: ara ni emen desdichaz beteric galduba, amparau naguizu, orañ_eta_beti, Jangoicua ametaco. Amen.

## FEDE ESPERANTZA, ETA CARIDA-*deco Actuac.*

Misericordijazco Aita eta consubelo guztijen Jangoicua, ceure graciagaz sinisetandot neure bijotceco fede oso guztijagaz Trinidadeco ceure Misterijo andija: Aitia eta Semia eta Espiritusantuba, iru persona distinto, eta Jangoico eguijazco bacar bat. Jangoico bacar onetan, eta iru persona distinto onetan sinistuten dot: Jangoico au confesetan, adoretan eta bijotz guztiric gauza guztijac baño gueijago ametandot.

Sinistuten dot Trinidadeco bigarren personia, gu salbetia gaiti Guizon eguin zala Marija Virginiaen savel Santuan, guizonen obra baga, Espiritusantubaen obraz, jaijo zala, padecidu, eta Crutcian ill enterradu, Limbora jatsi, eta irugarren egunian biztu zala, Cerubetara igo evala, aric

etorrico dala vicijac, eta illac juzguetan.

Sinistuten dot, pecatubac parcatuteco dagozala Elexa Santaen Sacramentubac, Fede bat, Elexa bat, eta Bautismo bat: baita sinistutendodaz Elexa Santiac eracusten deustazan, beste gauza guztijac, eta Elexa onez campoti iñor ecin salba litequiala.

Sinistuten dot Aita Jangoicuagan, sinistutendot Seme Jangoicuagan: sinistuten dot Espiritu-Santu Jangoicuagan.

Esperetandot Aita Jangoicuagan; esperetandot Seme Jangoicuagan; esperetandot Espiritu-Santu Jangoicuagan.

Ametan dot Aita Jangoicua: ametan dot Seme Jangoicua, ametandot Espiritu-Santu Jangoicua, Eta damu dot neure bijotz guztiric aen Magestadia amadu eztodalaco eta ofendidu 'dodalaco pensamentubagaz, berbiagaz, eta obriagaz.

O neure Jangoico guztiz Santuba, inoz ofendidu ezpazendudaz! O zoriguestoco pecatuben bide, eta ocasiñoiac.

O Jaun guztiz ona! Ez nire pecatubai beguiratu, ezpada ceure ontasun, eta misericordija andijari. Nic, Jauna, orañ baño leenago galdutia, eta condenetia merecidu izan dot: baña ceure ontasun, eta a-

moriac ni salba nadin guradau. Madalenia, eta beste pecatariac artu cenduzan: ea bada ara emen beste bat bere nun datorren: ceure amorian arren artu naguizu.

O ceure amorian betico irexiguita banengo! Beti ceu ametaco, eta ceure amore Santuban beti erre, eta urtuteco. Eternidadeco bide, eta acaburengo pausu onetan gorde, eta salbau naguizu Jauna, ceu beti alabetaco. Amen.

## GEISUA AGONIÑAN DAGUANIAN
*esateco Afectuac.*

Neure Jangoico guztiz ona, Aitia, Semia eta Espiritu Santuba! Zugan sinistutendot: Zugan esperetandot, eta zu gauza guztijac baño gueijago ametan zaitudaz.

Aita Eternua : Ceure Semiaen Pasiñoe, Crutce, eta Erijotcia gaiti, erijotza ombat emon eidazu. Ceure misericordija biardot, eta orren esque nago orañ neure bijotz guztiric.

Nire argaltasunari ceure piedadiagaz beguiratu eguijozu ordu onetan. Ay Jauna! Damudot ceu ofendidu zaitudazalaco, izanic añ ona.

Neure Jesus Maitia! Nora biurtu, ceugana espada, eztaucat. Ceure odol preciosuagaz balijau guradot, salbetaco. Misericordija nigaz, damudot, Jauna, izanic Ceu añ ona ofendidu zaitudazalaco, damudot milla bider ceu ofendiduba; ametan zaitudaz beste gauza guztijac baño bere gueijago.

O! Neure vijotz au ceure amore garbijagaz eresegui eta balego!

Infernuco enemiguac galdu guranave, arren, Jauna desamparau ez naguizu: librau naguizu: ceuria izan biardot, Ceu ametan zaitudaz.

Pecatarija izan nas: eguija da, Jauna, baña, neure pecatu guztijac baño ceure ontasun, eta misericordija andijagua da.

Virgina Marija Jangoicuaen Ama! Crutciaen oñian ceure Semiagaz igaro cenduzan pena, eta doloriac gaiti lagun eguidazu, eta Ceure mantupian betico artu naguizu.

Jesus, Jesus milla bider: Jesus Marija Josepe orain, eta beti neure vijotcian, eta ariman izan ditezala.

Jesus neure Salbadoria: izan zaitez neure Jesus, eta Salbau naguizu.

San Josepe bedeñcatu gozua nun zara, neure Aita maitia, Erdu niri lagunduten, eta ceure bèso bedeñcatubetan neure arimia artuten.

Angueru Santubac, ceuben beguira nago: erdu laster ni libretan.

Neure Criadoría: ceure escubetan neure espirituba emoten deutsut.

Ama Virgina Marija: Ama gracijazcua, Ama Misericordijazcua, arerijo guestuetaric librau naizu: Eta ordu onetan ceugana artu naguizu.

Aita Eternua, ez nire pecatubai beguiratu, ezpada ceure Semiaen arpegui ederrari, agaiti misericordija nigaz. Damudot Jauna, izanic ceu añ ona ofendidu zaitudalaco: misericordija, misericordija.

Jesus, Marija Josepe Juaquin, eta Ana, erdu guztijoc nigana.

Jesus orañ eta beti balija daquidala. Jesus izan bedi neure esperantcia, neure consubelo neure amore, eta neure glorija.

Eutsi, neure Jesus, neure arima au. Eutsi, Jesus neure espiritu au. Espiritu guztijacaz ceu beti alabetaco, eta ceure misericordijac beti cantetoco. Amen.

Neure Jesus ona: ceure bijotza idigui

cenbuban, ni or artuteco, or sartu guradot seculaco: or artu naguizu betico.

Sinistuten, eta esperetandot ceugan: ametan zaitudaz gauza guztijac baño gueijago, eta ceugan neure amoria betico Amen.

*Sacerdotiac derichanian esango deutse guessuari, imini daijala intenciñoia indulgencijac irabazteco; bada dira andijac, eta asco, Elexa Santiac ordu onetaraco daucazanac, eta errezau daizala Paternosterra, Ave Marija, Credua, Salvia, eta esan daijala sarri Jesusaen Icen Santuba, eta aplicauco deutsaz Bulda Santubaen Indulgencijac.*

## MODUS INDULGENTIAN

PRO ARTICULO MORTIS IMPERTINENDI A PAPA APPROBATUS IN CONSTIT. PIA MATER NONIS. APRILLIS AN. 1747.

### ADIUTORIUM NOSTRUM, &c.

Ne reminiscaris Domine delicta famuli tui, (vel ancillæ tuæ,) neque vindinctam

sumas de peccatis ejus. Kyrie eleyson, &c. Paternoster, &c. Et ne nos inducas, &c. ℣. Salvum fac servum tuum. ℟. Deus meus sperantem in te ℣. Domine exaudi, &c. Dominus vobiscum, &c.

## OREMUS.

Clementissimæ Deus, Pater misericordiarum, et Deus totius consolationis, qui neminem vis perire in te credentem, atque sperantem; secumdum multitudinem misarationum tuarum respice propitius Famulum tuum N, quem tibi vera fides, et spes cristiana commendant. Visita eum in saluti tuo, et per Unigeniti tui Passionem, et Mortem omnium ei delictorum suorum remissionem et veniam clementer indulge; ut eius anima in hora exitus sui Te Judicem propitiatum inveniat,. et in sanguine eiusdem Filii tui ab omni macula albura, transire ad vitam mereatur perpetuam. Per eundem Cristum Dominum nostrum. Amen.

*Tum dicto*, Confiteor Deo , et Misereatur, &c. *Sacerdos dicit.*

Dominus Noster Jesus Christus, Filius

Dei, qui Beato Pedro Apostolo suo dedit potestatem, ligandi, atque solvendi, per suam pissimam misericordiam recipiat confessionem tuam, et restituat tibi stolam primam, quam in Baptismate recepisti: et Ego facultate mihi ab Apostolica Sede tributa Indulgentiam plenariam, et remissionem omnium peccatorum tibi concedo. In nomine Patris, et Filii, et Spiritus Sancti.

Per sacrosancta humanæ reparationis Mysteria remmitat tibi Omnipotens Deus omnes præsentis, et futuræ vitæ pæenas, Paradisi portas aperiat, et ad gaudia sempiterna perducat. Amen.

Benedicat te Omnipotens Deus Pater, Filius, et Spiritus Sanctus. Amen.

### MEZA ERAZOTECO MODUBA.

Sac. In nómine Patris, et Filii, et Spiritus Santi, Amen. Introibo ad Altare Dei.

R. Ad Deum qui lætificat juventutem meam

S. Judica me, Deus et dicerne causam meam de gente non sancta, ab homine

iniquo et doloso erue me.

R. Quia tu es Deus fortitudo mea, quare me repulisti, et quare tristis incedo dum affligit me inimicus.

S. Emitte lucem tuam, et veritatem tuam ipsa me deduxerunt, et adduxerunt in montem sanctum tuum, et in tabernácula tua.

R. Et introibo ad Altare Dei, ad Deum qui lætificat juventutem meam

S. Confitebor tibi in cithara, Deus, Deus meus, quare tristis est, ánima mea, et quare conturbas me.

R. Spera in Deo quoniam adhúc confitebor illi, salutare vultus mei et Deus meus.

S. Gloria patri, et Filio, et Spiritui Sancto.

R. Sicut erat in principio, et nunc, et semper, et in sæcula sæculorum. Amen.

S. Introibo ad Altáre Dei.

R. Ad Deum qui lætificat juventutem meam.

S. Adjutorium nostrum in nómine Domini.

R. Qui fecit Cœlum, et terram.

S. Confiteor Deo Omnipotenti, &c. Et

vos fratres orare pro me ad Dominum Deum nostrum.

R. Misereatur tui omnipotens Deus, et dimissis pecatis tuis perducat te ad vitam æternam.

S. Amen.

A. Confiteor Deo omnipetenti, Beatæ Mariæ semper Virgini, Beato Michaeli Archangelo, Beato Joanni Baptistæ, Sanctis Apostolis Petro, et Paulo, et Beato N. omnibus Sanctis, et tibi Pater, quia peccavi nimis cogitatione verbo, et opere, mea culpa, mea culpa, mea maxima culpa. Ideo precor Beatam Mariam semper Virginem, Beatum Michaelem Archangelum, Beatum Joanem Baptistam, Sanctos Apostolos, Petrum, et Paulum, et Beatum N. omnes Sanctos, et te Pater orare pro me ad Dominum Deum nostrum.

S. Misereatur vestris Omnipotens Deus et dimissis peccatis vestris, perducat vos ad vitam æternam.

R. Amen.

S. Indulgentiam, absolutiónem, et remissionem peccatorum nostrorum tribuat nobis Omnipotens, et misericors Dominus.

R. Amen.
S. Deus tu convérsus vivificabis nos.
R. Et plebs tua lætabitur in te.
S. Ostende nobis, Domine, misericordiam tuam.
R. Et salutare tuum da nobis.
S. Domine exaudi orationem meam.
R. Et clamor meus ad te beniat.
S. Dominus vobiscum.
R. Et cum Spiritu tuo.

*Kyrie eleyson.*

Kyrie eleyson.

*Kyrie eleyson.*

Christe eleison.

*Christe eleyson.*

Christe eleyson.

*Kyrie eleyson.*

Kyrie eleison.

*Kyrie eleyson.*

*Kyrie eleyson.*

*Epistolia acabauta esatenda.*

R. Deo gratias.
S. Dominus vobiscum.
R. Et cum Spiritu tuo.
S. Per Omnia sæcula sæculorum.
R. Amen.
S. Dominus vobiscum.

R. Et cum Spiritu tuo.
S. Sequentia Sancti Evangelii secumdum. &c.
R. Gloria tibi Domine.

EVANGELIJUA ACABAUTA ESATENDA.

R. Laus tibi Christi.
S. Orate fratres.
R. Suscipiat Dominus Sacrifitium de manibus tuis ad laudem, et gloriam nominis sui ad utilitatem quoque nostram totiusque Ecclesiæ suæ Sancte.
S. Amen.
S. Per omnia sæcula sæculorum.
R. Amen.
S. Dóminus vobiscum.
R. Et cum spiritu tuo.
S. Sursum corda.
R. Habémus ad Dòminum.
S. Gratias agamus Domino deo nostro.
R. Dignum et justum est.
S. Et ne nos inducas in tentationem.
R. Sed liberanos á malo.
S. Pax Domini sit semper vobiscum.
R. Et cum spiritu tuo.
S. Ite Misa est, ò benedicamus Domino.

R. Deo gratias.
S. Requiestcant in pace.
R. Amen.
S. Pater, et Filius, et Spiritus Sanctus.
R. Amen.
S. Dòminus vobiscum.
R. Et cum spiritu tuo.
S. Secuentia Sancti Evangelii secum &c.
R. Gloria tibi Domine.

EVANGELIJUA ÀCABAUTA ESATENDA.

R. Deo gratias.



# JESUCRISTO GUEURE JAUNAEN

# PASINOIA EUSQUERACO

## VERSUETAN.

1. Jesucristori quendu ezquero
Pecatubagaz vicija,
Baldin ezpadot negar eguiten
Arrizcua dot vijotza :
Guztijoc lagun
Cantadu daigun
Bere penazco erijotza.
2. Munduba baño ascoz lenago
Señalaurico eguna
Eldu izanzan obretaraco
Guizonaen osasuna;
Arguija bera
Alde batera
Besteti egun illuna.
3. Eguben santu afal onduan
Bere lagun cituzala
Jesusec iru Discipulubai,
Berba eguin cutsen onelan
Triste nago, ta
Lo ori bota,
Eguizu emen gaubela.
4. Getsemanico Hortu Santuban

Auspaz lurrian jarriric
Esquetan eutsan librau leijala
Aitari, Caliza ataric :
Jesus penatcen
Odolez urtcen
Eta eztot nic negarric?

5. Icerdi otza arpeguijan, ta
Bijotza penen artian
Triste arimia gorputza larri
Agoniñaco trancian;
Baña alambere
Eguan firme
Aitaen borondatian.

6. Judegubac Judas lagun arturic
Etorri cirian itantcen
Nazarenua derichon Jesus
Emen etada aurquitcen?
Judas orduban
Baque moduban
Doa mosuban emoten.

7. O ceimbat dira Judas legucs
Cristoen adisquidiac
Campoti lastan barruti saldu
Auciric bére leguiac,
Cristinau falso
Arima guesto
Pecatari traidoriac!

8. Eranzun evan Jesus maitiac

Ceiñen billa zatoz ona?
Ara emen dago, ezta besteric,
Gura dozuben guizona :
Juateco eztot nic
Soca biarric,
Ez eldu lagunoc gana.

9. Escubetaric lotu izan even
Guztijoen libertadia.
Cegaiti auzan gueure onian
Jaunaen borondatia.
Urratuteco
aimbat urteco
Pecatubaen catia.

10. Dicipulubac euren maisuba
Evenian alan icusi
Bacar bacarric bera ichita
Juan cirian iguesi :
Pedro etorren
Bere ondoren
Baña aubere urruti.

11. Darue bada Jerusalengo
Sacerdotien aurrera,
Disciputuben ganian, eta
Doctrinan contu arcera :
Caifas guestua
Aurrerengua
Asten jaco itancera

12. Eztot nic, diño Redentoriac

Predicadu escutuban,
Aguirija zan nire Doctrinia
Sinagoga ta Templuban
Ez niri itandu,
Bada asco dira
Enzun navenac munduban.
13 Errespuesta aditu evan leguez
Soldadu batec bertati
Gora darua bere besua
Eta dirauco Jaunari:
Icasi daizun
Celan erantzun
Ostera Pontificiari.
14. Esan, ta eguin emoten deutso
Bere arpegui ederrian
Belarrondoco andi bat, ceñec
Ezarri evan lurrian :
Eta Cerubac
Dagoz lotubac
Au icusten davenían?
15. Nosco dira Aita eternua,
Chimistac, eta arraijuac,
Ez erretaco an berpertari
Escu aiñ sacrileguac!
Anguerubac, ea,
Elzaitez egaz
Nun dituzubez eguac.
16. Baldin deungaro berba

Eguin badot
Errasoia emon eguizu;
Baña ezpadot, diño Jesusec
Ecetan bere erratu,
Cegaiti arren
Berba eguinarren
Onan tratetan nozu.
17. Iridazú Jesus bijotcecua,
Ceure sufrimentu ori,
Jaquindaguidan celan penetan
Emongo dodan arpegui
Parcatubagaz
Bijotz osuaz
Enemigo andijenari.
18. Damudot Jauna bijotz guztiric
Ceu ofendidu izana
Ez ez gueijago pecaturic
Neure Jangoico laztana
Larda culparic,
Betoz agaiti
Pena orrec nigana.
19. Suba eguan esquepian, ta
Pedro su atan berotcen,
Cerren bijotzac amodijuan
Otzazco eutsan senticen:
Su orren quiac
Bere beguijac
Negarrez bete cituban.

20. Cerren ollarrac ez evan emon
Birritan bere soñuba
Nun irubider ucatu evan
San Pedroc bere Maisuba:
Ezta besteric
Ocasiñoeric
Ateraten dan pagua.

21. Caifasec barriz itanduten deutso
Eguinic juramentuba
Esaidazu Jesus bazara
Mesias prometiduba
Alan ezpada,
Cetaco izanda
Engañetia munduba?

22. Ondo equijan Jesusec nora
Joian confesiñoia;
Topetan evan condenetaco
Caifasec ocasiñoia,
Eta aregaz
Gura eutsan eguin
Illteco acusaciñoia.

23. Alambere baietz eranzuten dau.
Aitari beguiraturic;
Baita Caifasec bere deadar
Soñecuac urraturic:
Blasfemuena

Da onen pena
Ija dago causia eguinic.
24. Jaguiten dira Concilijoric,
Da artuten dabe bidia
Amargurara nun Pilatosec
Eucan bere etsia
Zan Erromaco
Dempora ataco
Judeguben Presidentia.
25 Juezac diño emongo badot
Guizon au erijotzara
Ecarri eguizuz causa justuba
Eta ezpadira cetara
Onan narabil zu
Eruan eguizu
Hor Herodesen aurrera.
26. Aita eternuen jaquiturija
Dauco mundubac Zorotzat
Agaiti diño Erregue orri
Jantci tunica Zuri bat.
Ezpabere celan
Ceruco Estola
Erosicozan guretzat.
27 Esaneutcen Pilatoseri
Judeguben Sacerdotia
Uste aldozu ezdoguzala
Gucbere gueure leguiac?
Blasfemadu dau

Merecidu dau
Erijotcia, ta azotiac.
28. Onec esandau izanic Arotz
Pobrechubaten Semia
Dala Jangoicuaen Seme ta,
Judeaco Erreguia :
Illten ezpadozu
Etzara ez zu
Cesar en adisquidia.
29. Gura euquian Juezac Jesus
Erijotzaric libradu,
Cegaiti bere inocencija
Ondo evan ezautu,
Baita Judegubac
Egozan itsubac,
Ez eutsen permitidu.
30. Erijotzabat eguin da diño
Dago Barrabas carcelan
Nor gura dozu, Nazarenua
Edo a libradu daiguidan;
Da costumbria
Bat libretia
Ceuben Pasco egunian.
31. Osta aoric atera evan
Asicirian deadarrez :
Librau eguizu Barrabas, baia
Jesus nazarenua ez
Orrec biar dau

Ondo penadu
Abe betian dolorez.
32. Ostera itancen dau Pilatosec
Baia ce causa emon dau?
Isrraeleco Erregue bada,
Esatia da pecatu?
Aec deadar
Erregue Cesar
Ori crutcian iminzu.
33 Jangoicua bera, ceñec daucan
Munduba loraz janciric
Cortesija baga, bere erropac
Tunica guiño erantciric
Narru gorrijan
Egun arguijan
Ichi even lotsaturic.
34. Nun zara bada, eta odeijac,
Illuntasuna nun zara,
Celan etzatoz Virginiaen
Seme eder au estalcera?
Ola eguzquija
Ceure arguija
Bialdu eguizu atcera.
35. Bost milla azote, eta gueijago
Loturic Columna baten
Aci cirian iru borreru
Bere espaldetan emoten:
Erreca bat celan

Odola alan
Asi izan zan jausiten.
36. Arrijac, eta Salvadoriac
Bijac alcar cirudijen,
Cegaiti etzan onen aoti
Sentimenturic enzuten;
Marmolac eurac
Golpe crubelac
Ditubenian artuten.
37. Pillar gogorreric laster Jauna
Soldadubac escaturic
Duaz guztija adoretara
Burlaz erregue eguinic
Bere coroia
Arantzazcua
Buruban estu josiric.
38. Mantu zantarra soñian, eta
Cañabera bat escuban :
Onelan Jesus tratetan even
Pecatarijac munduban,
Munduba bera
Redimietara
Jauna etorren orduban.
39. Jesus onelan icusi eta
Pilatos erruquituric
Dino nic eztot aurquituten
Guizon onegan erruric
Bada ill eguizu

Gura badozu
Erroman ezta legueric
40. Aec deadar : Jauna dalaco,
Pilatos bildur bazara
Etorridella orren odola
Gueure arimen ganera
Ezta ardura
Gueure contura
Condena eguizu Crutcera.
41. Juez guestuac Sacerdotien
Esana eguitia gaiti
Publiquetan dau senticija bat
Ez inoc oquerragoric
Eta gura dau
Libre guelditu
Jangoicuaen odoleric.
42. Alper alperric Presidentia
Garbietan dozac escubac
Juez justotzat euqui ainzat
Hipocritori mundubac :
Loituta ago
Baña gueijago
Hibaño bere Judegubac
43. Crutce batian mundo guztico
Pecatubac cituzala
Urten evan Calvarijora
Jesusec lapur bat leguez
Artu crutcia

Auda bidia
Galduco gara bestelan.
44. Salbadoria pausabat bere
Ecin emonic aurrera
Crutce astunac azpiratuta,
Bencidu evan lurrera
O pecatuba
Zure pisuba
Carga guztija zuzara
45. Ecin bacarric eruan evan
Zalaco guztiz astuna,
Eta orregaiti emonic eutsen
Cirineoa laguna :
Dichasco guizon
Zara zu Simon
Noc leucan zure eguna!
46. Vide onetan Joianian
Calbarijoco mendira,
Bere Semia contempletaco
Ama eguan beguira;
An dira penac
An tormentubac
Martijuac an dira.
47. Ama Virgina afligidia
Ichi eguizuz beguijac
Estaldu zaite aimbaga bere
Asco darua Semiac
Tormenturic.

Berba eguiteric
Ezteutsu ichico negarrac
48. Biurtuten dituz Amac beguijac
Semia icustera
Baia bijotzac sufriduecin, ta
Biurtcen dira atcera :
Datoz agaiti
Beguijetati
Bijotzac berba eguitera.
49. Semiaenac esaten deutse:
Baquizu Ama maitia
Asco sentietan badozu bere
Onan ni icustia :
Bestelan ecin
Cerubacaz
Eguingo dala baquia.
50. Neure Aitaen borondatian
Ceuria beti daucazu :
Aen esanac narua: Agur
Bendeciñoia indazu;
Neure ordiaz
Pecatarijacas
Contuba ceuc eucazu.
51. Amiac dino zuaz neure Jesus
Illtera ordu onian;
Baija celan ni ichi gura nozu
Bacardade aiñ tristiau?

O celan Bai'nic,
Eta ondo pocic
Jarraituteco neuquian.
52. Salvadoriac onelan penaz
Eguinic vide erdija,
Veroniquen caridadiac
Quendu eutsan icerdija:
Obra onen pagu
Jaunac isten dau
Pinturan bere arpeguija.
53. Juazan bada bere laguntcen
Jerusalengo Alabac
Penaen andiz beguijetati
Urturic euren bijotzac;
Eta euracana
Biurturic Jauna,
Diño : Ay emacumia!
54. Arbola ece au erre badau
Pecatubaen su garrac
Celan eztituz abrazaduco
Su orrec egur igarrac
Ez niri negar
Eztot nic biar
Pecatubari negar.
55. Eldu cirian Calbarijora
Egozan prest borrerubac
Mundo guztico Eguilliari
Josteco oñac, ta escubac

Icusi eguijan
Bigarren Adan
Arbola atan mundubac.
56. Noc dituz ezcu, eta oñ orrec
Burdiniagaz idigui.
Gorrotuac edo amodijuac
Odolezco lau iturri?
Bai bularreti
Ate idiguiti
Amoria da aguiri.
57. Balcez janciric escutetan dau
Cerubac bere arpeguija
Lotsiagaiti guelditaten dala
Gorrituta Irarguija :
Gau illunian
Eguanian
Altubena Eguzquija.
58. Austen dira arrijac, celan
Dagoz bijotzac osoric,
Crutcebaten dolorez illten
Gueure bicitcia icusiric?
Pecatarijac
Gora beguijac
Negar iturri eguinic.
59 Gogoti negar eguingo deutsut
Jarriric ceure Oñetan
Neure Jaunona, zaitudalaco
Imini crutce orretan:

Daucat damuba
Zu ofendidnba
Gauza guztien ganian.
60. Izana gaiti : Jesus mait ia
Neure pecatuba andija
Preciosua da ceure odola,
Au daquidala balija
Piedadia
Neure Javea,
Jauna misericordija

## BICI BEDI JESUS

### MISIÑO SANTUETARACO CANTAC

---

Jesus gure Jaun maite amoriotsua
*Damu dogu guztioc ceu ofendidua.*
1. Josoric icustean
crutce orretan ceu,
erruquiz ¡ Ay! biotza
¿norc urratuco ez deu?
baita baleuco bere
arri biurtua *Damu.*
2. Burutic oñetara
gorputz eder ori
zauri gordin eguinic
dozu guzti ori
¡ ay zorigaistocoa
gueure pecatua! *Damu*

3. Oñac, eseu ta alboa
dana zulaturic
bizcar aldea azotez
guztia apurturic
arantza gogorracaz
josiric burua, *Damu.*

4. Aimbeste min gogorrez
gaisho zarcala,
Arzain bat bere ardiaren
atcean becela
gure billa ceu zabiltz
erruquiz urtua. *Damu*

5. Jesus su gure billa
¿ta gueuc igues zuri?
Ceu bear gozuzala
ceuc Jauna dirudi.
¡O guizon esquerbaco,
gaisto zoratua! *Damu.*

6. Jauna ¿cer galtzen dozu
gueu ezoc galtcean?
¿Gueu baga etzinean
betico guztian?
¿Cec zaucaz ceu gugana.
orrec laztansua? *Damu.*

7. Ceu baga ecin gueinque
gauzaric bapere,
ezta ecelan emon
arnaza bat bere,
Ceu ondasun guztijen
sustrai ta burua *Damu.*

8. Au onelan jaquinic
¿vici izan nas ni
beti urrin ceu ganic
ceure igues beti?
¡Ondo neuncan ni lurrac
nombait itsutua! *Damu*

# SALVEA.

Jaungoicoac gorde zaizala
Erreguina.
Erruquiz beterico Ama,
*A*. bicitza gozotazun eta esperanza gueurea
Jangoicoac gorde zaizala
Ceure deiez gagoz
*A*. Evaren ume erbestetuoc
Ceu gana gagoz gu cispuruz
sentimentuz eta negarrez
*A*. Negarrezco erri onetan
Ea bada Andrea,
bitarteco gueurea.
*A*. Biurtu eguizuz guganutz
zure begui erruquitsu orrec.
*A*. ta erbeste au irago eta,
eracutsi eguiguzu Jesus
ceure Sabeleco frutu
bedeincatuba.
*A*. ¡O biotz biguna!
¡O erruquiorra!
¡O Marija Virgina gozoa!
Erregutu eguizu gu gaiti
Jangoicuaren ama santea,
*A*. merecidu daigun
alcancetea
Jesucristoren aguintzariac
Amen Jesus.

1. Agur dolorezco Ama tristetua
*Artu gaizuz Ama Seme necatuac.*
2. O Raquel ederra nequez asetua
*Artu gaizuz. Ama Seme necatuac.*
3. Zure zazpi espatac arma zorroztua
belan apurceco Diabru galduac.
*Artu gaizuz, Ama Seme necatuac.*
4. Zure bijotcean canibet sortuac sartu

izau deutsuez gure pecatuac
*Artu gaizuz Ama Seme necatuac.*
5. Icusi nai dogu, Ama larritua!
zure sabeleco Frutu gozotsua.
*Artu gaizuz Ama. Seme necatuac,*
6. Zure espatac dira
arma zorrostuac
belan apurteco
diabru galduac.
*Artu gaizuz Ama, Seme necatuac.*
7 Icusi nai gueunque
gueu erbestetuac
ceure Seme laztan
Jesus gozotzua
*Artu gaizuz Ama, Seme necatuac*
8. ¡O Ama bíguna!
¡ó erruquitsua!
arren izan gaiten
ceruan sartuac.

## MAIJA BEDINCATUTECO

Tu autem Domine miserere nobis.
Deo gratias
Agimus tibi gratias, Omnipotens Sempiterne Deus pro universis beneficis tuis qui vivis et regnas ín sæcula sæculorum. Amen. Padre nuestro y Ave Maria.

## FIN.

## ARQUITEGUIJA.


Goxian oeric jgaitorduban esateco oraciñoiac. pag. 3.
Elexa Santac Oraciñoiac 5.
Angelus Domini eta Eusqueraz. 11.
Jesucristoen bost Llagai Oraciñoiac. 12.
Erlojubac joten davenian cer esan biar dan. 14.
Biarren bat asten danian cer esan biar dan. 14.
Jatorduban cer esan biar dan. 15.
Oera etzut orduban cer esan biar 15.
dan. 17.
Fede Santuco gauzaric biarrenac. 17.
Sacramentubac. 21.
Fedia, eta Fedeco actuac. 24.
Esperancia eta Esperanzaco Actua. 25.
Caridadia eta Caridadeco Actua. 26.
Obra Misericordijazcoac. 27.
Gracija. 29.
Bienaventuranzac. 29.
Pecatuba, Originala, Mortala, eta Veniala. 30.
Pecatu Capitalac. 33.
Onen contraco Virtutiac. 33.
Creduaen esplicaciñoia. 34.

Encarnaciñoeco Misterijo Santuba. 39.
Espiritu Santubaen Doiac. 48.
Erijotcia. 55.
Juicijo particularra edo bacochaena. 56.
Purgatorijua. 57.
Juicijo universala, edo guztijena. 59.
Glorija. 59.
Infernuba. 59.
Paternosterraen esplicaciñoia. 61.
Ave Marijaen esplicaciñoia. 64.
Mandamentuben esplicaciñoia. 65.
Sacramentuben esplicaciñoia. 82.
Batiatuteco cer eguin biar dan. 83.
Ondo confesetaco cembat gauza biar diran. 86.
Examinia cer dan. 88.
Doloria. 89.
Confesinoia. 91.
Satisfacinoia. 93.
Comuniñoia. 94.
Comulgau orduban cer esan biar dan. 97.
Oleacinoia. 99.
Ordia. 100.
Matrimonioa 101.
Ezconzaco impedimentubac. 102.
Cristoen Pasiñoeco Misterijuac. 105.

OBRA SOCIAL


Confesiñoe generala eguiteco modu erraza. 109.

Conciencija examinau aurrian esateco oraciñoiac. 111.

Conciencija examinetaco modu erraza. 115.

Examinia eguin eta Confesau aurrian esateco Oraciñoia. 125.

Comulgau baño leenago esateco Oraciñoia. 126.

Comulgau ezquero esateco Oraciciñoia. 128.

Meza ondo enzuteco moduba. 132.

Crutciac bisitetaco oraciñoiac. 158.

Errosarijo Santuco misterijuac. 181.

Ama Virginaen Letania. 198.

Ama Virgina Errosarijocuari cantia. 201.

Ama Virginiari beste canta bat. 210.

Ondo illten lagunduteco egercicijua. 211.

Contriciñoeco Afectuac. 218.

Ama Virginari Afectuac. 220.

Fede, Esperanza, eta Caridadeco Actuac 224.

Gueisua agoniñan daguanian esateco Actuac. 226.

Indulgencija Plenarija apliquetaco moduba. 229.

Mezá erasoteco moduba. 231.
Jesucristo gueure Jaunen pasiñoco cantac. 237.

---

*Calahorra eta Calzadaco íru Obispo Jaun onec Don Andres Porras, eta Temes. Don Juan Luelmo, eta Pinto. Don Pedro Luis de Osta, eta Muzquiz-en Mesediac concedidu ditubez, bacochac berroguei eguneco Indulgencijac, liburuchu oneń Doctrinia íracurri, edo ęnzuten daven guztijaí.*

# LAUS DEO.